

AUGUSTIN ZUBIKARAI  
JUAN FDEZ. EGIGUREN

# AULESTI



# AULESTI

AUGUSTIN ZUBIKARAI  
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN  
1990



## BIZKAIKO ALDUNDIAREN LAGUNTZAGAZ

Augustin Zubikarai  
Legezko gordetza: BI - 632 - 90  
Irarkola: Flash Composition, S.A.  
Azala: Aitor Fernandez  
Argazkiak: Juan Fernandez Eiguren

# AURKIBIDEA

## Orrialdea

Aurkibidea.	3
Eskintza.	5
Murelaga ala Aulesti? .....	11
Murelaga'tik Aulesti'ra.	13
Aulestiarren antxiñatasuna	18
Oiñetxeak. ....	20
Lea Ibaia. ....	27
Aulesti inguru euskalduna.	33
Aulesti'ko jakingarriak. ....	35
Aulesti gure egunetan.	38
Koba, leiza, arzubi eta abar.	43
Ziarrotza eta Murelaga. ....	50
Murelaga eta Mortarako Markesa. ....	57
Aldian aldiko gizonak.	58
Parroki giroan.	65
Parrokia.	67
Parrokiko artxiboa. ....	78
1532 urtean egindako illobien banaketa.	79
Eleizkizunen lotuerak. ....	81
Urteetako asarreak.	85
Eleizari laguntzen.	86
Eleiz egoera.	87
Ermitak.	90
San Juan Degollado. ....	92
"Elizatxu"	95
Bixente deuna.	97
Paulo deuna. ....	100
Madalena. ....	103
Lorentzo deuna. ....	106

San Martin.	109
San Anton. ....	112
Santa Eufemi. ....	115
Santa Eufemi'ko Maiordomutza. ....	118
Bideetako Kurutzak. ....	126
Urteetako goraberak. ....	129
XVI garren mendean. Igotz eta Meabe mendien Jaubetasuna. ....	131
XVII garren mendean. ....	133
XVIII-XIX garren gizaldietan. ....	136
Frantzetarren diru eskabideak. ....	138
1799 urtean Murelagako erriaren egoera. ....	139
Zorrak eta lorrak. ....	143
Murelaga 1826 urtean. ....	145
Lenengo írakaskíntza. ....	148
Eskola Maisu Barriarentzako baldintzak. ....	150
Santa Kutz abadea. ....	152
Lenengo piñuak. ....	156
Erdibitzeko jarrilekua. ....	157
Aulesti orain irurogetak urte. ....	159
Murelaga eta Ameriketarako joerak. ....	161
Armarridun leiñuak, .	164
Garaixak. ....	169
Danetatik zerbait. ....	172
Aulesti inguruko kantuak. ....	178
Otsoa eta azeria. ....	188
Udaleko artxiboa. ....	192
Baserririk baserri. ....	225

# ESKINTZA

"Ondarroa baserri giroan"

"Berriatua"

"Ipazter"

"Mendeja"

"Amoroto eta Gizaburuaga"

"Etxebarria"

"Ea, Natxitua-Bedarona"...

kaleratu genduzan len

Lea-Artibai inguruko

erriak erakusten.

Sail onetan emen dator beste bat,

–Murelaga zarra, gaur AULESTI...

Lea ibaiak, bigun eta ezti,

igaroten dauan erri isil,

bakearen eresi.

Aulestiarrei eskintzen dautsegu

gogoz eginiko lan au,


akats, utsune ta guzti,


zaarrentzako atsegin

eta gazteentzat erri ezaupide

baten asiera izan dedin.

**Egilleak**











**AULESTIA**

---

# 1- ERRI IZATEAN

---



**AULESTIA - MURELAGA**

- 1 - San Antonio Abad
- 2 - San Vicente
- 3 - San Esteban (desaparecida)
- 4 - Jesús Crucificado
- 5 - San Pablo
- 6 - San Juan
- 7 - Sta. María Magdalena
- 8 - San Lorenzo
- 9 - San Martín
- 10 - Sta. Eufemia
- A - Parroquia: San Juan Bautista

# MURELAGA ALA AULESTI?

Iñoiz, emendik igarotean, edo bertara etortean, gu "Aulesti"ra gentozalakoan etorten giñan. Gure errian, Ondarroa aldean, izen ori erabiltzen gendun beti. Ez gendun ezagutzen, izenez, Murelaga'rik. Baiña inguru onetan esaten euskuen au Murelaga zala erri erakundez, edo eleiz-ate erakundez, eta Aulesti parroki inguruko kalearen izena zala, inguru onetan kale antzera etxadi moltsoa batu zan tokiaren izena zala.

Izatez "erria" Murelaga zan, au "la puebla de Aulestia", au da, Aulesti izendun bizi-tokia.

Gaur, Aulesti'k bere entzutea eta nortasuna kontuan euki nai izan dauz eta izen ofizialtzat, erriko izentzat, Aulesti artu.

Ezin ukatu guk lotsa eta deduz onartzen dogula erriaren naia.

Onetan, guk, egunean eguneko lez jokatu bear, eta orrela, erri deiturari jarraituz, Aulesti izen ofiziala gain gaiñean erabiliko dogu.

Alaz eta autor-tu bearrean gara, liburu onetako datu, jakingarri eta agiririk geienetan, oraintsuko urteetatik atzeragokoetan, eta agiririk geienetan, Murelaga erabiltera beartu egiten gareala, istorian zear eta artxiboetan eta liburuetan be Murelaga izenpean aurkitutako datuak diralako.

Orrek ez dautso kentzen antxiñatasunik ez eta be begirape-nik Aulesti'ri, eta Murelaga'k berea zaintzen dau.



**AULESTI**



**AULESTIA TORREA**



**AULESTIA TORREKO  
LEIOAK**

# MURELAGA'TIK AULESTI'RA

Noiztik dator Murelaga Aulesti'n aldatzea?

Orretarako eragiña 1979 urteko abustuaren 9'an asi zan.

Egun orretan, Udaleko Kulturako Batzordeak txosten bat egin eban, Udalari zuzenduta, era onetan:

## Udal izenaren aldaketa

Udal batzarrari.—Orain arte ofizialki erabili dan erri deitura MURELAGA izan ba da be, Batzorde onek, bear diran kontsejuak artu eta azterketak egin ondoren, AULESTI izena artzea eskatzen dau, errian sartuago dalako eta bere istoriko goraberak oargarri diralako.

## Zegaitiak

A.—Lope Garcia Salazar Isteri idazleak diño: "Aulesti'ko ibarrean Urkiza deiturako famili bat dago, eta famili orretatik sortu zan an Aulestia. Orrein gomutarik andien geratu dana Pedro Otxoa Aulestia'rena da. Onen semea izan zan Pedro (bañez Aulestia, Aulestia torrea egin ebana".

Geografi eta Historiako Errege Akademjaren Iztegiak, torre onetako jakingarriak gogoratzen dauz, eta euretatik gogoragari da au: "Torre au Antxiñetako Muxika'ko Andrandi etxetik datorrena da, eta bertako jaun Aulestia'k Santxo Ortiz 1053 urteko eskribu bat ziurtatzen agertzen da. Erre egin eben 1415 urtean eta Pedro (bañez Aulestia'k bariro jaso eban".

Baita esaten da: "San Juan izeneko parrokia, izen bereko ermitan egon zan 1640 urte arte, eta orduntxe aldatu zan errira. Au da, Murlan; ortik dator ziurretik Murelaga deitura".

"Enciclopedia Ilustrada del País Vasco" liburuan esaten danez, Aulestia torrea izan da gaur Udala dan lekuari izena emon dautsona.

B.—Oraintsu Euskaltzaindiak argitaratutako "Euskal Herriko Udalen Izendegia" izeneko liburuan, Aulesti izena agertzen da eta ez Murelaga. Euskal izeneko deitura bi daukezan udalerrietan, gurea dan lez, bat aukeratzean izen bakoitzaren erri-erabilkera kontuan euki da, bakoitzaren istori zearko eragiña be gogoan eukiaz.

ESKARIA.—Agertutakoa kontuan euki ondoren, au eskatzen da:

a) Udalerriko izen ofizialtzat AULESTI artzea, eta ondoren orrelaxe agertzea Udaleko agiri, paper, agerbide eta zillu guztietan.

b) Aulesti etxearen armarría artzea, Udaleko armarrí ofizialtzat.

d) Errepide eta erríko sarrera ta urteera guztietan, Aulesti izena ipintzea, Aldundiari aldaketa ori eskatuaz.

alaz eta Udal Batzarrak egokien dana erabagíko dau.

#### 1979'ko ALKATE AGINDUA

AGINDUA.—Udal Batzarrak il onetako bilkuran Kultura Batzordearen izenean agertutako txostena ontzat artu eban, udalerrí onen Murelaga orde z AULESTI erabilten astea eskatzen, eta erriaren guraria be ori dala, zeaztapidetzan sartu bedi batzordearen txostena eta Idazkaritzak legearen arabera egoki dana aolkatu bedi.

Alaxe agindu eta izenpetu eban Murelaga'ko alkateak, 1979'ko dagonilla'ren (abustuaren) 14'an.

Zillua: Ayuntamiento de Murelaga.

Firmak:                      Alkatea.                      Idazkaria.

#### IDAZKARITZA'ko IRIZPIDEA

Goíko aginduan esaten dana beteaz, Idazkaritzak 1979'ko abustuaren 20'an emondako irizpidean, au esan eban.

Gai au azertu ondoren, ez egokiola berari onetan irizpiderik emoterik, gai ori Udal Batzarraren zeregiñetakoa zalako.

Legean atzeratuaz, Idazkaritzak esan eban orrelako aldakuntzak, Udalak erabagia artu ondoren, Estatuko Ministroen konseilluari egokiola.

Zeaztapidetza lege z eroan zala, eta ortarako irizpidea emon ebela Parrokoak eta Udaleko Epaikariak be.

Azkenez 1978'ko abustuaren 25'eko Errege aginduan esaten danez, (2.488/1978) Udalerríen izenen aldaketa egiteko eskubidea Euskal Konseillu Orokorrera aldatua dala, eta erakunde au dala gai onetan erabagia artu bear dauana.

Ori da Idazkaritzaren ustez zeaztapidetza onek eroan bear dauan bidea, esandako legedian agertzen dan lez, eta irizpide

ori, goragoko dan Udal Batzarraren irizpidean iztearen alde agertzen zan bere lana.

Orrelako agiri baten ondoren, Udal Batzarra lotuta geratzen zan berari egokionez gai au erabagitera.

Eta ondorengo agirietan garbi ikusten da zelan jokatu zan.

#### EGIAZTAPENA

Emilio Urkidi Zelaia, MURELAGA'ko Udaleko Idazkari lez.

EGIAZTATZEN DOT: Udal Batzarrak, milla bederatzireun eta irurogei ta emeretziko urrilla'ren 14'an egindako batzarrean, beste erabagien artean, au artu ebala:

"UDALERRIAREN IZEN ALDAKETA.—Lendakaritzak agindu eban Idazkari onek zeaztapidearen kontua emoteko, Idazkaritzaren irizpidea osoan onartua geratzen zala eta irizpide orren araberan egin urrengo bideraketa.

Gaian sakonduta, Alkate Lendakariaren txostena irakurri zan era onetan:

Udalari: Agiri au eldu dan egoeran, au da, Udal Batzarrak, Udalerriaren izen aldaketari buruzko Kultura Batzordearen txostena onartzean, ba dirudi egoki dala eskaria zeaztutea geroko ondorenetarako. Nai eta orain Udalerriaren deitura ofiziala "MURELAGA" izan, jakiña, zabala eta agiria zala erriko biztanleriak eta inguruko erriak be, "AULESTI" lez ezagutzen ebela, orren asiera eta gertaerak Batzordearen txostenean garbi adierazten diran lez.

Origaitik eta Udal onetako erriaren gogoa "AULESTI" deitzea dalarik, Alkatetza onek eskatzen dau aldaketa ori era orretan egiña izan dedilla.

Alaz eta Udal Batzarrak irizpide zurragoagaz, komeni dana erabagi bedi.

—Batzartutako ziñegotzi guztiak, txaloka artu eben irakurritako txostena, eta ao batez erabagi onartzea eta udal erabagi lez artzea, jakin eraziz batzartuen ao batez artu zala (bost) eta Udal Batzarra zazpi lagunek osotzen dabela, zeaztapideari geitu eragiñez onetazko egiaztapen berezia. Zeaztapidetzan jarraitzeko eta bere garaian barriro Udalari jakin erazteko, azken erabagia artu al izateko.

Eta orrela geratu dedin, Murelaga'n idazten dot egiaztapen



au, milla bederatzireun eta irurogei ta emeretziko urrilla'ren amazazpigarren egunean.

On ikusia  
ALKATEAK

IDAZKARIA

Udaleko zillua

AGINDUA

Udal Batzarrak artutako erabagiaren araberan, zeaztapidetza onetako ararteak egiten jarraitu bedi, eta orretarako Parroko eta Epaikari jaunei idazkiak bialdu, Udalerrri onen izena aldatzearen egokitasunari buruz euren iritzia emon dagien. Eta betebear au bete ondoren, kontua emon Udal Batzarrari azken baten komeni dana erabagi dagian.

Onela agindu eta izenpetzen dau Alkate jaunak Murelaga'n, milla bederatzireun eta irurogei ta emeretziko urrilla'ren amazazpian.

ALKATEA

IDAZKARIA

Udaleko zillua

**ZEAZTAPENA.**—Jakin erazteko egun onetan bialdu dirala Parroko jaunari eta Bake Epaikariari, goiko aginduan esaten diran idazkiak.

Murelaga'n, milla bederatzireun eta irurogei ta emeretziko urrilla'ren amazazpian.


IDAZKARIA



**AULESTI**



- LEYENDA —
- - Fuente
  - - Manantial
  - ⌘ - Cueva
  - - Sima



# AULESTIARREN ANT<sup>M</sup>XINATASUNA

Lenengo Bizkaï'ko Jaun ziurtzat lez ezagutzen dana, lñigo Lopez da eta a Toda Ortiz'egaz ezkondu zan.

Batzuen ustez 1050 urtean ezkondu zan, baiña Labayru'k bere Bizkaï'ko Istorian diño aurrerago izan bear zala, 1042 urteetan euren seme bi agertzen diralako.

Eta Toda Ortiz, Lenengo Bizkaiko Jauntzat ezagutzen zana-  
ren emazte ori, Aulestia etxekoa zala esaten da.

1051 urtean lñigo Lopez kondeak eta Toda bere emazteak, Busturi'ko Axpe Monastegia opaldu eutsen don Gartzia Araba'ko gotzaiñari, bera ilten zanean opari ori San Millango monastegia-  
ren alde geratzekotan.

1053 urtean lñigo Lopez jaunak eta bere emazteak, Jaka inguruan dagon san Juan de la Peña'ko monastegiari, au da Zianno bertako monje nagusi eta beste monjeeï, Gaztelugatxeko gaztelua eta eleiza eta inguruan eukezan solo batzuk eskiñi eutsezan. Kronikalari batzuk Erkoreka auzoa be sartzen dabe eskintza orretan.

Eskintza au lenengo izenpetzen dabena lñigo eta Toda dira, eta euren atzetik beste ainbat jaunen izenak agertzen dira eskintza ori indartzen edo ziurtatzen, baiña danen artean lenen agertzen dana Santxo Ortiz Aulestja da, eta bera lenena izateak ba dirudi Todagazko senidetasuna adierazten dauala. Ortik ataraten dabe istori-idazleak Toda Ortiz au Aulestia izango zala.

Aulestja etxe eta familiari buruz, Lopez Garzia Salazar'ek, Somorrostro'ko San Martin torrea preso eukela idatzi eban "Bienandanzas e Fortunas" liburuan, au irakurten da bertako XXI garren liburuxuko 32 orri aldean:

"En el valle de Aulestia / hay un linage que se llaman de Vrquiza, e deste / linage sucedió allí en Aulestia e destos del / que ay más memoria fue de Pedro Ochoa de Au / lestja, que fi / zo la torre de Aulestja; este Pedro ibañes dexó fijo a Ochoa Lopes de Aulestia, que tiene / buenos parientes e buena fazienda e de su linage".

Geroago XV garren gizaldian Aulestia torrea egin ebela jauntxoen erasoaldi baten, irakurten da.

Ibargüen Cachupin'en kronikan irakurten danez torre au jaso ebana, Naparroako Erregeen etxeko zan diego Garzia izan zan, eta egite ori ain zuzen be 930 urtean izan zan.

Jabier Ibarra eta Pedro Garmendia'k idatzitako "Torres de Vizcaya" liburuan, Iturriza'k esaten dabena gogoratzen da. Oraingotan zur jokatzuz, esaten da liburu orretan, Aulestia'ko etxea Andramendi etxetik datorrena dala eta Aulestia inguruan jaso zala, erri onen sarkaldean.

Torre au 1451 urtean Bizkaiko Anaitasun talde lez ezagutzen zanak erre egin eban, Bizkaiko jauntxoan alderdietako gaizkilleak bertan batzen ziran aitzakiz, eta gero 1456 urtean lortu eben baimenaz barrizatua izan zan.

Onetan Labayru eta Iturriza'ren artean, au da istori-idazle bien artean, urteari buruz akatsen bat dago. Batak diño 1556 urtean barriztua zala eta besteak 1456 urtean. Beraz eun urteren aldia bata bestean zenbakietan.

Torreak, zabaleran, amar metro daukaz eta luzeran amarretik amalaura, lurralde pendiztsuan egiña dalako.

Azken urteetan geigarri batzuk alboratu dautsez eta egitura orreik torre itxura asko galdu eragin dautse **ingurutik** igaroten diranentzako egitura jatorraren zati batzuk estalduta gelditzen diralako.



**AULESTI**

# OIÑETXEAK

XVIII garren gizaldian, Murelaga amar auzo eta "kalean" banatzen zan, zerrenda, erroltze edo zentzoak egitean.

Auzoak: Gizaburuaga, Goierri, barroia, Malax Murelaga, Narea, Solaguren, Urriola, Zetokiz eta Zubero ziran.

Eta bestea, "kalea", esatekc erdi-aldea, edo obeto bizi-leku alkartua edo etxe baltzua egoan ingurua, erderaz "la puebla de Aulestia" deitzen eutsoena.

Famili eta lekuetako jatorri-etxeak aztertuten dabezanak, gogoan eukiten dabez Bizkaia'n 1704, 1745 eta 1796 urteetan egin ziran etheen zerrendak, abizen edo apelliduen jatortasuna adierazteko. Urte orreitan agertzen diran izenak, oiñetxe edo jatorriko etxetzat artzen dabez eta ori dalata ortik sortzen diran abizenak erri bakoitzeko jatortzat artu.

Orrela, Aulesti edo len paperetan Murelaga'ko zerrendetan agertu eta jatortzat emon !eikezan deitura edo izenak geroago zeaztuten doguzanak dira.

Jaime Kerexeta'k bere "Casas Solariegas de Bizkaia" liburuan esaten dau, etxe baten izena goiko, beko, barrengo, erdiko ta antzerako geigarriekaz bereiztuten danean jatorri bat agertzen dauala, nai ta iru edo lau abizen osotu.

Esateko, lbatao aurrenengoa, lbatao barrenengoa, lbatao errota, !ru abizen ezbardin dira nai ta jatorria bakarra izan: lbatao.

Ba dagoz deitura batzuk denbora bateko zerrendatik bestera izki (letra) bat aldatzen dabenak. Bajña ori, geienetan, leku bakoitzean gertatu ziran eskribaduen gorabera izaten zan.

Aulestja izen berbera 1704 eta 1796 urteetako zerrendetan s gaz agertzen da, au da, Aulestia. Ordez 1745'ko zerrendan z gaz, Auleztja. Guk geien erabilten dan eran sartu dogu.

Ara oiñetxetzat eta emengo abizenen sorleku edo jatorritzat emon leikezan etxeak.

Abad ien bol uaga	(Aulestia kalean)
Agitar	(Aulestia kalean)
Agirre	(Malax)
Akaiturria	(Goierri)
Alberkakoa	(,aulestia kalean)
Alberke	(A.ulestia kalean)

Alegria (4 etxe)	(Aulestia kalean)
Alegria goienengoa	(Aulestia kalean)
Andikoetxea 1795	(Gizaburuaga'ko bidean) 1704'n Andikoa.
Angiz-olea	(Gizaburuaga'ko bidea)
Angiz	(Gizaburuaga'ko bidea)
Angiz (bu rdiñola)	(Aulestia kalea)
Angiz errota	(Aulestia kalea)
Antonenekoa	(Aulestia kalea)
Aran-beazkoa	(Narea)
Aranguren	(Narea)
Arkoida	(Narea)
Arkoide barri edo beko	(Narea)
Arrangiz	(Aulestia kalea)
Arrangiz albokoa	(Aulestia kalea)
Armagin	(Aulestia kalea)
Arteatx (2)	(Malax)
Artetx:eaga	(Urrjola)
Aulestia torre	(Aulestia kalea)
Aunzidor	(Gizaburuaga kalea)
Aurteña (2)	(Zetokiz)
Auzokoa	(Aulestia kalea)
Azorin-Asorin	(Aulestja kalea)
Azta	(Aulestia kalea)
Batxiller	(Aulestia kalea)
Barandakoa	(Aulestia kalea)
Barbariola	(Goierri)
Barroeta	(Aulestia kalea)
Basabe (3)	(Aulestia kalea)
Basterretxea	(Solaguren)
Bengoa	(Narea)
Bengoetxea	(Gizaburuaga b.)
Bolunaurre	(Urriola)
Boluntxua	(Aulestia kalea)
Kalebarren	(Aulestia kalea)
Kaleko etxea	(Aulestia kalea)
Kale	(Aulestja kalea)
Kaleguren	(Aulestia kalea)
Kale Txantonena	(Aulestia kalea)
Kanton	(Aulestia kalea)
Kareaga	(Zetokiz)

Koba	(Gizaburuaga b.)
Celeguen	(Aulestia kalea)
Kortabitarte azpikua	(Goierrri)
Kortabitarte erdikua	(Goierrri)
Kortabitarte goikua	(Goierrri)
Damianenekua	(Aulesti kalea)
Danzariena	(Aulesti kalea)
Espilla emetikua	(Malax)
Espilla andikua	(Malax)
Estebantxuenekua	(Aulestia kalea)
Etxeandia zarra	(Aulestia kalea)
Etxetxua	(Aulestia kalea)
Ezkerrena	(Aulestia kalea)
Gamanekoa	(Aulestia kalea)
Ganboena	(Aulestia kalea)
Garaur barrenengoa	(Solaguren)
Garaur erdikoa	(Solaguren)
Garaur goenengoa	(Solaguren)
Garetxana	(Solaguren)
Garetxana	(Zetokiz)
Goikoetxea	(Malax)
Goikoolea	(Zetokiz)
Goitiandia	(Zubero)
Goronsolai (2)	(Goierrri)
Guadrena (Guardena)	(Aulestia kalea)
Guardia	(Aulestia kalea)
Gerizpe	(Aulestia kalea)
Gizaburuaga Goxeaskoa	(Gizaburuaga bidea)
Ibakatx errota	(Zetokiz)
Ibakatx makurra	(Zetokiz)
Ibakatx makurra barri	(Zetokiz)
Ibarra beazkoa	(Gizaburuaga bidea)
Ibarrola	(Zetokiz)
Ibarrola andikoa	(Aulestia kalea)
Ibarrola bekua errota	(Aulestia kalea)
Ibarrola emetikua	(Zetokiz)
Ibarrola burdiñola	(Aulestia kalea)
Ibarrola errota	(Aulestia kalea)
Ibatao (3)	(Aulestia kalea)
Ibatao aurrekoa	(Aulestia kalea)
Ibatao barrenengoa	(Aulestia kalea)

Ibatao errota	(Aulestia kalea)
Idoeta	(Narea)
Itola	(Solaguren)
Iturrikoa	(Aulestia kalea)
Iturrioz	(Aulestia kalea)
Iturrioz zarra	(Aulestia kalea)
Iturriza goikoa (2)	(Goierri)
Itza	(Zubero)
Jauregi	(Aulestia kalea)
Labakoa	(Aulestia kalea)
Landaburu	(Zetokiz)
Laxear	(Aulesti kalea)
Lekoniz	(Malax)
Legarra (2)	(Zubero)
Lobianoena	(Aulesti kalea)
Lopetxena	(Aulesti kalea)
Loperena	(Narea)
Loperena	(Aulesti kalea)
Makalena	(Aulesti kalea)
Malax Aldekoa	(Malax)
Malax Arteaga (Goikoetxea)	(Malax)
Malax Beitia	(Malax)
Malax Beña	(Malax)
Malax Etxebarria	(Malax)
Malutegi	(Aulestia kalea)
Mari Asenziena	(Aulestia kalea)
Marijena (2)	(Zubero)
Mastikoa (Masti)	(Narea)
Mendikoetxea	(Gizaburuaga bidea)
Mulutegi	(Aulestia kalea)
Murelaga	(Zetokiz)
Narea Aldekoa	(Narea)
Narea Etxebarria	(Narea)
Narea Goitia	(Narea)
Narea Uriarte	(Narea)
Oisukoa	(Aulestia kalea)
Olabarria	(Gizaburuaga bidea)
Olaldea	(Gizaburuaga bidea)
Olaldea	(Gizaburuaga bidea)
Olariaga	(Goierri)
Orozketa auzokua	(Aulestia kalea)
Orozketa Elexalde	(Aulestia kalea)



Ostatukoa	(Aulestia kalea)
Otzaga andiaga	(Zetokiz)
Pagoriaga errota	(Aulestia kalea)
Perlena	(Aulestia kalea)
Pisukoa	(Aulestia kalea)
Rementeria	(Gizaburuaga bidea)
Solaguren Beazkoa	(Solaguren)
Solaguren goxeaskoa	(Solaguren)
Solaguren ormaetxea (2)	(Solaguren)
Solarte	(Aulestia kalea)
Soloaga 1745	(Goierri) 1796 - Soloaran
Soloagaena	(Aulestia kalea)
Telleatxea	(Aulestia kalea)
Telleria	(Zetokiz)
Torre (errota)	(Aulestia kalea)
Txantxakoa	(Aulestia kalea)
Uribarren	(Narea)
Uriguen	(Narea)
Urizar	(Malax)
Urizar Kortabitarte	(Malax)
Urriola andikoa	(Urriola)
Urriola auzokoa	(Urriola)
Urriola beitia	(Urriola)
Urriola Etxebarria	(Urriola)
Urriola goitia	(Urriola)
Ururdegi bekoa	(Goierri)
Ururdegi goikoa	(Goierri)
Usoaga bekoa (errota)	(Aulestia kalea)
Usoaga goikoa	(Zetokiz)
Zalutregi (Zalutregi)	(Malax)
Zearra	(Urriola)
Zelaikoa	(Aulestia kalea)
Zetokiz beazkoa	(Zetokiz)
Zetokiz goxeaskoa	(Zetokiz)
Zetokiz (burdiñola)	(Aulestia kalea)
Zetokiz errota	(Aulestia kalea)
Zubero etxebarría	(Zubero)
Zubero goikoa	(Zubero)
Zubero goxeaskoa	(Zubero)
Zubero Uriarte (2)	(Zubero)

1704 urteko zerrendan 105 etxe batzen ziran danetara eta 1796 urtean 182.

Kontuan euki bear da, izen oneik, len esan dogun lez, XVIII garren gizaldian egindako zerrendetatik ataratakuak dirala. Baiña liburu onetan bertan agertzen diran beste dokumentu batzuetatik erraz atara lei egon zirala beste etxe edo abizen batzuk emengo jatorrak izan ziranak, bertan etxea edo tokia eukelako, parrokian be, esate baterako, XVI garren gizaldian, au da, gizaldi bi lenago agertzen ziranak. Ikusi, bestela, 1532 urtean parrokian egindako sepulturen banaketa, eta laster oartu lei an dagozan izen batzuk emen ez dirala agertzen. Bear ba da erriz aldatuko ziralako, edo iñoiz gertatzen dan lez, abizena bera emakumetan zabalduko zalako, eta dokumentuetarako galdu.

Orrela, goiko zerrendari geitu leikioz beste izen oneik, "sepulturetan" agertzen diranak:

Aberanga

Andia

Axkoeta

Bereikua

Berreño

Bollar

Enparanza

Garai

Gorostjaga

Labea

Legorraza

Mendiguren

Olaeta

Orma

Otxoa

Urzaa

Zabala

Zabaljauregi

Orrez gaiñera, Labayru'k bere Historiako lenengo tomoan, oñetxe eta armarridun etxe batzuk izentatzen dauz. An dagozan batzuk goragoko zerrendetan sartuta dagoz, baiña ez danak.

Ba datoz tartean beste oneik be:

Arbaiza (Casa solar y armera en san Juan de Murelaga) diño berak.

Gaurdiola (Casa solar y armera en san Juan de Murelaga) diño berak.

Martinez (Casa solar y armera en san Juan de Murelaga)  
diño berak.

Matanzas (Casa solar y armera en san Juan de Murelaga)  
diño berak.

Ziarrotza'ko Kolejiata be zer ikusi andia eukia da erri onegaz  
eta euren zerrendetan, ogetak dira artu-emonetan, edo ta artuta-  
ko lotuerei erantzun bearrez aurkitzen ziran etxeak.

Batzuk, deitura batzuk, gorago erabili izan ba dira be, ba  
dagoz tartean beste zerrendetan agertzen ez diranak.

Esateko

Albinagorta, iñoiz Ardinagorta irakurten da.

Aziro, "ledanía de Aziro".

Lauzirika,

Uzakiola,

Urtikiz.

Azken izen oneik danok XVI garren gizaldian agertzen dira-  
nak.

Beraz ezin ukatu izen onei emengo jatorririk.



**AULESTI**

# AULESTIA'KO IBAIA

Aulestia'tik igaroten dan ibaia LEA da.

Oiz'en sortzen da eta Lekeitio'n itxasoratu. Iturriza'k era onetan zeaztuten dau bere ibilbidea:

Oiz mendietan jaio eta Goikolea, Txaargarate eta Aldape'ko erreketako urak Arbazegi'n artu eta Gerrikaitz'etik zear Munditibar'era duala, Munditibar'en beste lau erreketako urak artu, bi Zubialdea eta Zubikoa zubien inguruetan, eta beste bi berago Gerrika eta Totorika'tik datozenak.

Andik Murelaga'ra, Gaztiburu eta Motrollo'ko errekaen urekin andituz, Murelaga'tik Aulesti'rako bidean, eskuma aldetik Ibakatz zubjaren alboan beste erreka txiki baten urekaz sakondu. Ibaixto au Gerrika'n sortzen da eta Madalena eta Lekoniz'eko urekaz geitu eta Urriola'tik zear beratu.

Aulesti'n Yon deunaren parrokia 150 pausutara itxi eta Gizaburuaga'raño dua eta Amoroto'ren egaletatik Lekeitio'n sartzen da. Aurrez, legua laurden lenago, Zerella'ko olaren eskumaldetik Berriatua'ko mendietan jaio eta Atxurra'tik zear beratzen dan ibaiaren urak artuaz.

Iturriza'k ibaiaren bidearen luzera leguatan agertzen dau era onetan:

Oiztik Gerrikaitz'era, legua ta laurden.

Gerrikaitz'etik Munditibar'era, 600 oin (pausu).

Munditibar'etik Aulesti'ra, legua bat.

Aulesti'tik Gizaburuaga'ra, legua bat.

Gizaburuaga'tik Amoroto'ra legua baten irugarren zatia.

Eta Amoroto'tik Lekeitio'ra legua bat.

Beraz legua bakoitzak bost kilometro eukiten zitula kontuan eukita, kilometrotan 23 inguru.

Iturriza'ren esanetan, ibai onetan amu arrain, aingira 9ta eskallu ugari batzen da.

## ZUBIAK

Aulesti'n zear, ibai gaiñeko zubi oneik ezagutzen dira:

Beko zubia

Bixko zubia

Errotatxo

Goikola

Goierra

Ibakatx

(beta

Zjerra.





**BEKO ERROTAKO ZUBIA**



**GOIKOLAKO ZUBIA**



**BIXKO ZUBIA**



**ZIERREKO ZUBIA**



**IBEKATX ZUBIA**



**ERROTATXO'KO ZUBIA**





**GOIERRIKO ZUBIA**



**IBETAKO ZUBIA**

# AULESTI, INGURU EUSKALDUNA

Euskaldun jator izateko iru gauza bear dira: bere sortzea erakutsiko dauan izen biribil bat agertu, Aitor'en semeen berbeta erabili eta... Ameriketa'n osabaren edo senideren bat euki.

Larogei urte dira jesulagun batek ori idatzi ebala, euskaldunak Ameriketara joateko euken garrari buruzko liburu bat argitaratu ebanean.

Jesulagun ori Baiona'n jaio zan: Aita Pierre Lhande. Orrela deituaren, bere abizen (apellidu) jatorra Basagaitz zala autortzen eban, nai ta gero paperetan aititaren Allende abizena Lhande lez erdi frantzezeratu eta familikoak ori erabilten asi. Ama Uruguai'ko Montevideo'n jaioa zan. Gure Pierre au Jesusen Lagundiko Aita izatera eldu zan eta ospe andiko gizona izan zan. Euskal akademiku aukeratu eben Euskaltzaindia sortu eta laster.

Ez dakigu Aita Lhande'k iru baldintza beteten zitun bere nortasunagaz arrotzearren esan ete eban ori.

Baiña emen dogu AULESTI, erri euskaldun izateko gai iñor ba da, aukerakoa. Aulesti nai Murelaga deitu, eleizate au luza-roan deitu zan lez.

Zeñek ukatu izen bibirillik bata nai bestearj?

AULESTI.—Izen euskalduna. Isaak Lopez Mendizabal'ek, bere "Etimologías de Apellidos Vascos" liburuan diño izen au onela egin, osotu eta konpontzen dala: **Uli**, erderaz **helecho**, **ta** atzizkia (subfijoa) ugarigarria, eta **a** asierako izki (letra) protetikagaz osotutako berba dala eta Aulesti'ri erderazko "helechal" esan naia emoten dautso, au da, iratza, garotza, ira-toki edo antzekoa.

Bere aldegarri lez, "bariante" lez, Arestia be ipinten dau, au da, Aritz lekua.

MURELAGA.—Oneri be gaztelaniazko esaera bardiña emoten dautso: "helechal". Eta itz onetzaz au diño L. Mendizabal'ek: **Uru** = helecho eta **el** eta **aga** atzizkiekaz osotutako berba dala, aurreko letra protetika daukala, au da, M aurrean daukala.

Orra izenak, euskal jator jatorrak biak.

Geiago. Egin daigun Aulestia erri izena, izen bereko torretik artua eta geratua dala. Baiña Aulesti etxe orretan ez ete eban zer ikusirik euki beste euskal izeneko etxe jatorra zan Urkiza etxeak?

Irakurri "Bienandanzas e fortunas", Lope Garcia Salazar'en liburu zarra, eta an onelako au irakurri lei: "Porque en estos lina-

jes de Vizcaya se haze/mención en algunos logares, sepan todos/ que mejores logares señalados e los mas anti/guos de Vizcaya, después que en ello ovo/pobladores, fueron quatro que avian Renta/ e divisas, e labradores, que fueron estos que se / siguen. El solar de Urquiza, el solar de Larralus, el solar de Galdacano, el solar de Ayangis/ que eran quatro, donde vienen muchos escuderos/. (Libro XXI)

Au da, Bizkaian bizi lagunak egon ziranetik, lau etxe izan zirala errentaz eta langillez ezagunenak, Urkizatarren etxea, Larralus, Galdakano eta Axangizkoa, lau etxe gero eskudero askoren jatorri izan ziranak.

Eta Lope Garcia Salazar berberak diño, Urkiza oiñetxea Aulestia'ko ibarrean egoala, eta emendik etorri zala Aulestia, eta emengo Pedro Otxoa Aulestia, eta onek semetzat Pedro (bañez Aulestia euki ebala eta onek egin ebala Aulestia torrea, eta andik etorri zala Otxoa Lope de Aulestia, senide on, eta ondasun onekoa.

Eta erriaren izenak euskaldunak izanaz batera, euskaldun uts baita bere zatiak, auzoak:

Berez dator bigarren baldintza beteten. Aitor'en semeen izkuntza erabiltea.

Prañarte Aulesti'n euskeraz ez ekien iñor egon ba da, ez da izan bertako seme izan dalako, osalari eta beste zeregiñen batez denporaldirako etorritakoen bat baiño. Edo ta mandazain agertutakoen bat, bereala beretarrak euskaldun biurtzeko.

Gogoratu William Douglass'ek bere liburu batek diñona: "Murelaga'n euskaldun ez diran bizilagunak oneik dira: Osagillea, idazkaria, baso-zaintzaillea, arda-saltzaillea eta errian bizidan gizon bat". Ori 1960 urtean zan. ("Oportunidad y éxodo rural en dos aldeas vascas". Echalar y Murelaga").

Eta irugarren baldintza aidean dago ezpai barik: Peru, Argentina, Uruguai, Venezuela eta Ipar Ameriketa'n, munduko beste toki batzuk ez izentatzearren, zeñek ez daukaz euretan bere odolari ikututen dautsen senideak?

# AULESTI'KO JAKINGARRIAK

## **Egoera-mugak**

Sei errik inguratzen dabe Aulesti, bere muga izanik.

Iparraldean: Gizaburuaga.

Ego aldean: Markina-Xemein eta Arbazegi-Gerrikaitz.

Sorkaldean: Markina-Xemein eta Amoroto.

Sarkaldean: Nabarniz eta Mendata.

## **Neurria**

25,2 kilometro lautu daukaz bere inguruak.

Alaz eta hektareatan agertzen diran neurri batzuetan, 2.436 hektarea esaten da. Oneitatik 447 hektarea erriaren basoak dira.

## **Lekutzea**

Lekeitio'tik Munitibar'erako errepedean dago. Beste errepede bat, MarkiñaTik bertara zuzen datorrena da.

44 kilometro dagoz bertatik Bilbao'ra.

18 Gernika'ra.

12 Lekeitio'ra.

8 Markiña'ra.

18 Ondarroa'ra.

Trenik urrena Gernika'n daukana da.

## **Mendiak**

Mendi artean dago Aulesti.

Bere lurretan dagoz:

Illunzar, 718 metrokua.

Urregarai, 697 metrokua.

Bedartzandi, 690 metrokua.

Motrollo 590 metrokua.

## **Izkuntza**

Aulestiarren izkuntza, berbeta, bizkaiera da, sorkaldeko era-koa, Markiña aldekoa.

Pedro Irizar'ek, 1981 urtean argitaratu eban "Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca" liburuan zeaztasun au emoten da:



## AULESTI

810 bizilagun, 296 kalean eta 512 baserrietan. Euskal berbetadunak: 798. Eta geiago zeaztuteko oar au agertzen da: Bost lagunek ez dabe euskerarik egiten; beste zazpirek, egiten ez ba dabe be, ulertzen dabe, urte asko daroezalako errian eta euren semeak ondo egiten dabelako. Beste guztiak euskera egiten dabe.

### **Erri-erabidea**

Eleiz-atea da, erderazko anteiglesia.

Gernika'ko Batzarretan, 19 garren aulkia eukan eleiz-ateen artean.

### **Bizilagunak**

1960 urtean 1.133 bizilagun eukazan. Oneitatik 333 kalean.

1989 urtean, 713 lagun.

### **Jendea**

Iturriza'k, bere Bizkaiko Istorian onela agertzen dauz aulas-tiarrak:

"Baserritar langilleak dira, burutsuak lurreko ekonomi saillean, urtero bost milla anega gari artzen dira bertan, sei milla

anega arto; orrez gain gaztain, sagar, baba, arba, limoe, igali, ortuari eta bizitzarako bear diran beste jakiak".

### **Ferriak**

Gaur ez da feririk egiten, baiña euki eban 1799 urtean lortuta ferriak egiteko eskubidea, illaren lenen<sup>g</sup>o zapatuetan. Feria Torrezelai deitzen dan tokian egiten zan, eta baimena ganadu nausiarentzako zan.

### **Esaera bereziak**

Ba dauka erria izentatzen dan esaera berezi bat. Ala: Murelaga'ko serorea, gauza onen zalea.

### **Baserriak**

Batez beste 10,5 hektareako baserriak dira emen dagozanak.

Jakingarri lez esan bear da "Solua" baserriak 32,29 hektarea daukazala, baiña euretatik 29,11 basoak dirala.

"Barbariola" baserriak 25,38 hektarea daukaz, baiña euretatik 22,28 baso ta mendiak.

Dagozan baserriak kontuan artuta. batez bestekoa 10,672 hektarea dira bakoitzeko.

### **Baserri giroa**

Murelaga'tik gitxi dira arrantzara itxasoetara joanak. Alaz eta Lekeitio'ra joaten ba dakie bertako baserriarrak, eta Lekeitio'tik bialtzen dabe bertara arraiña ango arrantzaleak.

### **Etixerik zarrena**

Oraintsurarte Iturriotz zan emengo etxerik zarrena. Baiña 1980 urtean beratu eben. Aituen ustez etxe eder eta jatorra zan egin zanean, itxuraz kale-ertz baterako egoki egiña.

### **Kan poratzea**

Aulestiarrak, miñez, baiña ondasun errezagoen billa, Ameriketarako joera euki izan dabe. Edo ta Australia'ra.

Gaur Australia'n bizi dira emen jaiotako berrogeiren bat. 1966 urtean berrogetamar artzain aulestiar ezagutzen ziran Ameriketako Estatu Batuetan.

# AULESTI GURE EGUNETAN

## Bizi lagunak

1966 urtean, 671 lagun bizi ziran bertan.

Euretatik 368 gizoneko

303 emakume.

1966 urtean, 703 bizilagun **eskubidezko**.

Euretatik 395 gizon

308 emakume.

Azken oneititik,

185 ziran 60 urtetik gorakuak, 99 gizon eta 86 emakume.

183 40/60 urte bitartekuak.      105 gizon eta 78 emakume.

182 20/40 urte bitartekuak.      110 gizon eta 72 emakume.

153 1/20 urte bitartekuak.      81 gizon eta 72 emakume.

Euretatik

684 bizkaitarrak

2 arabarrak

12 gipuzkoarrak

2 beste probintzietakuak

3 atzerrian jaiok

1989 urtean, 713 lagun egozan errotze edo zentzoan sartuta. Euretarik 396 gizoneko eta 317 emakume.

Euretatik

205 60 urtetik gorakuak.

162 40/60 bitartekuak.

218 20/40 bitartekuak.

128 1/20 bitartekuak.

Erraz konturatu daitekenez, lau urtetan zarren artean, au da, 60 urtetik gorakoetan, 20 lagun geiago batzen dirala, eta orde, 1/20 bitartekoetan, 25 lagun gitxitu. Zarrena jakiña da, beragoko sailetik igarokak dirana. Txikietakoa, oster, jaiotzen utsunea.

## Udaletxea

Udaletxe ederra dauka Aulesti'k. Ain zuzen azken urte oneitan barriztua. Barriztu eta txukundua. Etxagintza bakarrik, 70 millo peseta inguru kostatu zan. Tresneria sartu barik. Baiña



## UDALETXEA

udaleko serbitsu guztiak bertan batzen dira, bai eta umeen eskolak be.

### **Eskoletxeak**

Bost gelatan banatuta dagoz 14 urte arterako umeak. Neska-mutillak. 75 ume dira danetara lenengo irakaskintzan dabiltzanak.

### **Osakidetza**

Errian dago osalaria eta praktikantea.  
Botika be ba dago bertan, Udaletxe azpian.

### **Arte eskola**

Gazteak erti-lanetan zaletzeko asmotan sortu zan arte-eskola deritxona.

Gaur Udaletxea barriztutzean, bertako gela bat gorde da zeregin orretarako.

### **Urrutizkiñak-Telefonoak**

170 inguru dagoz serbitsu au daukenen artean.



## Udaleko aurre-kontuak

Azken amar urtetako Udaleko aurre-kontuak (presupuestoak) agertzen doguz euren kopuru orokorretan.

1980 urtean	4.370.406 peseta.
1981 urtean	4.800.000 peseta.
1982 urtean	4r800.000 peseta.
1983 urtean	6.160.000 peseta.
1984 urtean	13.421.938 peseta.
1985 urtean	11.064.645 peseta.
1986 urtean	15r177.152 peseta.
1987 urtean	71.740.441 peseta.
1988 urtean	64.061.805 peseta.
1989 urtean	50.590.000 peseta.

## Udal erakundea

Azken auteskundetatik, emengo Udala zazpi gizon onein agintaritzapean dago:

Alkatea:	Sabin Zenarruzabeitia Zarrabe.
Ziñegotziak:	Iñaki Arangoena Azpjazua.
Ziñegotziak:	Roberto Arizala Zuzaeta.
Ziñegotziak:	Juan Tomas Mendieta Zelaia.
	Laurak Herri Batasuna taldekoak.
Ziñegotziak:	Maria Angeles Rementeria Bollar.
Ziñegotziak:	Jorge Kareaga Azpiazu.
Ziñegotziak:	Jose Antonio Zabalbeaskoa Garro.
	Azken irurok E.A.J. P.N.V.koak.

## Aulesti'ko gintza eta merkataritza

Salerosketa eta gintza, zeregin oneik osatzen dabe:

Altzariak	1	Josteko lanak	1
Arategiak	1	Kontadoreak	1
Ardau banaketa	1	Igeltzeritza	3
Arostegiak	2	Ogitegiak	1
Arrain saltzea	1	Pentsuak	1
Arri-olak	3	Serrak	2
Banketxeak	1	Textu egitura	1
Botika	1	Txirtxildegiak	3
Edaritegiak	4	Ule apaindegia	1
Erri-lanak	1		
Garraioak	37		
Jatetxeak	3		
Jolas-makiñak	?		



## **AULESTI BEKALE**

Ikusten danez aulestjarren zeregiñen artean gaur ez dago txokolate gintzarik eta esan bearreko da oraintsurarte Aulestin egiten zan txokolatea inguru guztian eskabide andiko zala. Ez da agertzen errotarik be, aldi baten amar egon ba ziran be.

Arrain garbiketa eta gertuerako lantegi bat be egon zan, Leke;tio'ko kabana baten laguntzaille. Bai eta eskopetak gertuteko lantegia be. Gaur ez bata ta ez beste.

## **Motordunak**

Irureun eta ogei ta iru motordun dagoz, kotxe, kamioi, erre-molke eta motorren artean, errotzean sartuta. Kopuru onetan ez dira sartzen traktoreak, ez dabelako ordaintzen erriko zergarik.

## **Baserriak**

Zabal eta ugaria da Aulesti baserrietan.

Zoritxarrez azken urteetan batzuk galdu dira eta beste batzuk galtzeko itxuran.

W. Douglass'en "Muerte en Murelaga" liburuan, eta 1973 urteari dagokionez, 121 baserri agertzen dira euretan 141 famili bizi dirala.

Era onetan banatzen dira:

Malax	17 baserri	20 familj.
Narea	15 baserri	18 famili.
Ibarrola	27 baserri	32 familj.
Goierri	12 baserri	13 familj.
Sologuren Garaur	14 baserri	14 famili.
San Anton	17 baserri	20 familj.
Zubero	9 baserri	12 famili.
Urriola	10 baserri	14 famili.

Aulestiar gizon argien zerrendan gogoratzeko batzuk:

## **Bengoa, Santiago**

Mexiko'ko katedraleko txantrea izan zan eta bertako deantzat auke-ratua.

1779'ko Martiaren 11'an jaio zan. Gurasoak Domingo Bengoa eta Maxima Leniz, azken au gizaburutarra.

## **Goitia, Diego**

Jesusen lagundikoa. Euskal idazlea izan zan, baiña bere idazlanak gaur-gaurkoz galduta dagoz.

1767'ko Azilla'ren 21'an jaio zan. Gurasoak Juan Goitia Garetxana, aulestiarra eta Teresa Okamika gizaburutarra izan ziran.

## **Ibarrola, Julian**

Murelagatarra. Gerra gizona. Be-Errietako gerrate guztian Alba'ko duke eta Alejandro Farnesío'ren menpean ibili zan eta gudaketa batzutan ospe ugari lortu.

1577 urtean Bernardino Mendozak idatzitako guda oneri buruzko Zer-esanetan, sarri aitatzen dau Kapitan adoretzu au.

# KOBA, LEIZA, ARZULO ETA ABAR

Koba edo Leiza zuloz betia dago inguru au.

Ogeita amaika ain zuzen be Aulestiko lez ezagutzen diranak.

Nun ete dagoz euskaldun zarren sinistetan, lur azpian gordeta dagozan altxor aberatsak?

Jose Migel Barandiaran jakintsuak, Auñamendi saillean agertutako bere "El Mundo en la mente popular vasca" liburuan, 17 orrialdean, guk euskeratuta agertzen dogun textu au irakurten da:

*"Jakiña da Euskalerriko toki batzutan altxor aberatsak doguzala eskutatuta. Nun dagozan zeaztu barik. Ortze dago naste, bakantasun eta rizpideetako ezbardintasuna. Origaitik billatzeko gogoa eta eurak aurkitu naiko alegiñak, bai eta orretarako kezka eta zailtasuna be.*

*Ara siniste batzuk:*

*Ereñozarre mendian urrez betetako idinarru bat lur-azpian gordeta dagola esaten da.*

*Arrankugiaga'ko Goikogane'n, auntz baten narrua eta Igoz-mend 'n, Aulesti'ko Santa Eufem 't k laster, urrezko kanpai bat".*

Altxorra aurkitu edo ez, kobak beti dauke gizonarentzat alako eskutuzko edo misteriozko zerbait eta Aulesti'n, onetan zaleak diranak, ba dauke misterio orí argitu naian ibilteko aukera, nai ta bertako leza edo koba zuloak txikiak izan.

Bizkai'ko Espeleologi taldeak argitaratutako "Bizkaiko Haitzuloen Katalogoa eskuetan dogu. Eta be rtan erderaz agertzen diran tokien izena, deitura eta zeaztasunak, euskeratuta agertzen doguz. Katalogo orretan, Bizkaian ezagutzen diran 1.637 koba zuloen adierazpenak laburtuta datoz. Inguru onetan ainbat dagoz:

Amoroto'n	11	
Markiña'n	15	
Gizaburu'n	19	
Nabarniz'en	21	
Ereño'n	24	
Aulesti'n	31	ezagutzen dira,

Ara, liburu orretan datozan lez, koba orreitako zeaztasunak:

Emen agertzen dan bakoitzaren zenbakia, esandako liburuan daukan zenbakia da.

14.—KOBABURU edo KOBAZULO

Olabarri baserria baiño goratxuago dago koba, baserritik 50 metro Ipar Sartaldera (N W) Sarrerak sei metro daukaz zabalean eta iru goira, gero zabalune bat eta ondoren 55 metrotako zear-zulo bat. Illunzar mendiaren Sorkaldeko magalean. 1971 urtean Euskal Espeleologi taldeak edesti aurreko gune bat billatu eban bertan.

---

65.—ATXABRIN

Lekeitio'tik Aulesti'rako bideko 46 kilometroan, Angiz aurrean asten dan bidetxior bat artu eta Olabarri eta Koba baserrien ingurura joaten da. Antxe dago koba ori, itxas neurritik 390 metrotara.

---

143.—ALPERDO I

Angizola baserritik laster dago, Aulesti'tik Lekeitio'rako bideko 46/47 kilometroen bitartean. Kilimona da, tartekako ur jarioa daukana, bere urak Lea ibaira jaurtiz. Oker-unedun igarotokia da. Neguan ur-zubi biurtzen da.

II Alperdo'gaz batzen da, ur-zubi bat bitarteko dala.

Luzeran 150 metro daukaz.

---

286.—LEZATE KOBIE

Aulesti'tik Lekeitio aldera kilometro bira aurkitzen da, bidetik iru-lau metro ezkerretara, Illuntzar'en Ipar-Egoaldeko (NE) mendi lepoan egiten da. 800 metro inguruko luzera dauka. Bertako urak Aulesti'ko ur-orniketarako erabilten dira.

---

294.—TXANTXANE

Illunzar mendiaren Ipar-Ekaldeko arpegian, eta 286 zenbakiaren gainean. 56 metroko sakona dauka.

---

295.—BELATXIKIA ZULOA

Bedartzandi mendian dago, Markiña'ra begirako alderdian, Aulesti'tik Markiña'ra duan bideko 46 eta 47 kilometroen artean.

---

769.—ZULUKA

Lekeitio'tik Aulesti'ra duan bideko 45/46 artean, Angiz auzoaren aurrean, errepidearen beste alderdian, eta Illuntzar'en Sorkalde aldeko magalean, Olabarri inguruan dagoan bidexka artu eta baserri onen inguruan dago, bertatik 50 metrotara. Sarreran 8 metro goi eta 5 zabal eta 24 metrotako luzera dauka.

---

770.—KOBÆDERRA

Aurrerakoaren antzera Olabarri baserri inguruan zabaltzen da, bertatik 500 metrotara, Egoalderar 3 metroko sarrera goruntz eta 0,90 zabal eta beruntz duan zear-bidez 18 metrotako gelara elduten da, eta bertatik kanporako argi zulo bat ikusten da.

---

772.—ALPERDO II

143 zenbakitik Iparraldera, 30 metrotara. Urteera lako bat da, eta amar metro baiño geiagorik ezin ikusi al izan da, ur-zubi bat dagolako barruan. Sarrerako ateak 0,30 goi eta metro bi zabal daukaz.

---

776.—GONOSTIE'KO LEZIE I

Lekeitio'tik Aulestj'rako bideko 45 eta 44 km. bitartean dagon Goierri'rako bidea artzen da. Eskumatara eta 500 metro ingurura, eta izen bereko piñadian zabaltzen da zuloa. (Gonzolai baserriko Basilio Bereziartua'k jakin eragiña).

---

777.—GONOSTIE'KO LEZIE II

Lengoaren alboan dago.

---

778.—GONOSTIE'KO LEZIE III

Aurrerakoagandik laster egiten da.

---

779.—GANTXU'KO KOBÆ

Lengoen urrean, Goiritik asi eta Gantxu mendira goazela, onen Ipar-Ekaideko magalean zabaltzen da. Zazpi metro goi daukaza sarrerak eta 3 zabal. Gela bik osotzen dabe, erdi-aldera

estutzen, eta bere ibilkera berantzakua da, 30 metrotako luzeran. Jakin-erazle berbera.

---

780.—ATXEIXE'KO KOB

Lengoen antzera Goierri auzoan asi eta Atxeixe mendi alde-ra jo. Onen Ego aldeko magalean dago koba au Akaiturri base-riaren alboan. (Adierazle berbera).

---

781.—TELLERIJE'KO KOB

Goierri auzotik Tellerije mendirantz jo eta Sorkaldeko maga-lean eta Zolva baserritik laster dago. Bertako sarrerak 1,50 zabal eta 0,50 goi daukaz. Bereala gela andi bat 10 x 10 metrotakua eta antxe amaitzen da.

---

797.—UNTZOZULO'KO KOB

143 zenbakitik 200 metro gorago. Elektra indarra dua mendi gora. Zutabe bi ta erdi igaro ondoren alanbradun orma bat igaro eta piñadi baten barruan dago. Kare-orma baten zabaldutakoa da. Sarrerak 0,60 goi eta 1,50 zabal daukaz eta zearbide batez zazpi metro inguru berantza daroan bidea dauka. (Jakín eragille, Alejandro Bollar, Angiz auzokoa).

---

798.—KARAKOSTA KOB

Angiz auzora eldu baiño ien, Lekeitio'tik Aulesti'rako 46 km. errepidetik eskuma aldera, arriola bat baiño len eta 10 metro bidearen gain egiten da. Sarrerako ateak 1,30 goi eta 1,30 zabal. Zearbide estu bakarra dauka eta 20 metrotara ur-zingira txiki bat dago. Illuntzar mendiaren Sorkaldean.

---

79a—BARBAIXOLASPIJE'KO KOB

143 zenbakitik Iparraldera, 700 metro ingurura, eta Lea ibaiaren beste aldean, aurrez aurre 798 zenbakia daukala. Sarre-rak 1.70 goi eta 3 metro zabal. Zazpi metroko zear-bidea. Bertan lau metroko zulo bat zabaltzen da.

---

800.—BEDARTZANDIJA LEZIA

Lekeitio'tik Aulestirako bideko 46-47 kman Koba baserrira daroan bidea artzen da. Bere inguruetan, zerbait gorago, Illuntzar mendian, Sorkalde aldera, zabaltzen da koba au.

---

801.—PAGOLARIJA LEZIA

Aurrekoagandik laster, Bedartzandi mendian.

---

802.—SAKONA LEZIA

Lengoagandik laster egiten da.

---

803.—ERENOZULO LEZIE

Lengo bien antzera, Koba baserri inguruan, Bedartzandi mendian.

---

838.—ARRIZABALAGA KOBIA

Aulesti'tik Markiña'ra duan bideko 48-49 kilometroen bitartean Artia baserria dago. Baserri onen inguruan eta Markiña'rako bideari jarraituaz, 500 metro ingurura, beste berezko ez dan koba bat dago. Aurrean, eta Arrizabalaga deitzen dan piñadiaren barruan dago koba au. Bedartzandi mendiaren Ego Sartaldean. (Jakin eragille, Artia baserriko jaubea).

---

1.277.—OLARIA'KO BERIJE'KO LEZIE

Goierrri auzoan. Muiño andi baten sakonean, Gontzolai baserriaren alboan, bertako ikastolatik laster.

---

1.278.—ERIÑO LEZA

Laprestia mendiaren magalean eta bizkar-arte andi baten dagon Zolua baserriari begira.

---

1.279.—KANPOLEZA

Bestearen goi-alde bardiñean, bañña Laprestia eta Atxerrija mendien artean, Zolua baserriari aurea emoten.



1.280.—ZI'LOZAR

Lengoek baiño gorago, Atxerrija eta Atzekoiturri mendien artean, et&. mendi bi oneik osotzen daben mendi lepoa baiño beeratxuago, Zolua baserriari aurrea emoten.

---

1.281.—TXORIZULO

Atzekoiturri mendiaren magalean, aurrekoa baiño beeratxuago, eta Eriñoleza eta Kanpolezaren goi-parean, Zolua baserriari begira.

1.282.—ATXORIJAKO LEZIE

Bedartzandiren egal baten eta Atzekoiturri mendiaren atzean. Koba au Zolua baserritik ikusten da.

---

1.283.—LEZANDIJA

Bedartzandiren iparraldeko magalean, eta Iturritze baserriaren gaiñean. (Azken jakingarriok Zolua baserrian bizi zanak 1970 urteko otsaillean emonak dira).

---

1.326.—ILLUNTZAR'KO LEZIE II

Illuntzar mendiaren Ego Sorkaldean; Bost metro goi eta metro bi zabal sarrerak. Zazpi metrotako sakona.



LEZATE  
KOBА



LEZATE KOBА



## ZIARROTZA ETA MURELAGA

Noiztik egozan Ziarrotzan abadeak?

X garren gizalditik?

Eleiza beintzat 968 urtean jaso zan lenengoa. Geroago anditu.

1386 urtean ba egoan ospital bat be Santiagorako bidean ebiltzanentzat.

1400 urtean Kalagorako gotzain batek euren arauak, erregelak barriztu ebazanean, lauren urte aurretik egozala ango abadeak, esaten da, eta eleiz-gizon orrei kanonigo deitura emoteko agindu eban.

Garai aretan Albiz'ko Peru zan bertako nagusi.

Baiña ordurako ba erabillezan asarreak ingurukoekaz. Zegaitik? Ba aldi aretan Eleizak zaindu nai eta beartuten ebazan amarren, asikin (primizi) eta bestelako artu-emonakaitik geien be. Bizi legea.

Esaten da aldi aretan sei kanonigo eta abade nagusi bat biziten zirala Kolejiata onetan.

Euren agintea ez zan Ziarrotza berbertan amaitzen. Inguruetan eukezan mendi eta kortaetan, belardi, larre edo "sel"etan etxe barriak jaso eta sortzean, bere jaubetasunpean euki nai izaten ebezan, eta lotuerak ez ziran izaten errentak, asikin eta amarren edo bestelako eskintzetan, bai eta sinismen-giroko egin-bearretan be. Orrela askotan, eleiz-hear eta parroki-artuemonetarako Ziarrotza berbera aukeratzera beartuten ebezan euren soloetan etxeak eukezanak, nai eta etxe orreik egozan erriak euren parrokia askoz urrerago eukj.

Orrela Amoroto, Axangiz, Berriatua, Gizaburuaga, Lekeitio, Lumo, Murelaga eta abarretako baserri batzuk, Ziarrotza'n bete bear izaten ebezan euren sinismeneko oitura eta loturak, orrek bere gain artu eragiten eban zama astunagaz. Ala kilometroak egin bear eleizkizunetarako, illetetarako eta fedeko agerkaietarako, aukera egokiagoak eukiarren errietako parrokiatan.

Jakiña, urteak urte, sinismena makaldu egiten da sarri; asierako esker ona, aztu; lotuerak astundu; emon-bearrak geroago ta zailago egin, bizia garratzu. Urte guztiak ez dira beti bardiñak izaten be... Eleiza berberak ezin beti urte batsuetako bereganako lotsa gorde.

Ortatik sortu ziran alde batetik baserriarren ezin elduak edo eltzeko gogorik ezak; bestetik eleiz buruak gero ta setatsuago egin bearrak euren lurretan jasotako baserriei eskintzak bete eragiten. Eta emaitzak, frutuak be ez dira beti bardiñak izaten, erantzun bearrak zaíntzeko.

Ortik asi ziran errentak ezin ordainduak; eldu ezin ziranei, edo erantzuten alper ziranei, bete-bearrak gogoratu erazteak, batzutan onez, bestetan lege-gizonei laguntza eskatuta, orrelako jokabideak sortzen eben lainoaldiekaz. Eta fedeko estuntzak be astun iruditzeak.

Edozetara be garai edo aldietako istori bat izan zan. Garratz edo gogor batzutan; beste batzutan kanonigoak eurak giro aretako eleiz-erakundeak onetara beartuta.

Or geratu ziran orduko kontuak, istorirako. Batsuk, gure denporetan, ulertu eziñak. Dana dala, Ziarrotza'ko kontuak ondo datoz gure etheen antxiñatasunaren barri jakiteko. Zeaztu daiguzan, azaletik eta labur, kontu batzuk.

Ala, 1398 urterako Akaiturri etxeak ba eukan zer ikusia Ziarrotzagaz.

1408 urtean Angiz'eko Olabarria'k.

1409 urtean Narea'ko Uribarren eta Malax'eko Urizar etxeak.

1411 urtean Malax-Beitia eta beste batzuk.

Edozetara be Ziarrotza'gaz urteen urteetan zer ikusia euki eben emengo etxeak izentatu giñeiz:

Akaiturri.

Albinagorta, batzutan Ardinagorta irakurten da.

Aziro'ko iedanía.

Garaur Bar r enengoa.

Goikoetxe-barn.

lbatao.

Iturriza.

Koba.

Kortabitarte.

Lauzirika.

Malax Beitia.

Narea Etxebarria.

Olabarria.

Ururdegi edo Irurdegi.

Uriarte.

Urizar.

Urtikiz.

Usakiola.

Zubero.

Ziarrotza'ri errentatzakoa garitan ordaintzen eutsen etxeak, bes-teen artean oneik ziran:

Akaiturri	Lau imiña urtean.
Koba	Anega bi ta erdj.
Kortabitarte	Anega bi ta erdi.
Irurdegi	Iru anega ta laurden.
Iturriza	Iru anega ta laurden.
Narea Etxebarri	Anega bi ta erdi.
Olabarria	Amabost imiña.
Olariaga	Berrogei ta bi imiña.
Uriarte Zubero	Anega bi ta erdj.
Uriarte Marijena	Anega bi ta erdi.
Uribarren	Anega bi ta erdi.
Urizar	Anega bi.

Zeaztasun geiagorako, nai ta urteetan zear daturen bat galdu edo itxi, eta labur-labur, agerbide batzuk emongo doguz.

1398 urtean, Ziarrotza'ko Kolejiatak eukazan belardi, korta edo "sel"en zerrendan, izen oneik agertzen dira: Akeiturri, Barbariola, Olabarria, Angiz, Usakiola.

1408 urtean, Martin Berriatua'gaz ituna, konponketa, Angiz'ko Olabarria'ko "sera bizi guztirako emoten. Urteroko errenta: Durango'ko neurriko iru anega gari on eta garbi, Abustu-ko Andra Mari egunean eroateko.

1409 Narea'ko Uribarren etxeagaz konponketa, 200 sagar-ondo erdiz-banan eukiteko euren lurretan.

Urte berean Malax'eko Urizar etxeagaz kontratua, 300 sagar-ondo erdiz banan eukitekotan.

1411 Malax'eko Beitia etxeari sagar-ondoak erdiz banan emoten. Eta bide batez Malax'eko Arteaga etxeari, oneri be sagarrak erdiz banan zaintzearren lengo alokatzea ziurtatzen. Aldi aretan "Peru Martinez de Malax" zan an bizi zana eta "Per ezagutzen zan.

1411 Narea'ko baserri biekaz ituna, euren errenta ordez, 360 sagar-ondo erdiz banan eukitekotan.

1500 Murelaga'ko Ardinagorta etxean bizi zanagaz, ordurarte euken erdiz-banako sagar tratua aldatzen, "enfiteusi" erako lotu-raz garia emotera beartuz.

1549 Kortabitarte etxeagazko auzia. Erabagi zan etxe au Ziarrotza'ko parroikoa zala eta bertakoak euren aitaren illetako eskubideak Ziarrotza'n ordaindu bear ebezala.

1552 Malax'eko Urizar baserriko jaube zan Pedro Orma'gaz tratua, sagarrekaz eginda euken itunaren ordez, anega bi garitan ordaintzeko.

1552 Malax Beitia'ko jaube ziranekaz tratua aldatzen, antxi euken 200 sagar-ondoan erdi irabazjaren ordez, urtero Andra Mari egunean, iru anega ta erdi gari emoteko.

Emendik urteetara, 1608 urtean, etxe onetakoak eta kanonigoak auzitan ebiltzan eta Korrexidoreak beartu egin zitun zor ebazan sei anega gari ordaintzera.

1568 Urizar etxeokkaz tratua, ordurarte euken 150 sagar-ondoan erdiz-banako ordez, urtean anega bi gari emotekor

Emendik urteetara, 1609'n, auzia euki eben ordaintzen ez ebelaKo.

1574 Ziarrotza'ko kanonigoak Bolibar, Murelaga eta Nabar jakin eragin eutsen Ziarrotza'ko parro+kiko ziran euretako bizilagun batzuk ez zirala joan Paskukoaz betetera eta ez izteko euren eleizetan sartzen.

1603 Murelaga'ko Ibatao etxearen aurkako zentzu bat, Kolejiatan egiten ziran urteurrenen ordez zor eukezan 50 dukaten aurrerapenari erantzuteko, urteko euneko bi ta erdiko interesagaz.

1603 Zubero baserriko Pedro Uriarte'ren adierazpena, autortzen iru anega gari zorretan eukazala Ziarrotza'ri. Atzerape-naren ordez 204 errial ordaintzera gertu zan.

1608 Zubero'ko Martin eta Pedro'ren aurkako auzia, urteko lau anega gari zorretan eukazala ta eskatzen. Urrengo urtean eskabide ori legez bete eragiteko a<sup>9</sup>indua emon zan.

1608 Murelaga, Nabarniz eta Ereñotarren aurkako auzia Kolejiatako txarriei ez eutselako itxi nai, indarrez (a mano arma-da, esaten da) Usakiola'ko artadian bazkatzen, jana billatzen.

1608 Iturriza'ko jaube ziran Juan eta Katalin'en aurkako auzia, zorretan eukezan urtetako Durango'ko neurriko lau anega gari eskatzen. Etxe au 1462 urtean egiña zan.

1608 Argibidea, ziurtatzen Albinagorta, Iurudegi, Iturriza, Kor-tabitarte, Lauzirika, Malax Beitia, Olabarria, Olariaga eta Malax'eko Urizar biak eta Zubero'ko etxe biak, no;ztik ez ekiela, Ziarrotza'ri euren frutuen lenenak (primiziak) emotera beartuta egozala.

1610 Albinagorta, Akaiturri, Iurudegi, Iturriza, Malax-Beitia, Olariaga, Urizar, Zubero'ko Ur;arte'ren aurkako sententzia, euren frutuen lenengoak (primiziak) Kolejiata'ri emotera beartuten.

1610 Kalagorri'ko gotzaiñak Murelaga'ko abadiiei agindu eutsen, ez bear eta bat-bateko gaixoctan, Sakramentuak eurak emoteko, nai eta euren parrokitarrak barik, Ziarrotza'ko parrokiko izan.

1610 Malax Beitia'ko jaube ziran Juan eta Martin eta onen emazte zan Kataliñeri gogoratu eragiten jai egunetako meza eta ofrendak eta paskukoa egitera, Ziarrotza'ra joateko bearkuna eukela. Bai eta beartuta egozala Juan'en emaztearen onrak an egitera. Eta orrela egin ezik eleizatik exkomulgatuak geldituko ziralak. Naste eta iztilluak egon ziran bitartean, eta azkenean Mar-tin eta Kataliñeri parkatu eutsen, agindua bete ebelako, baiña epaikari berberak, urte bi geroagoko erabagi baten, eleizatik kan-pora itxi eban Juan, agindua bete ez ebalako.

1616 Ziarrotza'ko Kanonigo eta Murelaga eta Berriatua'ko abadien arteko auzia, azken erri bi oneitako abadeak Kolejiatari egokiozan amarren eta asikinekaz geratzen asi ziralako. Euren aitzakia au zan: baserri batzutakoei sakramentuak eroatera bear-tu egiten ebezala, nai ta Ziarrotza'ko parrokikoak izan, Kalagorri-ko gotzainen aginduak beteaz, eta orretarako eurak be gastua egin bear izaten ebela parrokian. Urteak igaro ziran auzi onetan.


1729 Narea'ko Etxebarri'ko Prantziskogaz ituna. Usakiola'ko

artadiko orri, ezkur eta abarrak batzearren, urtero, sei urtetan, iru kuarta gari emon bear Ziarrotza'ri.

Beste agiri bat, esaten, egon ziran kalteakaitik tratu ori etenda geratzen zala, baiña beartuta geratzen zan 48 aritz eta 40 arta landare sartzera.

1742 Ziarrotza'ko kanonigoak itun bat egin eben Murelaga'ko abadeekaz. Emengoak izanarren ango parroikiko ziran baserrietakoei eleizakoak eroatearen orde, 12 dukat ordaintzera gertu ziran.

1764 Olariaga baserriko jaun zan Juan Alzaga'k, zorrak ordaindu al izateko, saldu nai izan eban baserria, zordunen artean, baiña Ziarrotza'ko kanonigoak orren aurka jagi ziran, eta zin (juramentu) eragin eutsen, etxea euren belardjan jasoa izan zala.





1764 Juan Uriarte, Murelaga'koak, bere baserria Mutriku'ko augustindar monjarei saltzera eiola jakin eragin ebanean, Ziarrotza'ko Kanonigoak ez eutsen itxi nai, erostzalleak berba emoten ez ba eban sepulturako ofrendak Ziarrotzan egiten jarraituko ebela.

1764 Garaur-Barrenengoa'koak 100 dukateko zentzoa izenpetu eben etxearen aurka.

1768 Olariaga etxekoak 100 dukaten zentzoa, Ziarrotzakoen mesedean.

1776 Epaikarien agiria jakin eragiten Kortabitarte baserriak, azpalditik, urtero ordaindu bear ebazan 30 imiña gari zorretan eukazala, eta orrez gain, Albinagorta, iturriza, Olariaga eta Olabarría eta beste batzuekaz batera, Ziarrotza'ri amarrenak eta asikiñak eroatera beartuta egoala.

Agiri onetan esaten da Kortabitartek lurretan 49.329 "estadu" eukazala.

1779 Ziarrotza'ko kanonigoak F. eta Juan Iturraran eta Arteaga'ko J. Urizar'eri 5.500 errialetan trukatu eutsen Murelaga'tik artu bear ebezan amarren eta asikiñak

1782 Ziarrotza'ko kanonigoak eurena zan Urtikiz mendiko plano bat agertu eben. Planu au J. Gabiola'k egin eban, kanonigoak eta Murelaga'ko alkatea beragaz bat etozala.

1785 Kortabitarte bekua, Kortabitarte erdikua eta Goikoetxebarria, irurak Ziarrotza'ko kanonigoen "sel" ean jasoak, 88.805 errialetan saldu ziran. Eroslea lotu zan baserri orreik Kolejiata'ri ordaintzen eutsezan urteko anega bi ta erdi gari ordaintzera.

**Oarra:** *Jakingarri oneik liburu oneitatik atara dira:*

*"La Colegiata de Santa Maria de Cenarruza 1353-1515".*

*Jabier Enríquez eta Maria Jose Sarrigui'k idatzia, eta*

*"Indice General del Archivo de la Colegiata de Santa Maria de Cenarruza", Juan Jose Mugartegui'rena.*

# MURELAGA ETA MORTARA'KO MARKESA

Murelaga'n ez zan bakarrik Ziarrotza'ko Kolejiata baserritarren gain ze-;kus;ak eukazana eta lotuerak ipinten ebazana. Or egoan baita inguruko baso ta mendien jaube, batzutan Kondea, bestean Markesa bat be.

Azken gizaldian Mortara'ko Markesa zan errenta batzailea eta 1810 urteko zerrendetatik dakigu zeintzuk baserri eta zenbat gari ordaindu bear eutsen.

Ara:

Albinagorta	5 anega gari urteko.
Artetxea	Anega erdi.
Auzokua, Urriola	Anega erdi.
Bengoetxe	(miña batr
Beñe Beña	20 imiña,
Garetxana	4 anega ta erdi.
Gojeaskoetxea	20 imiña.
Ibarrola andikoa	4 anega ta erdj.
Itza	7 anega eta iru laurden.
Malax-Etxebarria	"Enfiteusia".
Soloaga	15 imiña.
Telleria	4 anega ta erdi.
Urriola andikua	Anega erdi.
Urriola Beitja	Anega erdi.
Zearra	Anega erdi.
Zetokiz Gojeaskoa	3 anega ta laurden.

# ALDIAN ALDIKO GIZONAK

## Aulestia eta Mendiritxaga, Juan (bañez

Murelagatarra. Itxasoetako jenerala eta ontzi andietako kapitana. Karamani turkiar itxas lapurraren itxasontzia baitu ebanetako bat izan zan 1540 urtean, eta bere adiskide zan B. Mendoza jeneralagaz Lepanto'ko gudaketan egitekorik geientsuenak egiña.

(Fitxa au "La Gran Enciclopedia Vasca" IV tomoko 49 orrialdean irakurten da) eta Delmas'en "Biografía de Claros Varones de Vizcaya"koa da.

(Iturriza eta Labayru istorigilleak bardintsu esaten dabe beragaiti k).

Fitxa orren ondoren, beste au dator:

**Juan de Mendiritxaga.** Delmas'ek diño Busturiko Axpekoa zala, baiña Aulestia etxeari lotua da.

Ekintza ugari aitatzen dira bereak.

1521 urtean Ondarribian ezagutzen da, beste ainbat bizkaitarrekaz euren itxasontziekaz bertara joanda, inguratuta egozan angoei laguntzera eta Beobia'ko gaztelua askatzea lortu eben.

Gero Napoles, Malta, Tripoli eta abarretan, turkoen eta moroen aurka ibili zan.

Barbarroja ospetsuaren aurka be ibili zan.

1534 urtean etxera etorri eta Aulestia etxeko alaba zan Maiora'gaz ezkondu zan. Neska au zan Aulestia etxeko ondorengo bakarra. Ezkontza onetatik iru alaba euki ebazan: Ana, Juana eta Maria.

Ana ondarrutar bategaz ezkondu zan 1557 urtean. Ondarrutarra itxas kapitana zan, Pedro Apallua deiturakoa, eta euron semeak len euken Apallua abizena itxi eben eta Aulestia artu, Aulestia abizen ospetsuari jarraipena emoteko.

Geroago, 1537 urtean, Enperadoreak deituta, barriro itxas bidea artu eban, eta ainbat tokitan ibili ondoren turkiarren aurka gudatu eban 1540 urtean. An zaurituta geratuta zan eta iltzakotzat euki eben.

An ebillala Garzia Kareaga baten iltzailletzat artu eben eta Bizkai'ko Korrexidorearen auzitegian eriotzara zigortu eben. Mendiritxaga'k bera kanpoan ebillala egindako auzo ori salatu eban eta burua garbitzen lortu. Enperadoreak bere etenbako eskintza eskartzeko, Alkantara militar ordenako jantzia erabilteko duintasuna emon eutsan.

Mendiritxaga au Sevilla'n il zan 1555 urtean eta bere gorpuzkiñak Murelaga'ra ekarri ebezan eta Aulestia torreak parrokian daukan illobian sartu, illobi gainean Alkantara ordenakuak oi daberen gurutze berdedun pañua ipiniatz.

Orduko parroko batek kendu egin eban sepulturako pañu ori, baiña Aulestia etxeakoak erregearengana jo ta bariro ipintea lortu eben. Il eta 68 urte geroago zan bariztatze ori. Egitada orrek erakusten dau eleiza eta Aulestia etxearen artean artu-emonak ez zirala beti adiskidetasunez zaindu.

## **AULESTIA eta MENDIRITXAGA... bí ala bat ete ziran?**

*Orrela agertzen dan fitxa au pertsona bat ala birena ete da?*

*Egon ete zan Juan Ibañez de Aulestia eta Mendiritxaga au, edo ta ez ete zan izan Juan Mendiritxaga berbera, Busturia'ko Axpe'n jaiio eta gero Aulesti'ko torrera ezkondu zana?*

*Ziurrena ala dirudi.*

*Eta gaur, istorian doktorrak diran batzuk ala uste dabe.*

*Juan J. Mugartegi'k, 1927 urtean RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkarian, "Un vizcaino ilustre - El Capitan Don Juan de Mendiarechaga" izenagaz agertu eban lanean, Mendiaretxaga onegaitik diño "señor consorte de Aulestia" izan zala, Aulestia etxe eta torreko Mayora neskatillagaz ezkondu zalako. Neska au, alaba au zan, mutillik ez egoalako, etxeako oiñordekoa, jaubegeia, eta onen bitartez eta origaitik lortu eban Murelaga'ko Doniane parrokian Aulestiatarren illobian bere gorpua sartu eta gordeteko eskubidea be.*

*Emen ikusten dana au da; Mendiritxaga kapitana, norbaitek bere amagiñarrebagaz "ezkondu" ebala eta ortik sortu idazleen arteko geroagoko nasteak. Eta akats ori agertzen da oraintsu agertu izan dan monografiaren baten be.*

*Mendiritxaga au, Mugartegi'k bere lanean esaten dauan lez, Juan Mendiritxaga, Mendiritxaga, Otxoa eta busturia zan. Kapitan berberak ez ei eban sekula Ibañez aitaren izenetiko edo patronimikurik erabili bere abizenen artean.*

*1534 urtean ezkondu zan Mayora Aulestia'gaz. Au Otxoa L. de Aulestia eta Elvira Saenz Mezeta'ren alaba zan eta azken naian, testamentuan, kapitanaren emaztea itxi eben oiñordeko bakar eta orokortzat Eta origaitik aldatu zan Mendiritxaga Aulesti'ko torrea bizitzera, bertako jaun biurtuaz, emazteari esker.*

*Ori da, gaur, bata eta bestearen fitxa eta bizitza eta ibillerak aztertuta, eta batez be Mugartegi markinar istori idazlearen lanetatik ataraten dana.*

## Aulestia, Franzisko

1685 urtean "Antigüedades de la Casa de Aulestia" idatzi eban. Orretarako Mezeta etxea eta Murelaga'ko Kartularioan oiñarritu zan. Iñiguez Ibargüen'en esanetan, erri onetako sute baten galdu ziran paper jakingarri oneik.

Kontuan euki Aulestia izena Murelaga eleizako auzo baten izena dala bakarrik, eta bertan dagola oraindik, nai eta beratuta eta egoera larrian, izen bereko torrea. Torre au antxiñako Andramendi etxekoa zan, eta bertako jaubea, Santxo Odia Aulestia, 1053 urtean Bizkai'ko gizon aberatz lez, beste batzuekaz batean, eskritura batzutako lekuko eta ziurtatzaille izan zan.

Aulestia torrea Bizkaiko Anaidiak erre eban 1451 urtean, jauntxoak asarrerik bizienean ebiltzanean, bertan batzen ziralako gaizkile eta zaindute egozan gizon batzuk, baiña urte batzuk geroago Pedro Ibañez Aulestia'k barriztu eban. Mingarri da Franzisko onek idatzi eban lana argitaratua ez izatea, ziurretik etxe onetako jakingarri ugari eta baliotsuak esango ziralako bertan, Bizkai'ko istorirako jakingarri izango ziranak.

(Delmas'en "Claros Varones de Vizcaya'tik ataratako fitxa).

## Basabe, Martin

Delmas'ek "natural de Amoroto y su barrio de Aulestia" diño. Beste batzuk sortzez eta bizitzaz aulestiarra zala, jatorriz Basabe oiñetxekoa. Tallagille eta arkitektu zala irakurten da. Pizkunde (Renacimiento) aldiko ertilaria, artista.

Jakiña da Bilbao'ko San Anton eleizako aldera egin ebala, bai eta Xemein'go parrokiko sagraioa be, eta Bilbao'ko Santiago'n, eta uri aretako Jon deunetarako be Bakardadeko Amaren irudia egin ebala, eta Aulesti'ko sagraioa be baj. Gipuzkoa'ko Getaria'ko Salvatore parrokian be bere eskua igarten da, eta Mungia'ko san Pedro'n.

Mungia'koari buruz au dakigu: 1587 urtean, Irañlla'ren 17'an, eskitura bat egin zan parrokiko aldarea egiteko, erriko arduradunak batetik eta Martin Basabe eta Ibaiguren bilbotarra bestetik.

Itxuraz urte bete aurrerago egin zan beste batzar baten zeaztu ziran neurriak, apañdurak eta egituraren baldintzak, bai ontasunari buruz, bai eta ordaintLeari buruz. Berreun dukat aurreratu eutsezan egurrak aukeratu, ebagi eta gertuteko. Baiña aurkako batzuk agertu ziran eta leiaketa egin bearra egon zan. Leiaketa au Mungja'ko illerrian egin zan eta Basabe geratu zan milla ta lauren dukatetan (lendik artutako berreunak barruan ziral) egitekotan. Eta eskitura barrja egin zan zeaztasunak emonaz. Aldareak 36 oin luze eukiko ezabala eta 24 zabal, nai ta orretarako zerbait luzatu bear aldararentzat gertuta egoan lekua. Iru-diak ez ziran tratuan sartzen, ez eta aldareari eusteko bearko ziran burdin, ultze, andamiño, berun eta abarrik.

M. Basabe'ri iru urterako etxea emon eutsen, errjaren kontura. Erretaulagaz batera 7 jarrileku egin bear ziran bere be aldean, bakoitzak atzean medalloi bat eroiala.

Baldintzetan esaten zan San Pedro'ren irudia ipinteko zazpi oineko lekua egin bear zala, eta bere ganean beste leku eder bat Andra Mariarentzako. Zutabeak joniko erakoak bear ziral, txapitela ere berekoa, ondo taillatua.

Egilleak beartuta geratzen ziran erabilten eben egurra garbi eta ona erabiltera, gero oker-unerik ez agertzeko, orrelakorik gertatu ezkeru euren gajñ geratzen zalako zuzendu bearrar Orretarako, tratuko irure in dukat gorde egingo ziran denporaldi baten, ikusi arte.

Erretaula urrez apaindu ebana Juan Zuazo izan zan. Lau urte igaro eban orretan eta ia aldarea egitea baiño geiago kostatu zan.

(Juan Gutierrez Bilbao'ren "Historia de Munguía" 1933 liburutik ataratako goraberak).

Zoritzarrez Mungia'ko parroikiko aldare ori 1936-37'ko gerratean galdu zan.

Martin Basabe au, geroago, Xemein'en ikusten da, ango parroikiko aldare nagusiko sagraioa egiten.

Juan J. Mugartegi'k, bere "La Villa de Marquina" liburuan diño, 1601 urtean egin ebala Basabe'k eta Penagos bilbotar margolariak urretu ebala, eta guztia 14.960 marabedi kostatu zala.

Aulestja'ko parroikiko sagraioa 1603 urtean egin eban eta urte bete geroago ordaindu eutsen.

Getaria'ko Salvatore parroikia 1420 ordurako egiña izanaren, Martin Basabe izan zan erretaula egin ebana 1603-1605 urteen bitartean, eta 21.411 dukat kostatu zara. Iru zatiko zan, goian erremate bat eroiala eta Kristo'ren Nekaldia iruditzen eban ozka-txiki (bajo-relieveak) eukazan.

Francisco Cerezo'k bere "Guetaria" liburuan diño 1836 urteko sutean erreta geratu zala.

Bilbo'n, 1590 agiri baten irakurten danez, Eguen santu eguneko ibildeunean erabilteko Bakardadeko Amaren irudia egitera beartu zan.

Ba dakigu 1593 urtean bera eta Juan Uribarri orduñarra ibili zirala aldara nagusiko irudiak egiten. Aldare au ez zan izan San Anton'en egin zan lenena, bigarrena baiño. Urte orretan Mendieta elorriotar margolari ospetsua beragaz ibili zan eta au izan alda-rea urreztu ebana.

Ba dirudi Santiago'ko eleizan be ibili zana, baiña ango tailla lanik geienak Guiot de Beaugrant, sortzen flamenkoak egiñak dira.

## **Soloaga, Antonio**

1664 urtean emen jaio eta Lima'n il zan 1721 urtean. Errege Kapillako **onorezko kapilladua izan zan Madrid'en**; Cobarrubias'ko mitradun abata, Ceuta'ko gotzain eta Lima'ko (Peru) gongotzain, artxobispo 1711 urtean. Gizon argi entzutea eukan eta 20 urtetan Peru'n bizi ondoren, an bertan il zan, berta-koen atsekabez. Bere agintepean ainbat errj-lan egin ziran.

Iturriza'k bere "Historia General de Vizcaya"n diño, 1711'n artzobispo izentatu ebanean, Murelaga'ra karta samur bat idatzi ebala eta berak emengo artxiboko paperen artean irakurri ebala.

## **Onaindia ta Meabeansorena'tar Juan Iñazio (1854-1932?)**

Murelaga'n jaio zan, "Ibakatx" baserrian, 1854'ko jorraillaren 22'an. Juan Bautista ta Josefa, bere gurasoak, eta Iñazio, amaren alderdiko aitaita, irurak, Murelaga'koak ziran; amaren alderdiko amama, Aldekozea'tar Ana Maria, ostera, Nabarniz'koa eta aitaren alderdiko aitaita-amamak, Onaindia'tar Jose ta Ugarteburu'tar Frantzizka, Xemein eta Etxebarria'koak.

Bizibidez errotaria zan-eta, astean iru bidar Nabarniz'era joaten zan arto ta gari garautan, bere etxeko errotan uruna egiteko. Zorroak ekarteko, mando batez eta "Malen" izeneko baserriko astoaz baliatzen zan.

"Solua" (Goierrri) baserriko Astorkia'tar Frantzizka'gaz ezkondu zan eta lau seme-alaba izan zituen: Emilia, Eusebio, Sabina ta Eujenio. Bigarrenari, Eusebio'ri, pasadixu polit bat gertatu jakon: Bere soldaduzka egiten egoan Serantes'en eta baimenez etxera etorri zan. Andik egun batzuetara aitak Nabarniz'era bialdu eban karrio-abereakaz eta, bidez joiala, Markiña'ruzko bidea artzen dan bide-kurutzean, defuntu bati laguntzen etorren eta illaren alde "Aita-gure" bat erresateko geratuta egoan lagun taldeagaz topo egin eban. Alan be, Eusebio'k, geratu barik, aurrera egin eban bere abereakaz; etxerakoan arrituta geratu zan, euren senide zan, erriko abadeak salatu egin ebala jakitean gorpuaren aurrean txapelik erantzi ez ebalako.

Juan Iñazio'k ez eban euki beste biderik auzi-epaillearen aurrera aurkeztea baiño, bere semearen alde egiteko edo, gitxienez beintzat, bere jokabidea zelan edo alan zuritzeko, baiña lenengo, "Pantxike" bere emazteak, adore apur bat euki egian, ardaotan xigortutako ogi-zati platerkada bat garbituta (janda) gero.

Gorpuzkera indartsuko gizona zan; palankari lez, nekez onduteko markak egin zituan: "Mallabja ta Ibakatx ospetsuen aldietatik, palankari oneik egindako eta iñok ondu bako morkak egozan Markiña'n. Ori dala-ta, uri onetako Udaletxeak eun pesetako sari bat aginduta eukan palankari arein markak, palanka bariñakaz, onduten zituanarentzat".

Joan dan gizaldiaren azkenetan, aundia ei-zan palanka jokorako zaletasuna, bai ta errien arteko leiaketa be, bakoitzak bere palankariak defenditzenr

Aldi aretakoek goratzen dabe, markiña'n (ez bataren ez bestearen aldeko agertzen ez zan leku lez) izan zan desapioa, Murelaga'ko "Ibakatx" eta Berriatua'ko "Eiguren"en artean, arro-



ba (12,5 kg.) bateko palankeaz. Epailleek Berriatua'koaren alde emon eben euren ebatzia, baiña Murelaga'goek, leiaketan izan ziran gora-beerakaitik eta epaileen azken ebatzia'gaitik minduta, beste ordain-aukera bat eskatu eben eta andik egun batzuetara, barriro aurkeztu ziran Markiña'n, baiña kontrato leiakidea ez zan azaldu.

Beste bein, Munitibar'en ain zuzen be, gure "Ibakatx"ek Mendata'ko palankari bategaz neurtu zituan bere indar eta trebetasuna. Leiaketa onek ikusmin aundia sortu eban zaleen artean eta "Ibakatx"en arreba Eusebia be leiaketa au ikustera joan zan, baita Joan Iñazio'ren urrezko ontza bat jokatu be. Epailleen ebatzia neba-arreba bion alde izan zan oraingoa.

Beste alde batetik, ba-eukan bere bertsolari (1) etorria be eta irrintzilari egokia ei-zan. 1888'an, Gernika'n ospatu ziran Euskal-Jaietan, "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" deritxonak dirauskunez (2), "bertsolari saioa Asteazu'koko Pello Errota'k irabazi eban. Onez gaiñera ona emen parte artu eben beste bertsolari batzuk be: Onaindia'tar Iñazio "Ibakatx", Aulestia'koa; Ormaetxea'tar Jose, Ajangiz'koa; ibarzabal'dar Juan Pedro, Markiña'koa; Zelaia'tar Pedro eta Arbaiza'tar Manuel, Otxandio'koak" (3).

Politika arazoetan be sartu zan, ain zuzen be, zortzi urtez bere erriko Alkate izan zan: 1923'tik 1930'arte. Aurrerago uripaille be izan zan.

Aalegiñak egiñarren ezin izan dogu zuzendu bere eriotz eguna (4). 1932'ko iraillaren 16'an izan ete-zalakoan gagoz.

---

(1) Emen jartzen diran bertsoak berak egiñak eta errotako arratoiei eskiñiak izan ziran:

*Neronek ikusia  
nere galtzak jazten.  
arriak tirauta be  
ez zan ikaratzen,  
katuaren tamaiña  
handiagoa bait zen,  
barkuren batetik edo  
nonbait agertu zen,  
berton jaio denik  
ez zait iruditzen.*

(2) "Literatura I" —Añamendi— 534 orrialdean.

(3) Bakotxari berea, Ibarzabal'dar Juan Pedro "Peru", Etxebarria'koa zan.

(5) Guzurre dirudi, baiña Aulesti'ko San Juan Bateatzaillearen elizako lldakoen Liburuan ez fa agiri bere eritoz-agiria.

(Kontakizun au "Markiña'ko Euskal Jaiak" liburuan agertzen da. Egillea: M. A. Bilbao).

---

## **II - PARROKi GIROAN**

---



**AULESTIKO ELEIZA**

# PARROKIA

Maria Asunción Arrazola'k bere "El Renacimiento en Guipuzcoa" liburuan, euskal elizetaz berba egitean diño, euskal asmamenak alako laztasun eta erstada sartu eta emon eutsala XVI garren gizaldiko arteari.

Flamenkar eta mudejar maisuen doteratasun eta apaintasun bereziari, euskaldunak beste aldetik euren erakutsia alboratzen eutsela egitura on, indartsu eta ondo egiñaren anditasunean aleginduz, eta batez be lekuaren aukera billatzen ebela.

Orrela euskal eleizen arrizko egitura, eleiztarrentzako lekua atara eta lortzearen alde agertzen ba zan be, ez zan leku ori argitsua, italiar eleizetan igarten dan antzera.

Euskal eleizetan leioak ez dira zabalez andi, bear ba da emengo otza eta bustitasunetik babestu al izateko.

Goi eta zutabeen egitura lodia da, sendoa da, larregia dala iruditzeko eran.

Eta idazle berberak esaten dau XV garren gizalditik XVII garrenera Peninsula guztian euskal langille argiñak ezagutzen dirala maisu bakar baten alboan pillatuta, aren agindupean lanean, beste tekniku gaitu askoren trebetasunez katedral, parroki eta bestelako eleizak egiten, eta euretan arte berezi baten ezaugarria lagaten.

Ez ete da Aulesti'ko Parroki onetan ori berbera gertatzen?

Lenengo parrokia, jakiña da, Murelaga'ko Yon-done buru-moztuaren ermita izan zala, erriak "Murla"ko lez ezagutzen dauana.

Oraingoa, Aulestikoa, 1528 urtean egiten asi eta 1640 bitartean egin zala irakurten da.

Ba dakigu bertako sepulturak 1583 urtean egin eta banatu zirala.

Ba dakigu, baita, 1603 urtean egin ebala bertako jauretxola (tabernakuloa) aulestiar taillugille ospetsu eta ezaguna zan Martin Basabe' k.

Jakiña da, baita, 1640 urtean aldatu zala Murla'ko parroki zarretik oraingo barrira an egoan bateotarako ur-bedeinkatu ontzia, bateotako ponte, eta baita Oteundegia, Sagrarioa be.

Orduan asi ete zan eleiz barri au parroki lez, parrokietakoz zeregiñak beteten, edo ta ordez, lengo parroki zarrak orduan itxi ete eutsan parroki-zeregiñak beteteari?

Labayru istori-idazleak 1640 urteari buruz esaten dauana, au da, Murelagatar bizi-lagunak alkartuta, danen on-ikusi ezagutu ondoren, urte orretan aldatu zala Aulesti'ko erdi aldera ango Yondone Bateotzailearen parrokia, zelako esan gureaz artu bear ete da?

Bear ba da, beste barria urteak aurrez zabalduarren, arek oraindik parroki lez jarraituko ehan. Orrelako gertaerak ezagutu izan dira geiagotan. Bat esateko, Ondarroa'n parroki barria zabaldu eta beste ia eun urtetan be, Antigua'ko parrokoa izentatzen zan eta egiten ziran an bateatze eta beste zeregin batzuk.

Beintzat Aulesti'ko parrokiako liburuak 1576 urtean asten dira jaiotzekaz. Illenak 1634 urtean. Beti be "Murla"ko parrokia aldatu aurretik.

Oraingo parrokiak 136 oin daukaz luze eta 71 zabal.

Oiz'ko are-arrjagaz egindako 6 zutabe lodi bobedei eusteko. Iru alderdi, zatikoa, da.

Sei aldera.

Arrizko torre zabala, eleiz aurea artzen, lodi eta sendoa.

Bost kanpai.

Oneitako bat BeIen kanpaia deitzen da. 1626 urtean, Uztaila'ren 28'an, Kalagorri'ko obispoaren baimenaz beste fraile goztain batek bedeinkatua.

Jakiña da kanpai au trumoi eta ekaitzetan jotzen zala, konju-roak egitean.

Ba eukan beste zeregin bat be: Andre bat erdibitzeko egoan uretan jotzen zan, une larri orreik igaroten, eta etorrena osasunez etortea eskatzen, erriak otoitz egian.

Bear ba da oitura orrek salatu egiten dau denpora bateko ume-jaiotzetako arrisku eta eriotz kezka.

## **Abadeak eta patroiak**

Aldi baten parroki onetan lau abade egoten ziran eskubide osoko eta beste bi eskubide erdiko (benefizjadu erdiko) eta sakristau bat beste abade baten ordez.

Eleizako patroitza Butron eta Muxika etxe jaunaren ardurako zan, eta etxe orretako maiorazguaren arduretan egoten zan zati andi baten bertako patroitza eta Aulestia torreko jaunaren arduretan beste bat.

Patroitzak amarrenak artzeko eskubidea emoten eutsen, au da lurreko irabazien amargarrena, eta orde z eurak parroikiko premiñak bete eta abadeei ogibidea ziurtatuaz.

Abadeak aukeratzeko eskubidea eurengan egoten zan, nai ta azken izentapena gotzaiñak egin.

Denporetan igarten da "patroiak" eskubideen zale eta eusle izaten ba ziran be, bear-izanak beteten esku estu eta zeken agertzen zirala. Ortik sortzen ziran etenbako nasteak eta asarreak patroik eta eleiz gizonen artean batzutan, eta eleiztarren artean bestetan. Batetik bear-izanik bete ez, eta bestetik arrokerizko eta bereizkuntzako jarleku, illobi eta abar parroikian besteen aurrekotasunez zaindu nai.

Orrelako egoerari buruzko agiri jakingarri bat Labayru'k agertzen dau bere Historia'ko 48 zenbakidun monografian.

Diño, 1723 urtean, Kalagorri'ko obispoa eldu zala. Eta oi dan ikusaidia egin ondoren, parroikiko bear izan eta premiñen artean, jantzi, edontzi, leiar eta abarren utsunea igarri ebala eta bere agintez agindu bat emon: Parrokiak dirurik ez eukala eta orde z zorrak bai, eta premiñazko ziran jantzi eta tresnen barriztatzea eta orretazko utsunak betetzea, parrokitik amarrenak jasoten ebenak euren gain artu bear ebela.

Sagrario barru bat egin eta urreztuteko, agindu eban; kalizak, barrutik, eta patenak be urreztuteko; iru kapa barri egiteko, gorri, urdin eta berde koloretan, eta egozan kapa zuri eta baltzak konpondu bear nabaria eukela eta konpontzeko. Orrez gain esandako bost koloretan, bakoitzeko kasulla bi egiteko, beste iru alba eta korporalak, dana be lau illabeteko epe barruan.

Eleiz onetako amarrenak batzen ebezanak Ciudad Real'eko kondesa (Butron eta Muxika etxetako maiorazgoen jaube lez) eta Aulesti torreko jaubea. Oneik ez eben esandakorik e<sup>g</sup> in, kaliza eta kopoi eta patena urreztatu eta damasko zuri ta baltzeko kasullak baiño, eta origaitik amarrenak kendu eutsezan. Eta gauzak konpontzeko, eskritura bat egin eben: Kondesak. urtero 333 errjal emoteko berba emon eban eta Aulesti torreko jauna aurreko urteagaitik 206 errria) emon eta andik aurrera urteko 103 errria) emotera makurtu zan.

Agindu eta zigor orreik emon ebazan gotzaiña Espejo abizenekua zan.

## Eleiza txukundu naian 1855

1855 urtean, gero ta biziago ebillan aulestiarren artean, euren parrokiako aldara nausia osorik urreztuteko guraria. Aurretik aldara orretako oteundegia (tabernakulua) bakarrik urrez dotere-tua euken, bai eta alboetako aldara bi be. Baiña geiago nai eben.

Nundik atara ortarako bear zan dirutza guztia?

Auzia bein zeatz erabagiteko, eleiztar guztien arteko batzarra egitea erabagi eben. Alaxe egin be.

Begira zer diñon orduan jasotako batzar-agiri batek:

"Murelaga'ko Eleiz-ateko eta bere bizi-leku dan Aulesti'ko Jon Bataiatzallearen parrokiako eleizpean, 1855 urteko ogeian, eleiztar lez, aurrez kanpaia jota eta oiturazko ziran erak zainduta, eta Benanzio Legarra alkatea lendakari zala, batzarrean batu ziran aitatzen diran oneik: Pedro José Iturrioz eta Juan Bautista Calle, bertako abadeak; Juan Jose Kortabitarte, elejzako maiordomua; Gregorjo Aldekoa, Juan Antonio Ugalde, Jose Soloaga, Jose Franzisko Gabiola, Juan Jose Gojeaskoetxea, Juan Matias Zuberogoitia, Bixente Uriguen, Jose Martin Anitua, Jose Martin Uriarte, Jose Mari Gisasola, Jose Patxi Bengoetxea, Patxi Lotino, Juan Olalde, Martin Mugartegi, Juan Tomas Kortabitarte, Juan Domingo Abaitua, Patxi Auzokoa, Juan Antonio Uriguen, Jose Adrian Calle, Juan Anton Meabe, Manu Arrizabalaga, Martin Basterretxea, Andres Uriarte, Atanasio Iturrioz, Martin J. Kortabitarte, Juan T. Bollar, Jose Iriondo, Juan Jcse Kareaga, Domingo Aranbarrí, Patxi Lotino, Jose Bollar, Jose Mari Malaxetxebarria, Angel Malaxetxebarria eta beste ainbat, ez luzatzearren ajtatzen ez diranak, baiña danak bertako bizilagunak, adin onekoak eta parrokiako eleiztar zintzoak, eta orrela batuta eta Eskribadua bertan egoala au esan eben:

Urte asko dirala eleiztarrak pentsatuta eukela eta oraindik egin barik, parroki onetako aldara nausia urrez-apaindutea, une onetan igarri eta itxusitzen dauan utsune bat kentzeko. Ala diñoer bertara etorten diranak eta lan ederra geratzeko orixe da falta dauana. Baiña oraiñarte ezin izan da gogo ori bete bere osotasunean. Oraintsu urreztatua izan da oteundegia (tabernakulua) eta Pedro eta Roke deunen aldarak eta pulpituko abots-zaintzaillea. Obra orreik ogei milla errial kostatu dira. Igarten dan utsunea bete nai dabe elejztarrak, osorik orrela lagateko, baiña oraiñarte egin danak, berak emoten daben dizdirak, gañerako erretabluren alderdia illun eta itxusi lagaten dau. Origaitik batzar onek. asko eztabaidatu ondoren, aldare nausiko erretablu guztia urrez-

tatzea erabagiten dau. Orretarako batzar berberak erabagiten dau eleiz onetako gurtza eta abade laguntzarako err-ten dauana, au da, gltxi gora bera 172 anega gari eta 202 arto, beste orrenbeste emoteko jarraiko lau urtetan, aurtendik asita; oraiñarte neurri oretan ordaintzen ez dabenak, bakoitzak jarraiko lau urtetan, bakoitzean milla errial emoteko, batzordean izentauko dan ordezkariak erabagiko daben eran; eta irugarrenez, eleizako fabrikako diruetan urtean geratzen dana, bear diranak ordaindu ta gero, a be urreztatzeiko bear danerako emoteko. Eta erabagi au aurrera eroateko batzartuak eskubide osoa emoten dautse Pedro Jose Iturrioz, Juan Bta. Calle, Juan Anton Ugalde, Juan J. Gojeaskoetxea, Jose Bollar, Jose Iriondo eta Jose Morga'ri, danak batean eta bakoitzak besteekaz batean, eleiz-batza onen izenean lan barri orre; k egiteko alegiñak egin dagiezala, aurrez eleiz agintarien baimenak lortuaz, bai eta ortarako bear dan maisua edo maisuak be, lenengotik aurreraka egin dagien, eurek edo ta enkantera atarata, eta ele; ztarrak beartu dagiezan euren kostua ordaintzera, bear diran gaietan ortarako eskriturak egiñaz. Eta euri eskubideak emonaz, eleiztarren izenean erritar bako; tzak emon bear dauana, bai aletan edo ta dirutan, batu dagien, eta komeni ba da auzitegira be jo dagien, ortarako bearrezko diran baimen eta gainerako jakingarriak eroanaz, eta ala bear ezkeru, euren eskubideduna izentatu dagien, oztopo barik baimen onetan emoten jaken agintea bete dagien. Eta batzarreko agiria izenpetu eben, batzarrean egozan lekuko batzuen aurrean, Antonio Iturrioz, Roke Solaguren-Beaskoa eta Martin Maruri'k. Ala egiaztatzen dot nik, Santiago Etxebarria Eskribaduak, eta nigaz batean beste amaika lagunek.

Eskribaduak eta batzarreko ordezkariak izenpetuta, batzar-agiri ori Bilbora bialdu eben Bagilla'ren 1'an, Bizkai'ko Aldundira.

Bizkai'ko Aldunditik illaren 6'an erantzun eben, alegin egiteko, ortan aitua zanen baten bidez, zenbat izango zan kostu guztia jakiten.

Illaren amairuan, Juan Jose Gozeaskoetxea'k izenpetuta Pedro Belaunzaran arkitektoak egindako aurre-kontua bialdu eben.

Ori ikusita Aldunditik agindu eben barriro batzarra egiteko, aurrekontua eta baldintzak zeatz aztertu eta erabagia ondo pensatuta artzeiko, garrantzi andiko gauza zalako.

Uztaillaren 8'an barriro batu ziran eleizpean. Lengo agirian 36 batzartuen izenak izentatzen ziran. Eguz onetan egin zan ba-





S. JUAN

tzarreko agirian, 102 izen azalduten dira, itxuraz, erantzun-bearra eta ardura zabalago egitearren. Batzarrean, eskribaduak diño euskeraz azaldu ebala auzia "en lengua vulgar bascongada". eta Aldundiko erantzuna jakin eragin ebala, erabagia barriro aztertze-ko eskatzen, eta jakin eragin ebazala baita be lan orretako baldintza eta aurre-kontua Belaunzaran arkitektoak izenpetua, eta eleizarrek artutako erabagia beteaz lanan asteko emon eben agindua. Batzarrean eztabaida luzea sortu zan, eta geienen botoz erabagi zan, lanak asteko emon zan agindua indar barik lagatea, eta batzar aretan erabagi zan urreztatzerik ez egitea.

Eta ori orrela zala adierazteko batzarreko lekukoekin batera Jose Mari Artaetxebarria, Juan Jose Olabe, Juan Tomas Artaetxebarria Zenarruza'ko bizilagunak izenpetu eben eta idazkari lez eskribaduak. Bai eta Jose Benancio Legarra, Juan J. Kortabitarte, Juan Bta. Calle, Juan Ant. Ugalde, Antonio Goikoetxea, Jose Martin Anitua, Jose Mari Bengoetxea, Franzisko Solaguren-biaskoa, Jose A. Arangoena, Jose M. Artaetxebarria'k.

"Eta nik Busturia merindadeko eskribaduak esandako erabagi au artu zan batzarrean egonda, bertako kopia jator au emoten dot, bertako lenengoa nire erroltzerako gordeaz". Santiago Etxebarrieta.

Eta Bilbo'ra idatzi zan zer gertatu zan jakin erazten eta andik erantzun eben agiria bertan bera itxi ebela.

Agirietan ez da ikusten zenbatekoa zan urreztatzearen kontua eta ba dirudi goitik bildurtu egin zirala eta erritarrei bildurtu eragin, artu eben erabagia barriro ondo pentsatuta artzeko eskatu ebenean.

(Agiri one;ik Gernikako Batzar nagusietako Artxiboan dagoz, 83 Erroltzean, 1 kutxa eta 3 garren zenbak;agaz bereiztuta).

## **Eleiz-Iotuerak**

Beste parroki asko lez, Aulesti be, oitura ugaridun eta lotura askodun parroki a izan da, batez be letani, jai-erdi eta orrelako ospakizunetan, bai eta eriotz goraberetan.

Emen be "sepultura" etxearena izaten zan. Etxe bat saltzen ba zan, beragaz geratzen zan lengo etxearen sepultura.

Sepulturetako oiturak, argizaiola, "almaiyerue, difunterie, errespontsu eta abar, jarrileko barriak ipintean ertzetara aldatu ziran.

Len egoten zan sepulturerie be. Eta berak egiten ebazan illeta eguneko ofrenda eta abar, au da, ogi eta diru eskintza.

Ilak lotura andja emoten eben parrokiagaz eta kaleagaz be bai.

Oraindik gogoratzen dabez batzuk lengo il-bazkari eta abar. Edo ta artu-emonik ez eukenezako ogia, ardau eta makallaua.

Oraintsurarte "anderuak" artzen eben merienda lako bat. Gaur il-kutxa asko kotxeetan ekarten dira parrokira, eta esan lei "anda-bide" oitura eta abar, ora;ndik zaarrak gogoratuarren, bertan bera galdu dirala, baserrietako pista eta baso-bideak egin diranean.

Parrokiko erakundeen artean, lau Anaidi edo Kofradi nagusi egon ziran, eta oraindik zainduten dira:

Arimen Kofradja,

Errosarioko Kofradia.

Sakramentu gustiz altsuarena eta

Vera Cruz deiturakoa.

Oneik izan dira parrokian zarrenak eta jatorrenak.

## **Gaurko egoera**

Gaur, Aulesti'k, beste erri txiki askoren problema dauka parrokiaren bizitzarako: Abaderik eza.

Origaitik gauza bakana gertatzen da gaur parroki askotan.

XVI-XVII garren gizaldietan, erri txikiak asarre agertzen ziran parroki egiturak jasota euki eta euretarako abadeak lortu arte.

Lea inguru onetan, Amoroto, Mendexa, Gizaburuaga, Bedarona eta abar, asarre bizian ibili ziran Leke;tio'ko parrokiagaz, angoak beste parroki guztiak bertatik serbidu nai izaten zituelako.

Asarre orre;k benetan biziak izatera eldu ziran eta Erromatik be erantzunak euki zituen, errien asarriei jaramon egiñaz.

Gaur, nai ta be, abaderik ezak, edo urritasunak, utsune asko, al dan eran betetera beartzen daualako, Aulesti bertan bizi dan abade barik, Leke;io'ko parrokiatik eskintzen dauksen laguntzagaz bizi da.



**KANPAIAK**





Jfr . . . . .

itimat



101





F. WOODSON  
1515  
Yca  
WOODSON  
Yca



DONIANEKO  
ALDARA NAGUSIA



DONIANEKO  
ALDARA NAGUSIA

# PARROKIAKO ARTXIBOA

Parrokiako artxiboa, Derio'ko "Bizkai'ko Eleizaren Histori Arkibia" deiturakoan dago, azken urtetakoak edo eskuetan bear diranak ezik.

An dagozanak 56 dira guztira, era onetan sailkatuta:

Jaiotzetako liburuak	1576-1852 bitartekuak.
Bataiatuen aurkibidea	1576-1891
Ezkontzak	1603-1820
Arttu eta emondako mezuak	1908-1967
Eriotzak	1634-1915
Sendotza artutakoak	1649-1844
Matrikula	1887-1968
Elezatxu ermita	1939-1965
Santa Eufemi ermita	1823-1951
Eleiz fabrikako kontuak	1589-1918
Iraspen onak	1792-1792
Anaidi eta Kofradiak	
Arimen Kofradia	1725-1964
Errosarioko Kofradia	1602-1964
Sakramentu deunarena	1681-1964
Vera Cruz Kofradia	1689-1964
<b>Eleiz-gizonak</b>	
Iraspenak	1582-1866
Errentak	1691-1771
<b>Eleiz-ekintzak</b>	
Otoi-Apostoladutza	1885-1964
Mariaren alabak	1879-1972
Misioetako Laguntza	1928-1967
Danetarikoak	1622-1967

# 1532 URTEAN EGINDAKO ILLOBIEN (SEPULTUREN) BANAKETA

Parrokia egiten inarduela, bertakoentzat "sepulturak" egin ziran.

Guztira larogei etxeentzat egin ziran illobiak. Ainbeste ete egozan garai aretan?

Geiago, ziurretik. Kontuan euki bear da lurrez aulestiar edo murelagatar izanarren, etxe batzuk Ziarrotza'ko Kolejiatagaz eta ango parrokiagaz eukezala lotuerak, eta origaitik an eukezala euren illobiak.

Estanislao Labayru'k bere Historia de Bizkaya'n, Laugarren tomoan, ordena barik agertzen daben zerrendatik, alfabetan jarri doguz izenak, bakoitzak berari dagokiona edo ikutu egin leikiona errezago billatzeko.

Illobien banaketa egiten Arrangiz'eko Abadea, Juan Ortiz Bollar, Juan Saenz Basterretxea eta Estibariz de Urzaa batu ziran, aurrez eleizako patroia zan Juan Alonso Mujika'k bere bañe mena emon ondoren. Eta agiria jasoteko eskribadu lez lbatao'ko Errodrigo, ogibidez errege-eskribadua zana ibili zan.

Bear ba da banaketa ez zan danen giroko izango, edo ta asarren batzuk egongo ziran. Beintzat Korrexidorearen ordezkari zanak, zigor gogorra jakin eragin eban, banaketa eta sepulturen lekutzea ontzat artu barik, aurka ekiten eutsenentzat: 50.000 marauko zigorra eta gañera Bizkai iurraldetik erbesteratzea.

Ara etheen izen edo abizenaren araberan agertzen diran izenak:

Alegria. (Zortzi etxe egozan izen onetakoak)

Andia

Angiz

Arteax

Arteaga

Arrangiz

Aulestia

Axkoeta

Barbariola

Basabe

Basterretxea



Beitia  
Bereikua  
Berreño. (Etxe bi)  
Bollar  
Enparanza  
Garai  
Garaor (Etxe bi)  
Garetxana  
Garetxana Nareakoa.  
Gizaburuaga (bost etxe)  
Goikoetxea Okamikakoa.  
Goitia, Zuberokoa.  
Gorosolai  
Gorostiaga  
Guardia  
Ibakatx (Etxe bi)  
Ibarrola  
Ibatao (Etxe bi)  
Idoeta  
Jauregi  
Kale (Etxe bi)  
Koba  
Kortabitarte (Etxe bi)  
Legarra  
Legorraza  
Lekoniz  
Mendiguren  
Mumulutegi (Iru etxe)  
Nabea, Narea (?) (Bost etxe)  
Olabarria  
Olaeta  
Orma  
Ortiz Aberanga  
Otxoa Gizaburuaga  
"Rementero"  
Solaguren (Etxe bi)  
Soloaga  
Tellaetxea (Etxe bi)  
Uriarte  
Urizar  
Urzaa

Zabala  
Zabaljauregi  
Zalurtegi

# 1613 URTEKO ITUN BAT: ELIZKIZUNEN LOTUERAK

Sarri euki ebezan euren gogortadatuak alkarren artean eleiz-gizon eta kalekoak. Eta ez beti diruagaitik. Inoiz oiturak garbi zaindu nairik be bai. Ortik etorten ziran konponketak edo ta orretarako alegiñak.

Jakiña da aldi baten jai eta jai erdietan, eta bestelako gertaeretan, lotura gogorak danentzat.

Batzutan erria bera izaten zan abadeak beartu naian ibiltzen zana, auzoko edo euren gogoko elizkizunak aintza eta ospez egitera, eta ordeaz oneik erriari euren bizibiderako ordaiña eskatzen eutsenak.

Orrelako alkar konponketa bat, itun bat, 1613 urteko Azilaren 24'an egina da. Luzea da eta guk laburtuta agertuko doguz itun orretako ogetalau atalak.

Konponketa onetan bertan be garbi igarten da Aulestia'ko parroki barria ordurako bere zeregiña beteten asia zala.

Ituna onela asten da: "En la calle pública de la puebla de Aulestia, lugar acostumbrado do se juntan los fieles caballeros, escuderos, hijos dalgo vezinos de la dicha anteyglesia de san Juan de Murelaga, para tratar las cosas tocantes al servicio de Dios N.º Señor y vien común y gobierno de la dicha anteyglesia, día dorningo que se cuentan beynte y quatro días del mes de Nobiembre de mill y seiscientos y trece años, acabada la missa conbentual del dcho día = y estando así juntos y congregados en el dcho atuntamiento, a son de campana tañida segun Uso y Costumbre...".

Batu zi anak:

Batetik alkate biak, au da aldi aretan "Fiel" izenez ezagutzen ziranak, eta beste ainbat erritar, eta bestetik parroko lau abadeak: Felipe, Zubieta'ko abadea; Juan, Urriola'ko abadea; Min insaurraga eta Frantzisko Zubialdea.

Artu ziran erabagiak onetara zeaztu leitekez:

1.—Oiturazko ziran letaniak ermitetara egitean, bakoitzean zortzi errial edo ta ofrenda, aukeran, emongo jakoezan, baiña abadeak, letanietako iru egunetan, egun bakoitzean joaten ziran ermitetan iru meza eskiñi bearko ebezan erriaren alde.

2.—San Martin egunean, abade "benefiziadu" bi joan bear ziran Pablo deunaren ermitara eta meza bi eskiñi erriaren alde, bata san Pablo ermitan eta bestea Murlakoan, eta origaitik sei errial edo naiago ba eben, ofrenda eurentzat itxi.

3.—Maiatzeko eta Irailleko Kurutzeko jaietan, iru abade joan bear ziran, "prozesiñoian" "elizatzura" eta origaitik bakoitzean lau errial emon. Jantzirik onenekaz joan bear ziran eta eurekaz meza emon erriaren alde.

4.—Erriak bere borondatez Oibar'era edo beste ermitaren batera ibillera egitea eskatzen ebanean, zortzi errial edo ofrenda emon bear zirala, baiña abadeak meza bi emon erriaren alde.

5.—Doniane egunean, san Juan egunean, oiturazko eben lez eleiz-barruan ibillera egin bearrean, eleiz-kanpotik zear egin bearko ebela.

6.—Letania eta bestelako ibillera guztietan, gitxienez abade bi joan bearko zirala, eta aldendu barik egon, amaïtu arte.

7.—Ermitetako santuen egunetan, abade bi gitxienez joan bear zirala euretan esaten zan mezara, bat meza emoteko eta bestea abestuteko. Eta origaitik zortzi errial emon bear jakoezala. Baiña Santa Eufemi'ra abade bakar bat, eta lau erria) eta ofrenda berari emon.

8.—Urteko zapatuetan goizeko mezagaitik errial bi emoteko eta ofrenda meza korutik abestua bear zala.

9.—Astelen guztietan korutik abestutako meza emon bear zala eta meza ondoren eleizan "bueltia", illen aldeko erresponstuekaz, eta iru errial ordaindu.

10.—Bederatziurrenetan illen alde emoten ziran mezak abestua izan bear zirala eta iruna errial ordaindu.

11.—Hlero ataraten diran illen iru mezetan, abadien iru errial ordaindu eta ofrendak. Meza abestua dira eta Santisimu edo ta Errosarioko Kofradienak diranetan, euren eleiz-bira euki bear eta Vera Cruz'ekoak ziranean erresponstu abestua.

12.—San Juan "buru-ebagiaren" egunean abadeak jantzita joan bear ziran "Murla"ra, "prozesiñuan", baiña meza emon bear ebana bakarrik jantzita, eta egun onetan erriak borondatez eskintzen eutsen olataren gain, beste lau errial emon bear jakozan.

13.—Eriotza gertatzen zanetan, kalean ba zan, abade guztiak beartuta egozan illaren etxera joatera erresponstua esatera, eta baserrietan gertatzen zanean, bi beintzat joan bearko ziran, eta beste biak kurutzeagaz. urten bear eben san Esteban ermitaren ondora eta an itxaron eta bertara il-kutxa eltzean. erresponstua abestu. Eriotzea beste alderdian gertatu ezker, "Elizatzu" aldetik gertatu ezker, ara joan eta bardin egin, eta gero parrokiara eroan eta "notornua" abestu eta bertan illobiratu. Illeta orren orde, abade bakoitzari errial bat.

14.—Baj eta agindu eben, illeta ondorengo bederatziruareko meza eta onrakaitik ogeita bi errial emoteko abadie. Mezak abestuak.

15.—Eriotza urteko iru serbitsutan, iru meza atara bear, beste illik eurretan sartu barik eta meza bakar bategaz ezin eikezala ordeztu abade biren serbitsuak. Iru meza oneikaitik 24 errial ordaindu bear ziran, euretatik 22 oitura zan lez banatzeko eta beste biak, erriak geituak, "benefiziadu" erdikoentzat itxi bear zirala, ogibide-osokuak parte artu barik.

16.—Onra eta urte burukoa gertaten ziranean amaika errial emoteko. Kanpoko abadeak gertaten ziranetan, Nabarnizkuak izan ezik, beste bi geitzeko.

17.—Bai ta agindu eben ilteko 30 mezak emoten ziranean, 8 dukat ordaintzeko. Mezak irauten eben artean arratsaldetan Salbe bat abestu bear zan eta illaren sepulturaren erresponstu bat esan.

18.—Urte burukoagaitik abadie 8 dukat emoteko, eta orretarako astero meza bat eskintzeko eta erresponstu abestu bat meza orretan eta urteko domeketan.

19.—Etxe-jaunak ilten diranetan, abadie urte guztiko domeketan iru ogi eta sakristauarentzat opilla, eta bederatziruarean eta serbitsu egunean, zortzi ogi. Eta sugale (foguera) andikoak ez diranetan, domeketan ogi bi.

20.—Beste agindu bat. **Eguneko** meza, urte guztian, aldare nagusian emon bear zala eta ez bestetan, eta erresponsturik be ez zala esan bear iñoren alde.

21.—Pasku, Gorpuzti, Asentsio, san Juan, Irutasun, san Pedro eta Paulo eta Andra Mariaren lau jai andienetan, eguneko mezak iru abadekoak izan bear zirala.

22.—Urteko domeka eta jaietako bespera abestuen gain, bereziki abestu eta ospetsu bear zirala Gorpuzti, Doniane, san Pedro, Asentsio eta Andra Maritako besperak.

23.—Bai eta, naj ta gordeteko jai-egunak izan ez, meza abestua eskiñi bear zala egun oneitan: San Anton, san Pablo, san Bixente, santa Ageda, santa Eufemi, santa Poloni, san Juan Porta-Latinan, san Pedro ad Vincula (Bincula Santi Petri, diño), san Antolin, san Blas, San Frantzisko eta beste Andra Mari jaietan.

24.—Orrelako aginduen bat apurtzen ebanari, errazoi zuzenik egon ezik, amabi errialeko zigorra ezartea. Ortik erdia Sakramenduaren argitarako eta beste erdia ospitalerako.

Orrelaxe jokatzen eben gure zarrak eleiz-oiturretan.

12 de ordenamos de ayuntamiento 9 r 18  
LeLfr!- de fia Cooril calilloo della



As horciol III CaS | b:il

Yapindidolics

•Pucblx

el CaTilict<sup>91</sup> o ne ' *el*



# URTEETAKO ASARREAK

Erritar eta eleiza arteko beste gogortada luze bat XIX garren gizaldiaren erdi inguruan ezagutu zan.

Auzia onela asi zan: Eleizako abadeak salatu eben Eleizako fabrika deitzen danari emoten jakozan amarrenak, maiordomuak saldu egiten ebezala euren kontura, eta eurak esaten eben ori "fabrika"ren aurkako zala, euren ustetan enkante-errematera atara bear ziralako.

Orren erantzuna artu zanean, erriak uste izan eban asikiñen (primizien) tratua erabilteko eskubidea kendu egiten jakola eta ordezkari eskatzen asi zan "eleiz-fabrikak" bost urtetako sartu-urteen kontua emon bear ebala.

Aldi onetan Espartero generalaren aginduz baituta (preso) eroan zituen emengo abade bi, Jose Agirre-Amalloa eta Juan Legarra. Oneik be Eleiz-Fabrikaren eskubideen aldeko ziran.

Gero karlisten gerra sortu ta gauza bertan bera geratu zan.

Urteak igaro ondoren, barriro asi ziran maiordomuak emaitzetan artzen zana euren kontura saltzen.

Asarreak biztu ziran.

Abadeak ukatu egiten ziran eleiz kontuak emotera. Ez besterik barik ukatzearren. Euren esanetan, gauzak zeatz eta zuzen egiten ez ziralako baiño.

Urteak igaro, errian ezin auzia konpondu eta azken baten konponketa bide bat asmatu zan: Erriak lagun bi aukeratu eta parrokiak beste bi, eta laurak Aldundian (Diputasiñoan) alkartu ango ordezkari bigaz konpontzeko asmotan.

1846 urtean lortu zan konponketa bidean sartzea.

Erriak Pedro (bañez Aldekoa, bertako bizilaguna aukeratu eban ordezkari lez eta onek bere laguntzailletzat Arteaga'ko bizi-lagun zan Juan Martin Ozamiz.

Ori ikusita abadeak, euren aldetik, Lukas Amestia, bertako abadea eta onek Bilbao'ko parroki baten egoan Juan Jose Soloaga aukeratu eban laguntzat.

Aldundiak, beste aldetik, Villarias'ko Markesa, bertako lendarikari zana eta Antonio Murgoitio alduna aukeratu zitun.

Sei lagunok Aldundian batu ziran 1846 urteko Azilla'ren 6'an.

Eta goiz guztia batzarrean igaro ondoren, azken erabagi au artu eben:

Maiordomuak 1832'tik 1845 bitartean emoteko eukezan kontuak emoteko, eleiztar guztien guraria beteaz.

Bein ori egin ezker, auzia amaitutzat emongo zala.

Auzi onek sortutako gastuak, Eleizaren aldetik eta abadien aldetik sortuak, "fabrika"ren kontura ordaintzeko, eta udaleko ordezkariak agindu ebelako, erriak ordaindu, orretarako erritarrak gertu egozalako.

Ille biren barruan parroikiko abadeak akordu onen on-ikusia lortu bearko ebela Obispadutik.

Akordu onen kontua erriari nun emon abadienezako sortu ekekan kekak kentzeko, udaletxetik gotzaitegira eskatuko ebela orretarako baimena edo on-ikusia, eta andik esaten ebena beteko zala.

## ELEIZARI LAGUNTZA 1842

Urte onetan, eta eleiz-gurtza dirua eta eleiz-gizonena ziur batu al izateko, Aldundiak idazti bat bialdu eban errietara, gurtza eta eleiz-gizonen ordainketetarako bear zan diruari gorabera bako urtenaldi bat emon nairik, erritarrak alik zuzenen laguntza orretan esku artu egien.

Uztaillaren 17'tik 24 bitartean ibili ziran ordezkariak orretarako erri-sailketa egiten.

Danetara 3.300 errial batu edo emon bear ziran urte orretan esandako sail bietarako.

Ordezkariak pentsatu eben bost sailletan, bost maillatan, erria banatzea orretarako.

Orrela,

Lenengo maillan 7 etxe jaun edo auzotar (bezinu) sartu zituen.

Bigarrenean 32. Laugarrenean 73.

Irugarrenean 50. Bostgarrenean 125.

Danetara berreun eta larogei ta zazpi auzotar.

Jakiña, orrelako sailkaketak beti sortzen dabez bata bestea baiño geiago edo gitxiago dalakoak, batez be dirua ordaintzea bitarteko danetan, eta orduan be egon ziran iru asarre agerpen.

Bat, batera egin eben lenengo saillean sartutako Patxi Alzaa, Jose Martin Anitua, Jose I. Gerrikabeitia eta Adrian Ibarrola'k. Oneik asarretu egin ziran erriko aberatsenen artean sartu ebezalako.

Beste bat Teresa Arangoena'k egin eban, bigarren saillean sartu ebelako eta bere ustez beartsuago zalako.

Irugarrena Mari Solagurenbeaskoak egin eban, errazoi bardiñak agertzen.

Sailketa urte baterako zala bakarrik eta iñori ez eutsen jaramonik egin, urrengo urtean kontuan eukiko ebezala aginduaz.

Egindako zerrendan ikusten danez, orduko aulestiar aberatsenak oneik ziran:

Alzaa, Jose Patxi.

Anitua, Jose Martin.

Bengoetxea, Ana Marja.

Gerrikabeitia, Jose I.

Goitiandja, Jose.

(bañez de Aldekoa, Pedro Jose eta

Ibarrola, Adrian.

## MURELAGA'KO ELEIZ EGOERA 1857 URTEAN

Bizkai'ko Aldunditik idazki bat bialdu zan erri guztietara, erri bakoitzeko parrokien gora-berak eskatzen.

Ogej itaun, galdera, egiten ziran.

Eta Murelaga'ko eleiz-ateak, erriak, onela erantzun eban:

1.-330 auzotar (bezinu) egozala errian eta danetara 1450 bizilagun.

2.—Bizilagunak onela sailkatzen ziran:

527 kalean.

115 Urriola auzoan, kaletik ordu erdira.

229 Zetokiz'en, kaletik ordu erdira.

114 Narea'n, kaletik iru ordulaurdenetara.

72 Zubero'n, kaletik iru ordulaurdenetara.

142 Malax'en, kaletik ordu betera.

96 Goierrri'n, kaletik ordu betera.

152 San Anton'en, batzuk ordubetera eta beste batzuk ordu ta erdira.

Azken onein bidea ibilbideraiko txarra zan.

3.—Erantzuna dago, parroki bakarra dagolako.



- 4.—Emengo parrokiak lau etxe daukaz Gizaburuaga'n:  
 Albinagorta,  
 Beazkoetxea,  
 Errotatxu,  
 Goikoetxe.
- 5.—Parroki bakarra dago. Donjane, san Juan.  
 Parrokiko errentak 8.000 errialetan zenbatu leikez, așikin eta urteko parrokiko eskubidetatik lortzen diranak.
- 6.—Ez dago eleiz-laguntzailerik bearrik, "aneja"rik bearrik.
- 7.—Bederatzi ermita daukaz, meza emoten diranak, eta ez dauke iñungo laguntzarik, Bakoitzean 300 lagun sartu leitekez.
- 8.—Aurrerako erantzunean esanda dago emen bear zana.
- 9.—Parrokian lau abade dagoz. Bakoitzaren errenta 43 anega garitan eta 44 artotan. Parrokoak 150 dukat daukaz dirutan eta 33 anega arto. Lau abade naiko ez diralako, abade eta erriaren artean beste abade bat sartuta dauke, euren kontura. Lau abadeak Torrecilla'ko Markesak aurkezten dauz eta gotzaiñak izentatu. Laurak beteta dagoz, iru 1846 urtean eta bestea 1850'n.
- 10.—Eleizkizunak ospetsu egiten dira, edozein erri andietan lez.  
 Oarrakr—Erri onetan 23 etxe dagoz, amarrenak Ziarrotza'ko Kolejiatan ordaintzen dabezanak.  
 Oneik dira: Narea Etxebarri, Uribarren, Olabarria, Malax Beitia, M. B. bekoa eta M. B. goikoa; Malax Urizar aundia eta txikia; Zubero Uriarte bekua eta goikua; Olariaga, Askaiturri, Kortabitarte (3 etxe), Iturriza (etxe b<sub>i</sub>), Urdegi (etxe bi), Albinagorta, Arteaga Malax eta Marijena Zubero.  
 Etxe oneik Ziarrotza'ri emoten dautsanagaz, ondo lortuko litzake beste abade bat bertan eukitea.  
 Erantzun oneik, alkate lez, Domingo Aranbarri'k izenpetuta dagoz.  
 Beste aldetik, eleiz-gizonak be artu eben urte batzuk lenago orrelako beste idazki bat.  
 Erantzunak bardintsuak dira.  
 Bakar bakarrik, abadeen erantzunean, parrokiko erakundeko zeaztasun geitxuago irakurten dira.  
 Era onetan, esaten dabe, parrokian lau Anaidi, Kofradia egozala: Aldarako Sakramentu guztiz santuarena, eun dukaten jaube zana; Errosariokua, 190 dukaten jaube, Vera Cruz, 350 dukaten jaube eta Arimena, ondasun barik, ukarrekaz (limosnekaz) bizi zana.

Aulesti'n sekula ez zala ezagutu ezelako konbenturik.

Eta eleiz-serbitsuan ordaintzak onela zirala:

Illeta, bederatzuurrenagaz, amar meza abestu eta errespon-  
tsuekaz, euretatik bi iru abadekoak euren Noturnoekaz, 76 errial.

Onrak, iru meza iru abadeko esanaz eta beste noturno bi,  
44 errial.

Umeen illeta au, kaleko etxetakua meza bategaz, 10 errial.

Ume illeta au, kaleko etxetakua ba zan. 7 errial eta erdi.

"Tiraluto" deitzen zan meza, au da, urteburukoa, iru abadeko  
meza bi esanaz eta noturnoagaz, 21 errial.

Animen onrak, iru abadeko meza bategaz 16 errial.

Ume bateo bakoitza: kana bat eun (tela) eta ogi bi.

Eleizakoak eroatea, kaletik kanpora, olio bat.

Ezkontza bakoitza, meza ta guzti, 16 errial.

Antxiñako oitura, konjuro, errogatiba eta abar euren mezekin  
esate orde, milla eta amabost errial.

Orrez gain, domeketako ofrendetan eskintzen dan ogia era  
onetan emoten da:

Nausi baten illeta lenengo saillekoa. klaseKoa ba zan, iau  
anega gari eta bigarren saillekoa ba zan anega bi gari.

Abadeen erantzun au Pedro Jose Iturrioz maiordomu nau-  
siak izenpetu eban.

Amar ermita egon ziran len Aulesti'n. Gaur bederatzj. Zein amargarrena?

Estebantxu'rena. San Estebantxe.

Egon zala ziurra da.

Norbaitek esan eustan kanposantua dagon tokian egon ete zan ermita ori eta antxe galdu zala, edo orretaz zerbait entzuna eukala.

Ziurra da beintzat 1618 urtean ba egoala.

Ziurra baita 1713 urtean be, ba egoala, ain zuzen gotzain batek, kontuak eukita letaniak egiten ziranetan, bide luzetan egiten ba ziran, edo urrun egozan ermitetara, bear ziran lotsa, ixiltasuna eta oneraspena galdu egiten zirala-ta, ordutik aurrera letaniak Parrokitik Elizatxu, Murla'ko ermita eta San Estaban'era egiteko agindu ebalako.

Jakiña, orrelako aginduak emoten ziran, baiña oituren aurka ezin joan eta azkenean erriak bereagaz jarraitzen ekian.

Geiago. 1793 urtean, beste gotzain batek, Agiriano gotzainak, ermita au egoera zatar eta itxusian aurkitu ebala-ta, agindu zorrotzak emon zitun, bera ainbat lasterren itxuratzeko.

Baiña ba dirudi azken gizaldjaren erdi aldera galdu zala. 150 urte, gitxi gorabera, ori gertatu zala.

Aulesti'ko ermitak, ermita apalak dira, txikiak. Egia esan, oituraz, ermitak euren auzo edo inguruko Kofradien arabera ibiltzen dira, eta emengo auzoak ez dira etxez ugariak.

Ermiten andiera kontuan eukita, Aulestikoak ordena onetan jarri leikez euren metro lautuen arabera:

Murelaga "Murla" koa	128,46 m.'
San Martin, Malax'en	97,92 m.=
Madalena, Urriola'n	92,50 m.2
Santa Eufemi, Urregarai'n	81,34 m.2
San Lorentzo, Zubero'n	72,98 m.2
San Bixente, Narea'n	69,16 m.2
San Anton, Albinagortan	39,25 m.'
San Pablo, Garatza'n	37,08 m.'
Elizatxu, errian	22,89 m.'

Euren itxasoa neurritzat artuta egoerari buruz, esan geinke era onetan zenbatu leitekezala:

Santa Eufemi	697 metro tara.
San Bixente	280 metro tara.
San Martin	280 metro tara.
San Lorentzo	210 metro tara.
San Pablo	178 metro tara.
San Juan "Murla"	95 metro tara.
Madalena	90 metro tara.
Elizatzu	60 metro tara.
San Anton	50 metro tara.

Ikusi daiguzan, gain gaiñetik, geratzen diran bederatzirak.

Ermita onein jakingarri asko Iturriza eta Labayru'ren istorietatik lortu doguz eta Gurutze Arregi'ren "Ermitas de Bizkaia" liburuetatik.



## SAN JUAN "DEGOLLADUA"

San Juan Murlako, erri deitura laburrez. Esateko, Murelagakoa. Aulesti'ko parroki zarra.

Lenago gogoratu dogun lez, 1640 urtean aldatu ziran emendik kaleko parroki barrira, parroki baten ezaugarri izaten ziran urbedeinkatu ontzi, sagrario eta abar.

14,60 daukaz luzeran, 8,80 zabaleran.

Ez dauka kanpai torrerik.

Aldara bakarra.

Yon donearen buru ebagia gogoratu eta gurtuten da bertan. San Juan burukendu edo moztua. Dagonilla (abustua) ko 29'an jai.

Ori da eleizako irudi bakarra. Eta aldaran bertan beste iruditxo bi: Herodes eta Herodiana. Ala deitzen dautse.

Len, lo egin eziñez ibiltzen ziran umeak, ermita onetara ekartzen zituen. Ez bakarrik bertakoak, bai ingurutakoak be. Bear ba da San Juan bezperako loaren esaldiko sinisteak eraginda. Egun onetako siesta, urte guztirako lo gurea emoten dauana dala.

Len, Asentsio jaiko letaniak egiten ziranean, egun baten ermita onetara etorten ziran, biotz-mindu eta eskale, eleiztarrak. Bai eta San Markos'etako letanietan. Ain zuzen egun onetan eskitzen zan auzoko illen aldeko meza. Bertakoak ba dauke orren deitura berezi bat: "bandako mezie".

Esaten dabenez ermita onetan Kristo'ren irudi andi bat egon zan, bai eta Andra Mariarena be. Gaur, aldare bakarrean, esandako irudiak dagoz eta alboetan inguruko fedea ipinitako lauki bi: Famili Sakratuarena eta Antonio deunarena.

Koru gaiñean, barruko aldeko orman, arri zulo bat dago eta sinistea da arri onek gizonaren abotsa anditu egiten dauala.

Ermita onetara kilometro bat inguru egiten da parrokitik.

Erriko ermitetatik andiena da neurrietan.



SAN JUAN MURLAKUA. BARRUTI A



SAN JUAN MURLAKUA



**SAN JUAN MURLAKUA.  
ALDABEA**



**MURLAKO KURUTZEA**

# "ELIZATXU"

Kalean dauke aulestiarrak ermita txiki au.

Errian bertan. Aulesti izeneko kalean.

"Elizatxu" deitzen dautser Bai eta "Kurtze" kua be. Errukiaren Ama, Kristo illa besoetan dauala gurtuten da bertan. Irudi ederra. Ez jakin zeñnek egiña danr

Apal erasle edo apaltasunerako eleizatxotzat dauke batzuk. Erderazko "humilladero" tzat. Itxura ori dauka.

Beste irudiak: San Blas eta santa Agata'renak.

Ain zuzen san Blasetan ospatzen zan bertako jaia. Janariak eta bederatzi egunetan saman erabili bear izaten dan aria bedeinkatzen dira egun orretan, leku askotako oitura jarraituz. Batzun ustez neguaren eragiñetarako bakunarik onena.

Ogei ta iru metrotara ez da eltzen neurrijetan: 22,89 m.' zeatz esanda.

San Blasetako opillak eta santa Agata'ren bertsoak euren eragiña eukiten ba dabe be, orrez gain Elizatxun Ama Naigabe-tuak bere oiñetan daukan Kristo illaren irudi ederrak, b;otz askori lotsa eta errukia sartu izan dautsela autortzen dabe bertakoak.

Orrez gain ermita au kalean bertan egoteak, parrokitik urte-ten diran beste ele;zkisun askoren mugatzat euki izan dabe, beti be aulest;arren artean bere gomutea sortu eraziz.





**"ELIZATXU"**



**SAN BLAS "ELIZATXU"**

## **BIXENTE DEUNA**

Euskal esaera zarra da: San Bixente Abandokoa, legitimoa; Barakaldo'koa bastardo.

Emengoak ez dauka orrelako esaera baldarrik, bai ordez bera dagon lekuko nariatarren fede zintzoa.

Toki aizetsuan dago: itxas neurritik 280 metrotara, erritik kilometro bira, Narea'ra daroan bidez. Ermita au eta San Martin goi-egoera (altura) bardiñean kokatzen dira.

9,10 metro luze eta 7,60 daukaz zabaleran. Ez dauka kanpai torreric. Kanpaia tellatupean lotuta dago.

Urtarrilla'ko san Bixente egunez, 22'an ospatzen da bertako jaia. Ori len. Orain egunetik urrengo zapatuan ospatzen da.

Emen be, "Murla"ko ermitan lez, auzoko illen alde eskintzen da "bandako mezie".

Oiturazko zan len letani egunetan ura eta gatza bedeinkatzea. Eta bertara etorten ziranak batzen ebezan bai ura eta bai gatza, gero bakoitzaren etxeetako soloetan zabaltzeko.

Aldara bakarra dago ermita onetan. Antxe bertako zaindari maitatuaren irudia.


Nariatarrak 1980 urtean barriztu eben ermita au Kofradiaren kontura.



**BIXENTE DEUNA**



**BIXENTE DEUNA** |  



BIXENTE DEUNA



BIXENTE DEUNA

## **PAULO DEUNA**

Aulesti'tik Munitibar'era goazala, errepideko 42,5 kilometro inguruan, eskumatarako bidea artu, eta tontortxu baten, piñu eta aritz artean dago ermita au, itxas neurritik 178 metrotara.

Ermita txikia da. Elizatxu deiturakoa kenduta, bera txikiena. Ez dauka torreric.

1980 urtean barriztatu eben.

Len, urteko jaiaren ospakizunean, Ekainilla'ren (Bagilla'ren) 29'an oiturazko zan bertara erromes etozanei arda zuri ta galletak eskintzea.

Aldara bakarra eta irudi bakarra bertan.

Eleiz barruan, tellatuaren egitura, gordin ikusten da bere egurrezko errailla eta eutsigarrietan. Beia zementuz artua da.

Aurre-aldeko orma guztia, esiz betea da, erdian atea daukala.

Bertatik etxerik urrenak Garatza, Bekoerrota, Galantena, Ibarlandi eta Zetokiz eta Zesteruna dira.



SAN PABLO



SAN PABLO



**SAN PABLO**

## **MADALENA'n. "Marixa Madalenía"**

Ondo zaįnduta dagon ermita.

Len Madalen egunez, Uztailla'ren 22'an ospatzen zan jaia. Orain urrengo domekan.

Emen be ura eta gatza bedeįnkutzen ziran, letańa egunetan bertara egiten zan joanaldįan, gero soloetan zabaltzeko.

Tokiz irugarrena da Aulestiko ermiten artean, San Juan eta San Martin'en urrengo.

Ez da ermita zarra. Iturriza'k bere Bizkai'ko Istorian esaten dabenez, 1792 urtean zabaldua da.

Aldara ta irudi bakarra: Maria Madalena'rena. Lauki bi. Aldaren barrizatzea etorri zanean, eta meza erriari begira ospatu bear, euskal kutxa bat ipini eben ortarako maįtzat.

Beia baldosaz artua dauka.

Ermitako kanpaia be barrukaldean dauka.

Urrįola kofradįara duan bide egalean egiten da, pińadi baten erdian, eta Kofradi orretako zaindaritzat dauke.

Ermitaren egaletik Lea ibaįra bere urak emoten dauzan Muxo-erreka igaroten da.





MADALENA ERMITA



MADALENAKO KANPAIA



**MADALENA**



**MADALENA**

## LORENTZO DEUNA

"San Lontxo".

Zubero Kofradiako ermita.

Aulestj'tik Markiña'rako bidean, errepideko 45,300 kilometro inguruan, auzo bide bat artu eta 300 metrotara aurkitzen da ermita au.

Ermita zarra da. Beintzat, Kofradi onetako etxea dan Legarra baserriko seme zan Domingo Br Legarra'k, 1651 urtean Madrid'en erosi eta ermita onetarako ekarri eban Missale Romanun andi bat gordeten da bertanr Misalean bertan agertzen da jakin-garri ori.

Irudi artetsu bi dagoz bertanr Bakarra aldarean, Lorentzo deunarena, txukuna dalmatika gorritz margotua.

Bestea kanpoko orman, sarrerako arkuzko atearen gaiñean, arri artean ataratako utsune baten, Kristo kurutzetuaren irudi zar bat.

Tellatupeko aterpetik dindilizka bertako kanpaia. Kanpai eta Kristo'ren artean arri-urten bat, irudja babestuta zaintzeko.

Barruan, gaiñeko egitura egurrezkoa. Beia, zementoz artua.

Kutxa baten gordeten dira bertako tresnak.

Aulesti'n Asentziñoko letañak egiten ziranean, lenengoa, astelenekoa, ermita onetara egiten zan.



**LORENTZO DEUNA  
KANPOKO IRUDIA**



**LORENTZO DEUNA**



**LORENZO DEUNA**



**LORENZO DEUNA**

## SAN MARTIN

Doniane edo Murlakoaren urrengo, ermitarik andiena.

Malax auzoan dago, Santa Eufemi'ko arriolen gibelean.

Ermita, itxas neurritik, 280 metro goi kokatzen da.

Auzo alkartua egiten da Malax. Eta arta arbola ugariduna.

Ermita au be artaz inguratua dago.

Ate bi daukaz. Arkoduna, aurreko orman bat. Lautua, egalean, bestea. Gaur sarrera nausitzat azken au erabilten da.

Ba dirudi ermita au bein baiño geiagotan suak erre ebalan. Edo erre ebela. Azkenengoz gure denporetan. Bere ormetan irarria dago noiz barriztu eben: 17-3-1962.

Eleiz barruan, aurre-aurrean, orma zurian, Kurutze bat dago, aldare mai gaiñe aldian. Bertako santuaren irudia egal baten ipinita dago. Ez dago beste irudi eta laukirik.

Asentziñoako errogatibetan emen be gatza eta ura bedeinkatzen ziran. Eta soloetan kurutzak ipinten ziran eta Asentsiño egunez, ur bedeinkatua zabaltzen zan soloz-solo.

Jala Azila'ren 11'an izaten dá, baiña jai egunaren urrengo zapatuan ospatzen da bertako eguna.



SAN MARTIN



SAN MARTIN



SAN MARTIN



SAN MARTIN



## SAN ANTON

Gizaburuaga inguruan, errepidearen alboan.

"Elizatxu" kenduta, inguruko ermitetarik bigarren txikiena da, 39 metro lautu daukaz, eta itxas-neurriz be ingurutako ermitetarik beren dagona: 50 metrotara.

Lau aldetara urak jaurtiten dauzan tellatua dauka.

Aldara bakarra eta bertan zaindariaren irudia. Ormatik eskegita, lauki batzuk.

Beia zementuz artua.

San Anton egunez eskintzen da meza. Gaur ez da erromeririk egiten, len egiten zan lez.

San Anton abereen zaindaritzak dauke baserritarrak eta origaitik abereen artean gaixorik dagonean bertara etorten dakie ukarra (limosna) eskintzen.

Beste aldetik, berbetarako atzeratu agertzen diran umeak ekarten dabez ermita onetara, San Anton'en laguntza eske.

Ermita au 1590 urte inguruan zabaldua dala esaten dau bere Istorian Iturriza'k.

Itxuraz, emengo san Anton'en irudia, Aulestiko parroki barria egitean arako egiña da eta ango abade zan Juan, Ibarrola'ko Abadeak, ordaindu eban eta emen ipini.



SAN ANTON



SAN ANTON



**SAN ANTON**



**SAN ANTONGO  
UR BEDEINKATU ONTZIA**

## SANTA EUFEMI

Inguru zabalean, bai Bizkaia'n eta bai Gipuzkoa'n, entzute eta oneraspen andiko ermita.

Bertara elduteko, igoteko batez be, neketsua.

Baiña erromes ugari ikusi izan dira gerrian argizaria lotuta, zelaitik gorako bidea artu eta gero asten diran arrizko eskillaretan gora, batzutan euritzan, bestetan eguzki galdatan.

Zenbat eskillara?

Berreundak. Galdu egiten dira asko eurak kontatzen. Egia esateko, batzuk urteen urtetako eguraldien erasoaz erdibitu edo zatitu be egin dira. Berreun eta ogeita lau? Ba dira ainbeste zenbatzera elduten diranak. Besteak berreun eta ogei...

Azken urteetan, laneko erabidez, egun bereko jaiak asko galdu ba dau be, urrengo domekaz oraindik millaka lagun baten dauzan erromeria da.

Ermita bera itxas neurritik 697 metrotara egiten da. Esaera da leku aretan, antxiñako jentillak, arriola bat euki ebela eta ingurutan ezagutzen diran arri pendulak ordukoak dirala.

J. M. Barandiaran'en esanetan, Markiña'ko parrokia egitean, jentillak Santa Eufemitik jaurtiten zituen arriak. Eta inguru orretan dagozan arriak, orduan geraturikoak dirala. Orrela esan eutsen berari.

Orma baten, santu-irudi baten arrizko lekuan, buru bagako irudi bat gelditzen da.

Santa Eufemi'ko erromeriak ba eukan dei berezi bat ezaupideak egiteko aukerakotzat euken askok. Ortik ortazko kantak be ugari egotea, onelako au lez:

Santa Eufemiko zelaian  
neskazarrak dantzan,  
agureak kiñuka  
iñor jausten ba zan...

Jai eguna Irailla'ren 16'ean ospatzen da.

Barandiaran'ek diñonez, Markiña'ko andre batek esan eutsan, Santa Eufemi, Aulesti'ko lurretan agertu zala, aitz baten gainean.

Inguruko bizilagunak, aitzaren be aldeko lautada baten egin nai izan eben ermita. Baiña egunez batzen ebezan langalak, gabaz Santa Eufemi agertu zan tokira eroaten ebazan norbaitek. Ori ikusi ondoren ermita gaur dagon tokian egin zan. Barandiaran'eri esan eutsen ermitara 218 arrizko mailla dagozala.

("El mundo en la Mente Popular Vasca" II J. M. Barandiaran)r



SANTA EUFEMI



SANTA EUFEMI



SANTA EUFEMI



SANTA EUFEMI

# SANTA EUFEMI'KO MAIORDOMUAK

Derio'n, Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibuan dagozan liburu-  
ruen artean, Santa Eufemi'ermitako maiordomuak emoten zituen  
kontu-liburua dago.

1823 urtean asten da.

Urte orretan, Doniane eleizako sakristian, bertako parrokoa-  
gaz, Jose Mari Kalle, Malax-Etxebarri eta Agirre baserrietako jau-  
bea eta Urizar Beko jaube zan Martin Antonio Jausolo eta Malax  
Kofradiko ainbat baserri jaube eta erreteru batu ziran.

Batzarreko gaia santa Eufemi ermitako maiordomutza zelan  
eroan, orrek eukazan eginbearrak garbi ipini eta ermitaren zain-  
tza eta limosnaren goraberatzaz jardutea zan.

Eta esandako liburua, batzar orretan artu ziran erabagiekin  
asten da.

Zortzi ziran artutakoak. Era onetan:

1.—Maiordomutza, orainarte lez, etxeka egingo da, bakoit-  
tzak urte oso bat, eta etxe guztiak txandan sartzen dirala, Eufemi  
deunaren jaiari asi eta urrengo urteko egunerarte, au da Irai-  
lla'ren 16'an asitar

2.—Maiordomuak arreata andiz zainduko dau ermita, garbi  
zaintzen aleginduaz, batez be deunaren jai egunean, bai eta  
meza eskintzeko aukera egon leiteken beste egunetan be; bertan  
ospatzen diran jai bietan argia ipiniko dau besperatik, eta jai-  
egun orreik eguraldi txarragaitik asteko beste egunen batera  
aldatu bearra egongo ba litz, egun orretarako gertuko dau. Eta  
zeregin origaitik urtean 80 errial (larogei errial) ordainduko jakoz  
limosnatan batzen dan dirutzatik.

3.—Santa Eufemi jai besperan, edo ta Meza egon leiken  
beste jaietako aurre egunean, ermita apainduko dau; aldarean  
erabilten diran iru zapiak garbi zabalduko dauz, bai eta Kurutza  
eta Kandela zuriak ipini be, eta meza emoteko jantzi gorriak, kali-  
za eta Misala otzara sarratu baten eroango dauz.

4.—Jai egunean, ukar (limosna) batzea iru lagunek egingo  
dabe, au da, aurreko urtean izan zan maiordomuak, urtekoak eta  
urrengo urtean izango danaren artean. Maiordomu orrei bakoitza-  
ri amabi errial emongo yakoez eta ez beste ezer, eta ezer artzen  
ba dabe ortik ordaindu bearke dabe euren kontura. Orren gora-  
bera zeatza emongo dau Maiordomuak bere kontuak garbitzean  
Santa Eufemi egunetik bigarren domekan parrokoaren aurrean

eta nai daben beste abade eta Kofradiako gizonen aurrean. Kontu garbitze au Parrokiko sakristian egingo da.

(Liburuan oar bat dago esaten, 1829'ko Bagilla'ren 11'an erabagi zala limosnetatik amabi errial orde, amarna artzea).

5.—Santa Eufemi eguneko mezako ukarra (limosnea) 28 errialekoa izango da meza emotera joaten dan eleiz-onetako abadearentzat, baiña janari eta abar bere k.onturako izango dira geiagoko barik. Sakristaue, eleiz-serbitsari ikasten dabillana ba da, edo ordenak artua eta Meza laguntzen joaten ba da, zortzi errialen laguntza emongo jako, baiña ez beste ezer. Eta abade-ikasketak ikasten asja ez ba da, peseta bat eta ez besterik.

Orrez gain, aletin egingo da tartetan eta batez be egualdi onetan, meza batzuk ataraten, bere egunean edo beste jaien baten, eta ori egin ezik, ermita aretan orrelako mezak emoteak lana emoten daualako, Gotzajzagaz berba egin ondoren, parrokian emongo dira meza batzuk.

6.—Dirua gordeteko kutxa bat egingo da giltz bigaz, bata parrokoak eukiko dau eta bestea Maiordomuak eta bertan gordetako dira batzen diran limosna guztjak. Dirutza ori ermita konpontzen, bidea konpontzen, mezak eskintzen eta eleiz-ate onetako benetako ezeukien artean eralgiko da eta uste-bagako beste zerbaitetan. Kutxa orretan, al dala, milla errial gordeta beti eukiko dira.

7.—Une onetan ermitarako bidea konpontzeko premiña dago eta aijnbat lasterren egin bearko da, orretan dakien gizonak erabiliaz.

8.—Len Maiordomu izan eta oraindik diruak aldian daukezanak, diru orreik ainbat lasterren emon bearko dabez, gauzak <sup>9</sup>arbi eukiteko.

Emoteko daukezanak oneik dira:

Jose Basterrita 85 errial

Joseph I. Arteatx 768 errial

Juan Mari Auzokua 172 errial

Pedro Onaindia 251 errial

Martin Espilla, abizenez

Ibarra 330 errial

Juan, Espilla andikoa 127 errial

Liburuan esaten danez, orrela kontuak garbituta geratu ziran eta urrengorako gauzak zeaztuta itxi.

Liburuan 1951 arteko sartu-urtenak ikusten dira, baiña asierako urteko kontu-emote au da zeaztasunik geien emoten dauzan agiria.





**ZENBAT MAILLA? NEKATU TA ATSEDEN ARTU BEAR**





SANTA EUFEMI ITURRIA



ETXEARRIA KANTERA



**SANTA EUFEMIAN POTSU BI BATAK BESTEA DIRUDI  
AULESTIAKO NESKATILLAK ANTXE EGITEN DABE IGARI**



**SANTA EUFEMI. BOLO TOKIA**



**KARE TOKIA**



**JAIO NINTZAN ILTZEKO. ALDI ORO NOA ILTZEN  
ILDAKOAN ERA BAT ASIKO NAIZ BIZITZEN**



**EMEN DAGO LENGOA EGIN DAIGUN GEROA**

# BIDETAKO KURUTZEA

Euskalerria Kurutzearen irudien zale da.

Kurutze ugari ikusten dira gure errian, ez bakarrik mendi tontor eta bide-kurutzetan, bai bere etxe eta kaleetan be.

Erri txikietan oiturazko da erri sarreran kurutzetakoak astea, amalaugarren geldia aldian eleiz aurrean lekutzeko.

Orrela garizuma ta Aste santuan, kurutze orrein gurtza egin izan da.

Aulesti'n be or dagoz arrizko kurutze lodi zazkarrak, arri lodietan egiñak. Igarten da erriko argiñak egiñak izango zirala, erri batzuetakoan trebetasun, apaindura, gogoragarri eta txukuntasun barik.

Amoroto eta Aulesti'ko kurutzak bardin antzekuak dira. Lodjak, betirako egiñak lakuak.

Noizkoak diran?

Eguraldiak illundu eta zar itxura emonda ba daukez be, ba dirudi 1893 urtean asi zirala egiten.

Au da, azken baten ez dirala itxuraz dirudien aiñako zarrak.



:1 ifá,



**KALBARIOKO KURUTZEA**

**KALBARIOKO KURUTZEA**




**KALBARIOKO KURUTZEA**



**SAN JUAN**





---

### III - URTEETAKO GORA BERAK

---



**AULESTI**



# IGOTZ ETA MEABE MENDIEN JAUBETASUNA

Mendi onein jaubetasunak auzi luze bat sortu eban, alde batetik Murelaga, Nabarniz, Ereño eta Aziro'ko ledan;ako bizilagunak eta bestetik Markiña'ko uriaren artean.

Auzi au dakarren liburua Derio'n dago, Bizkaiko Eleizaren histori Arkibuan, inguru onetako agirien 13.04 zenbakiagaz.

Liburu zarra ba;ña ondo zaindua da.

An irakurten danez, 1553 urteko Maiatzaren 3'an, Bizkai'ko korrexidore izan zan Tejada lizenziaduaren etxera, Murelaga, Nabarniz eta Ereño'ko errien izenean, Arteaga-Malax'eko Martin eta Espilla'ko Fortuno joan ziran, Markiña'ren aurkako salaketa egiten.

Ordezkarriak esan ebenez, Igotz eta Meabe'ko lurak eleiz-ate orreiñak ziran edo ta euren senide Aziro'ko Lendaniatarrenak, antxiñetatik eta bear lez mugatuta egozala, Markiña'gaz ze ikusi eukenetan toki oneitan. Mugak onela egozan: Zubegiaga izeneko Kareaga inguruan dagon usotegi atzetik asi eta eskumatara Meabe'ko Onaindia etxearen atzean egoan beste mugarri baterarte, eta andik zuzen Igotz mendian dagon Arrendunaga izeneko beste mugarrirarte, eta andik zuzen Lazurika etxean dagone-rarte; eta andik zuzen Olariaga'n dagon beste mugarrirarte. Mugarri oneik dira alde batera eleiz-ateen jaubetasuneko lurak bereiztuten dabezanak eta beste aldera Markiña'ko uriari dago-kiozanak.

Orrez gaiñera, mugarri orreik Busturia'ko merindadea laga-ten dabe albo batera eta bestera Markiñako merindea. Ori be agertu eben.

Eta alaxe oitura ebela baketan mendiak zaindu, garbitu, abereak bertako zelaietara atara, bertako urekaz baliatu gana-duentzat, iñor mindu barik eta Markiña'ri zer esanik emon barik eurretan ibil;az.

Baiña markiñarrak eizara joaten zirala euretara, mendi eta lurretan kalteak egin be ba; eta mendi-zaindariak eta gizonak batu eta txarriak euretara eroaten ebezala batez be ale eta ezkur denporetan, bertan gizontzera.

Eta orain jakin dala, egun gitxi dirala Markiña'ko udalak aldatu egin dauzala eskutuan esandako muga orreik, mugarri zarrak eleiz ateen lurraldetan barrurago sartuaz, ezelako eskubide barik eta ezelako kalterik ez eukela.

Origaitik Korrexidoreari eskatu eutsen gai onetan bere eskua ezarteko, bearrezko eta legezko zan zuzentza egiñaz.

Ori orrela, eta Korrexidorearen eskaria beteaz, erri batzarra egin zan eleiz-ateetan, esandako iru lekuetan, aukeratzen ziran ordezkariet, legezko ordezkarietza emoteko.

1553 urteko iraila'ren 3'an egin zan Aulestin batzar ori eta Martin Iturrioz eta Arteaga-Malax'eko Martin aukeratu ziran. Ain zuzen gizon bi oneik ziran urte aretako Aulest;ko "fielak".

Orren ondorenez auzia asi zan eta urrengo urtean agertu zan erabagi bat, esandako mendjak eleiz-ateenak ziralda egiazta-tzen.

Jakiña, nekez geratzen dira errjak lenengo erabagiagaz, eta Markiña'k goragoko auzitegetara jo eban.

Orrelako erabagiak ez dira berealako baten argitzen eta batean bat, bestean beste, azken baten Balladolid'en emon zan erabagia 1625 urteko iraila'ren 19'an eta oraindik be gauzak argi eta zeatz lagateko, azken erabagi bat bear izan zan 1626'ko Martia'ren 13'an, jakiña, eleiz-ateen alde, au da Bizka;ko lur deitzen ziranen eleiz-ateen alde.

Beraz 73 urte iraun eban auziak.

Gernika'ko Batzar Nagusietako Etxeko artxiboan billatu eta aurkituta iru agiri akta daukaguz, emengo egoera azaletik beintzat erakusten dabezanak, eta emengo bizitza eta merkataritza erakusten dabezanak.

Oitura zan tartetan, errjetara begiraleak bialtzea, inspekto-reak urreratu eragitea, errietan egozan alkateei, orduan "fielak" deitzen zirane, euren aginte denporetan zelako ardurea euki eben aztertze, batez be aldi aretan alkati-ent konturako izaten zan muga eta bideak zaintze eta merkataritzari buruzko auzietan.

Jakiña da aldi aretan alkateak urtero aldatzen zirala. Origaitik lau, bost urtetako alkateak sartzen ziran euren ikustaldi bakoitzeko sarean.

Aktaetan garbi igarten dira emen egozan errota, taberna, arategi, ostatus-etxe, denda eta abarrei egiten eutsezan ikertaldiak eta ezarten eutsezan zigorrak, batez be pixuen goraberan, jokoan jardutearren eta abar.

Ortik dakigu 1630 urtean beintzat amar errota egozala:

Aulestia torrekua,

Auzindor,

Bolungoa,

Errotatxu,

Ganboa,

Ibakatx,

Ibarrola,

Jauregi,

Olazarra eta

Pagodiaga.

Bost urte geroago, 1635 urtean, amar errotak jarraitzen dabe. Amar errotak jarraitzen eben, baiña Olazarra eta Ganboa ez dira izen orreikaz agertzen eta euren orde z izen barriak irakurten dira: Abaden bolua eta Ibarrola beko.

Urte onetako aktan esaten da errotak euren lan orde anega gariko lau libra kentzeko oitura eukela eta anega artoko bost libra.

### **1639 urtean.**

Amar ordez bederatzi errota agertzen dira eta euren izenak onela datoz:

Aulestia torrea,  
Aunzindor,  
Ibarrola goiko,  
Ibarrola beko,  
Ibakatx,  
Narea san Juan,  
Olatxua,  
Urriola beko,  
Urriola goiko,

### **1635 urtean,**

albeizar bat egoan: F. Calle,  
Jostunak iru: Ibatao'ko aita, Ibatao'ko semea eta Arangoena,  
Taberna bi,  
Abazeri edo txirtxildegia denda bat,  
Arategi bat,  
Ostatu bat,  
Koipeki saltzaille bat,  
Ogitegiak iru: Katalin Zetokiz, Uxola Telleria eta Garaurkoa,

### **1639 urtean.**

Denda txiki bat egoan, Franzisko Larrea'rena. Eta Larrea berberak eukan erriko arategia eta bai erriko taberna bat.

Tabernak bi egozan, eta bigarrena Maria Gizaburuaga'ren izenean egoan.

Andra onen izenean egoan baita be erriko ostatu-etxea, bai eta koipeki-denda be.

Ogitegiak bost agertzen dira: Katalin Zetokiz, Uxola Telleria, M.<sup>a</sup> Galarraga, M. Argiarro eta Marina Ibakatx.

Ba egoan osalari-zirujanu bat be: Frantzisko Soloaga.

Zapatariak bi, Simon Urriola eta Mateo Angixkoa.

Iruleak b<sub>j</sub>: Narea'ko Katalin eta Narea berbertako Pedro'ren emaztea.

Jostunak bi: Domingo Ibatao eta Arangoena.

Begiraleak, inspektoreak esan eben, ba ekiela tabernetan neurri txarra erabilten zala eta orren goraberan kexa asko eldu-ten zala agintariekana.

### **1658 urtea.**

Aldi aretan noz-nai egoten zan gure errietan erbestekoen erasoaldien baten kezka eta larritasuna. Origaitik etxeak eta baserriak armaz gertuta egoten ziran, eurak erabilteko gaikiakaz.

Urte onetako san Juan jaietan gerrarako gertuta egon bear eben guztien agerpen edo erakusketa bat egon zan.

Kalean batu ziran, eleiz aurrean, Korrexidorea be bertan zala, etxe eta familjetako ordezkariak, eukezan eta zaindu bear ebezan arma tresnak erakutsi ta euren ezaupidea emoten.

Geienak bakoitzaren arkabuza ekarri eben eta lerkaritzat erabilten ebezan "frasco y frasquillo" esaten da paperetan. Orrez gain libra bat lerrauts (polbora), beste libra bat soka, eta ogetalau bala, kañoiarentzako egokiak eta ezpatea.

Larogetak lagun batu ziran gerrarako gertu egon bear ziran artean eta bear zan alardea egin ondoren, armak Udaletxean gordeteko agindu zan, gertaera bearrik izan da bertan alkartu eta andik danak batera errezago urten al izateko.

Erri guztietan egoten zan gerrarako arduradun bat eta emen Juan Otxoa Aulestia zan, izen orretako torreko jauna.



**ERROTATXUKO PRESA**



# XVIII-XIX GARREN GIZALDIETAN

Amazortzi garren gizaldiaren azkenetan, Aulesti'ko gorabere-tan, zeaztasun oneik irakurten dira:

Amaika errota agertzen ziran.

3 burdin-ola txiki.

10 ermita, oraindik san Esteban osorik egoanr

6 zubi arrizko eta egurrezko zubi-arin batzuk.

Taberna bi egozan,

Osalari-zirujanu bj.

Orrez gain "batan" bat agertzen zan, bertako pelaire batzuk egiten eben mnairaguan laguntzeko.

Bai eta bakoitzetik bat beste arlo oneitan: Arategia, abazeria, botika, telleria, eskola, bola tokia eta abar.

Erri guztiak eukiten dabez euren artu-emonak bestekoekaz. Ortik etorten dira maitasun sortzeak. Ortik erri-tratuak, odol barriak errian sartzeak eta abar.

1826 urteko erriko erroltze bat Gernikako Batzar Etxeko beko artxiboan dago, 22 zenbakiagaz.

Urte aretako erroltzean, padroian, 1.121 lagun agertzen dira bertako bizilagunen artean.

Kopuru orretatik %84 dira jaiotez bertakoak, au da, guztira 945 lagun. Beste 171 lagun bizkaiko errietatik etorriak dira. Ara nundik:

13	Amoroto.	2	- Gernika.
1	Arrankudiaga.	3	- Ibarangelua.
1	Arratzua.	1	- Ibaruri.
7	Arteaga.	1	- Ipazter.
1	- Barinaga.	3	- Kortezubi.
1	é Bermeo.	1	- Lekeitio.
10	- Berriatua.	2	- Mendeja.
5	- Bilbao.	23	- Markina.
7	- Bolibar.	8	- Munitibar.
1	- Durango.	19	- Nabarniz.
1	Elorrio.	1	- Natxitua.
4	- Ereño.	3	- Ondarroa.
7	- Etxebarria.	12	- Xemein.
5	- Gerrikaiz.	1	- Igorre.
10	- Gizaburuaga.	17	- Ziarrotza.

Zortzi dira danetara Gipuzkoatik etorriak:

1 - Azkoitia.

1 - Azpeitia.

3 - Deba.

3 - Elgoibar.

1 - "gipuzcoano" jarten dau, nungoa dan esan barik.

Arabarrak bi dira, bata Gamarra'kua eta bestea Miñanokua.

Irakaskintza kontuan esan bearreko da, ainbat eskola adiñeko ume egonarren, amazazpi lagun danetara agertzen dirala eskoletan urte aretan, euretatik amaika mutil eta sei neska.



**LEZATE**

# FRANTZETARREN DIRU ESKABIDEAK ETA MURELAGATARREN LARRITASUNAK

1810 garren urtean, Martian, Thouvenot frantzetar generalak, Bizkaiko gobernadore lez, agindu bat emon eban errietara, erri bakoitzeko ondasun, sarrera eta abarren zeaztasunak ainbat lasterren emoteko, bai eta bertako etxeen ondasun eta egoerari buruzkoa be.

Origaitik, oitura zan lez, mendi- zaindarieskaz baserririk base- rri deia zabaldu zan eta illaren 25'an batzar orokorra egin zan eta bertan iru ordezkari aukeratu ziran zeregin ori beteteko. Ordezkariak oneik ziran: Migel Malax- Etxebarria, Juan Manuel (bañez Aldekoa eta Juan Iturrioz Kalebarren.

Andik egun bira asi ziran etxe jaube guztiak Udaletxean agertzen eta euren autorpenak egiten.

Zeregin ori amaitu ebenean, Apirilla'ren 8'an, Udaleko gora ca azteftu eben eta euren agirietatik ikusten danez, Murela- ga'ko erriak ez eukan ezelako petxarik eta zergarik erritarren aurka ezarrita, tabernari biak egiten eben ituna baiño besterik, eta gero, beste guztia, urtean egiten ziran zorrak kittutu al izate- ko, etxe guztien artean banatzen zituezan, bakoitzaren neurrian.

Ba eukezan erriak basoetako sarrera batzuk, bai eta beste gastu oi batzuk. Baiña ez ziran urteko ordaindu bearrak aiñako dirutzara eltzen.

Azken urteetan, gerra zala-ta, gerrako eskabide, soldaduen- tzako janari eta jantzi eta abar aitzakitza artuta, bat bateko eska- bideak erriak zoratuta lagaten zituezan, dirutzak nundik atara ez ekiela, eta origaitik zor ugari egitera beartu, etxeak be zorpean geratzen zirala.

Ara, adibide baterako, 1799 urteko sarrerak eta ordainbea- rrak, erriak ze eratan jokatzen eban ikusi eta konturatzeko.

# 1799 URTEA

## MURELAGA'KO ERRIAREN EGOERA:

### SARRERAK

Mendiak 800 karga ikatz emoten zituen urtean, gastuak kenduta bakoitza lau errialetan .....	3.200 errial.
Tabernak.- Bost urtetan, urteko batez beste erriari ordaintzen eutsen dirutza .....	1.400 errial.
Aguardienteak. Kontuan euki urte batzutan galarazo egiten zala bere salmenta, kaltegarri zala-ta, eta origaitik bera banatzeko eskubidea artzen ebanak, batez beste urtean emoten ebana .....	1.400 errial.
Ibakatx sobaren errenta .....	154 errial.
Atarrakoa etxearen errenta .....	154 errial.
Armaringoa etxearen errenta .....	176 errial.
Armaringo etxearen sobaren errenta .....	44 errial.
Ospitalaren errentagaitik .....	44 errial.
Mendietako gaztañeagaz urtean artzen dana .....	200 errial.
Gaituak on ikusia emon ondoren, mendietatik etxegintzarako ataraten dan egurrak .....	400 errial.
Basoetatik ataraten dan etxetarako saltzen dan sutarako egurra .....	200 errial.
	=====
Erriko sarrerak guztira	9.972 errial.

### ORDAINDUBEARRAK

Parrokiak aurreratuta eukan zentzo baten ordea	577 errial.
Antonio Bolibar'eri, zentzo baten ordeaz .....	264 errial.
Lekeitioko dominikar monjaei .....	264 errial.
Domingo Urizar erritarrari .....	330 errial.
Min de Legarra, abadeari .....	84 errial.
Erriko eskola maisuari, urteko saria (L. Egilaz) ..	2.200 errial.
Osagille zirujigillari (Lorenzo Labadia) .....	2.200 errial.
Beste medikuari (P. Alvarez) .....	0.800 errial.
Erriko idazkariari .....	0.300 errial.
Orduari egillari eta bera zaintzen eban Legarra abadeari .....	0.300 errial.

Parrokiari, Aste Santuko lau sermoien ordez ..... 120 errial.  
 Juan Bengoa'rj, aste santuko sermolariaren  
 ostatu ordez ..... 220 errial.  
 Bizkaiko Diru Arduradunari, urtero ordaintzen  
 jakona .....2.784,17 "  
 Lapurren jazarpenerako ..... 107 errial.

=====

Ordaindu bearrak, guztira 10.550 errial.

Orrela, erriaren kaltez geratzen dira 578 errial. Eta oitura zanez, erritarrak, bakoitzak zeaztuta eukan neurrian ordaindu bearko dirutza orren kittapena.

### ERRIKO ZORRAK

Goragoko zerrendan garbi ikusten da erriak zentzoak eukazala, erakunde batzutatik eta erritar batzuek aurreratu eutsezan diruenak.

Ain zuzen, gorago agertzen dan urteko kontuan ikusten dira nortzuk diran diru-aurreratze ordeaz mozkiñak artzen zituenak.

Gauzak zeatz eta garbi agertzeko, 1.810'eko kontu emotean, guztien izen eta deiturak agertzen dira.

Ara:

Parrokiari, 1771 urtetik, 23.100 errial zor eutsazan, euneko 2,5 tan artutako zentzo baten ..... 23.100  
 Beste zentzu txiki bat be ba eukan parrokiaren alde .....366,23  
 Bateko ta bestekoeí kendutako dirutzak:  
 Lekeitio'ko dominikar monjaei 8.800  
 Zenaruzako Juan Antxiari 13.200  
 Txomin Urizar'en oñordekoei 11.000 33.000  
 Beste estutasun baten Parrokiak aurreratua ..... 14.000  
 Beste bat, gerrarako mutillak eskatu ziranean,  
 gizonik ez eroatearren egiña, guztira ..... 16.632

=====

Azken zati ori banatzen da:

Juan Iturriz Kalebarren'en aurreratua ..... 4.400  
 Juan Zearrak ..... 2.200  
 Manu Solaguren'ek ..... 2.200  
 Iñazio Meabe Ansorenak ..... 1.100  
 Franzisko Landaburuk ..... 1.100  
 Iñazio Alzelai'k ..... 1.100  
 Jose Itzak ..... 1.100

Domingo Olabarriak .....	550
Markos Aranburuk .....	550
Silbestre Korpion'ek .....	550
Zor diran mozkiñak .....	1.782

Zeaztasun oneik ezagutuaz, garbi ikusten da Murelaga'ko erriak, zorrak ordaindu edo kittutu al izateko, edo obeto esanda, premiñetarako eskatutako dirutan daukan zorra, guztira, kopuru au dala: ..... 87.098,23

Au da, larogei ta zazpi milla ta larogei ta amazortzi errial eta ogei ta iru marau (marabedi).

Gogoratu bearreko da, aldi aretan egin ziran gerrarako eskari eta bat bateko estuntzak, erri asko erabili zituela benetako larrialdiak igaroten, eta erri askok orduko ondorenez, euren ondasunak saldu bear izan zituela, orrelakoetan oi dan lez egin bear izaten diran tratu estuetan.

## Gero ta estuago

Urteak aurrera eta erriko egoera ez zan nasaitu.

Bigarren karlistadak, batez be, zotin andia eragin eban Murelaga'ko erri-diru eta ondasunetan.

Gerrako gastuetan erria 970.513 errialetako dirutzen ordainbearrak eukitera eldu zan. Eta 300.000 errialetatik gorako zorra eukitera.

Ez eukan beste urten biderik, larrialde orretatik urteteko, erri-lurrak saltzea baiño. **Usaak** izenagaz ezagutzen ziran lurrak geienak.

Orretara saltzera ataraten ziran lurrak mugatu ziran. Eta 171 lur-zati saldu ziran. Erriko lurretako zatirik onenetarikuak.

Zeintzuk izan ziran erosleak?

57 zati kaletarrak erosi zituen. Beste 112 zati baserritarrak, eta beste 25 lur zati zortzi lagunen artean.

Ibarrola auzoko baserritarrak izan ziran geien erosi ebenak. Ogei ta iru etxeren artean 32 lur-zati erosi zituen. Bajña etxe bakoitzeko jota, Zuberotarrak izan ziran geienak. Auzo onetako bost etxeren artean, 25 lur zati eureganatu zituen.

Malaxtarrak, iru etxek, zazpi lur zati. Urriola auzokoak, lau etxek sei lur zati. Goierritarrak, bost etxek, zazpi lur zati.

Nareatarrak, bederatzi etheen artean amabi lur-zatiren jaube egin ziran eta san Anton auzoko zazpi etxek beste amairu.

Alaz eta saltze oneik legeko ziran edo ez nastea sortu eta zabaldu zan eta orrek urteetako atzerapena eragin eban Udaleko zorren kittapenean. Erosle batzuk ordaindu zituen eurenak. Beste batzuk, bildurrez edo al bestean luzatzearren, ukatu egiten ziran ordaintzera. Eta igarri zan Udala bera be ezin zala gogortu, legeko ete ziran edo ez ezpaian ebillalako.

Azken baten lortu zan konponketa bat. Amar urteko epea artu eben ordurarte ukatzen ziranak euren zatiak ordaintzeko. Epe ori 1921 urtean amaitu zan eta urte berean kendu zan Udalak eukan gerrateko zorra.

Lur zati oneik saldu arte Udalak 676 hektarea eukazan erri-lurtzat. Salketa orreik 229,5 hektarea beteten eben. Origaitik gaur, erri-lurrak, 447 hektarea dira eta lur pendiz, atxarte eta egokitasun gitxikoak geienak.



**ZIERRE**

# ZORRAK ETA LORRAK

XIX garren gizaldiaren asiera, larria izan zan emengo etxe askorentzat. Orduko gerrak zirala-ta sarri eskatzen eutsezan erriei gerrarako laguntzak, bai janarietan, jantziétan, edo ta dirutan, erriak ezin bestean itxita.

Bear ba da ortik etorriko zan egoeraren asiera.

Urteak lenago be zorrak ezagutzen ziran etxe askotan. Baiña 1810 urtean, Thouvenet frantzetar agintari militarrek aginduta, etxe guztiei banan-banan deitu, ze sarrera eukezan autortu eragin eta euren egoera azaldutean, etxerik geienak zorretan egozala autortzen eben.

Benetako zorrak ete ziran, edo ta urtean urtetako eskabideo-kaz leporaiño beteta, puztu egiten ete ebezan emengo etxeak eurek eukezan zorrak?

Kontuan euki bear da gaiñera ez zirala bakarrik etxe jau-beak orrelako egoera agertzen ebenak. Errenteruak be, batzuk etxearen loturak eurengein eukezala edo beste aitzakien bategaitik, zorretan egiten eben euren autormena. Ikusten da jaube edo errenteru, famili guztiak sarean sartzan ebazala gerrateko eskabide eta zorrei erantzun bearrak.

Eta zorrak zeineri? Nor ete zan garai aretan iñorentzat esku zabal agertu eikeana?

Batzuk eleizeari, beste batzuk erritar edo ingurukoei, konbentuei eta abar. Ez bakarrik baserritarrak, bardin kaletarrak be.

Udalak berak, erriak berak, urte orretan agertutako kontuetan esaten eban, Parrokjari 70.466 errial zor eutsazala eta beste erritar batzuei 16.632 erriaf. Beraz Udalak berak 87.098 erria) zorretan eukazan, erantzun ezinez.

Etxeen artean, 75 etxe ziran zorretan egozanak.

Zorrik bakoak 60 etxe izan ziran.

Zordunetatik 53 etxe jaubeak ziran. Beste 22 errenteruak.

Guztira zorra, udalarena kenduta, 41.865 dukatena agertu zan. Kontuan euki len esan dogun lez 75 etxe zirala zordunak. Ortik ikusten da bakoitzak 558 dukat zor eukazala.

Zeaztuten asi ezkeru esan bearrekoa da, zor guztiaren erdia baiño geiago, amaika etxeren gain egoala.

Amaika etxe orretatik. zazpi etxek milla dukatetik milla ta zortzireun bitarteko zorrak eukezan.



Beste iruk, batek 2.100, besteak 2.000 eta irugarrenak 2.530. Eta ortik gorakoa bakarra zan. Bederatzi milla eukazan berak bakarrik zor eta ez zan etxe jaube be, errenterua baiño.

Edozetara be ez dakigu gero zor orreik eragiñik eukiko eben edo ez. Baiña gauza bat ezin ukatua au izan zan: Frantzetarren gerrako eskabideak zotin andia eragiten ebela etxeetan, eskabideak erruki barik egiten ziralako eta orda;ndu barik ezin geratu zalako iñor, zigor andiagoen bildurrez, eta erriak eurak eukezan ondasunak ipotekatzer a eldu ziralako, azken baten erri-tar askoren kaltean.



**AULESTIKO JIGANTEA**

# MURELAGA 1826 URTEAN

Urte onetako erritarren zerrenda bat aurkitu dogu Gernikako Batzar Etxeko Artxiboan. Beko Artxiboan, 22 erroltzea daukana da.

Urte orretan 1.112 bizilagun bizi ziran Murelaga'n.

Danak euskaldunak.

Euron banaketa egitean, ikusten da bi dirala arabarrak. Bata Gamarrakoa eta bestea Miñano'tik etorria.

Gipuzkoarrak bederatzi dira danetara.

Azkoitiarrak	1
Azpeitiarrak	2
Debatarrak	2
Elgoibartarrak	2

eta nungoak eztakiela, baiña gipuzkoarrak lez agertuta, beste bi.

Beraz milla eun eta amabi bizilagunei, arabar bi eta bederatzi gipuzkoar kendu ezkerro, milla eun eta bat bizilagun bizkaitar geratzen dira.

Bizkaitarretatik 162 dira errietatik bertara etorriak eta beste 939 Murelaga bertakuak diranak.

Jakingarri lez adieraziko doguz bizkai-errietatik etorriak nungoak diran:

Amoroto	10
Arteaga	3
Arrankudiaga	1
Arrazua	1
Barinaga	1
Bermeo	1
Berriatu	11
Bilbao	5
Bolibar	6
Durango	1
Elorrio	1
Ereño	4
Etxebarria	6
Gernika	2
Gerikaítz	4
Gizaburuaga	10
Ibarruri	1
Ibarrangelu	1

Ispazter	1
Kortezubi	2
Lekeitio	1
Markina-Xemein	34
Mendata	1
Mendeja	1
Munitibar	9
Nabarniz	21
Natxitua	1
Ondarroa	2
Yurre	1
Zenarruza	19

Murelaga, ia bere osotasun guztian, baserri erria da, beraz lur-giñak eta baso lanetan dabiltzanak dira bertako ogibidedunak. Ortik kanpora zeaztuta datozen ogibide edo bizibideko ardurak oneik dira:

Abadeak	4
Armagille	1
Arotz	7
Argjn	7
Alogereko	1
Beartsu andi	1 (pobre de solemnidad ipinten dau)
Baster jaube	1
Dendari	2
Errementari	1
Errementari- teinkari	2
Errotari	8
Eskale	1
Eskola maisu	1
Eunlari	16
Galtzerdigille	2
Gozoegille	1
Galdari	1
Ikasle	1
Ikazgin	3
Jostun	13
Jarrileku egille	1
Kardagin	3
Labari	2
Lastagaille	1 (marrageru)

Mandozain	7
Nausi-gaj	1
Ozkgille	2
Osagille	1
Ozkalari	1
Ogi-egille	2
Ostiatim	1 (karidadez bizi zanar 90 urteduna zan).
Organu jotzaille	1
Serbitsariak	10



**BEKO ITURRIA**

# LENENGO IRAKASKINTZA

Nekez asi ziran gure erriak irakurri eta idazten ikasten. Erri askoren gaitza zan eta etxe eta auzo banatuak eukezan erriena geiago.

Kalean ikasten zan zerbaitr Ori igarten da beintzat. XV garren gizaldian Basabe tar bi ezagutzen dira errian, biak be bertako eskribadu izan ziranak.

XVI garren gizaldian be or ikusten dogu Ibitao'ko Errodrigo, errege-eskribadu lez ingurutako agiriak eta itunak jaso eta egi-ten.

Erriak, egja esateko, bildur eutsan irakaskintzari. Bildur euki-teko zan gaiñera, kontuan eukita orduko maixuen erakusteko era eta eurek euken eslogana: "letrak makilleagaz sartzen zirala".

Beste aldetik jakiña da baita be mutillei bai baña neskei era-kusteko gogorik ez zala igarten "goikoen" artean. Neskei irakur-ten bai, baiña idazten ez, esaten zan. Aitzakietako bat au izaten zan: idazten erakutsi ezkeru, ordu asko igaro eta galduko ebela mutillei kartak idazten.

1820 urteko erroltze bat eskuetan euki dogu. Milla ta eundik gora bizilagun eukazan orduan eleizate onek. Eta amaika mutil agertzen dira eskoletan ebiltzan lez eta beste sei neska. Eta kon-tuan euki 16 urtetik iru urtetarako aldiko umeak dirala orrela ebiltzanak.

Ebizen teoriekaz ez da arrigarri onelako errietan "jakitun" asko egonarren, ekiena paperetan agertzen ez ekien asko bizj-tzea.

Aulesti'ko irakaskintzaren barri 1789 urteko erroltzeak eta zerga kontuan egin ziran autorpenetan igarten da.

Urte orretan banan-banan igaro ziran baserri eta etxeetako jaubeak, arduradunak edo erreteruak ordaindu eta artzen ebenaren dirutza autortzen, eta banakak izan ziran bakoitzari idazten eutsen agiria firmatzen ebenak. Askok ez eben zeregin ori beteten firmatzen be ez ekielako eta erbestetik etorten ziran ordezkari-entzura lagaten eben firmatzea.

Auzo eta Kofradiak kontuan artuta, onelako jakingarriak batzen dira, bertakoak autortu ebenaren araberan:

**Malax.** Jakin erasoten da kofradi onetan ez ugazabak eta ez erreteruak ekiela eskolarik, beraz batu ziranak eta autortza egin ebenak ez ekien zer ipinten eben be eta esaten eutsenagaz geratu bear. Bat bakarrik ez zan egon firmatzen jakin ebanik.

**Zubero.** Kofradi onetan Goitiandiko baserriko jaubea zan Joseph Goitiandia izan zan firmatzen ekian bakarra. Beste jaube eta erreteruak iñok be ez.

**Urriola.** Kofradi onetan bi izan ziran firmatzen ekian: Antonio Urriola Aizakoa eta Juan Zierra.

**Zetokiz.** Emen ba egozan izenpetzen ekien batzuk. Ango "eskoladuak" Juan Arriola, Martin Kareaga, Domingo Goitia-Garetxana eta Juan Baupista Iturriza izan ziran.

**Narea.** Kofradi onetan bakarra izan zan firmatzen ekiana eta Arangoena baserriko jaube zan Juan Baupista Arangoena izan zan.

**Solaguren.** Emen be bakarra izan zan agertu ziranetatik firmatzen ekiana: Basterretxe baserriko jaube zan Juan Solaguren.

**Gizaburuaga bidea.** Auzo onetan iñork ez ekian firmatzen.

**Goierri.** Emengorik be ez zan iñor agertu eskolan ekianik.

**Angiz.** Auzo onetako etxeetatik Pedro Bengoa izan zan ekian bakarra.



**IBAÑEZ DE ALDEKOA**

# ESKOLA MAISU

## BARRIARENTZAKO BALDINTZAK

### 1831 urtea

Udalak izentauriko Batzordeak aukeratu dauan Jose Maria Txarroalde Maisu barrjari bere zeregiñerako ipinitako baldintzak, Udaletxean gordeten diran araberan, eta Milla zortzireun eta ogeita amaikako apirilla'ren 1'an asteko.

1. Atala.—Murelaga elejz-ate onetako eskola, ortako araudian laugarren maillakoen artean ba dago be, kontuan eukita geien ordaintzen dana ez ba'da be bai bere saillean gejenetakoa dala, Eskola Maisuak osotasunez bete bearko dau Eskoletako plangintza orokorrean Erregeak 1825'ko otsaillaren 16'an ontzat artutakoa.

2. Atala.—Jai egun gertaten ez diran zapatu guztietan, egualdjak lagundu ezkerro, errosarioa abestuten ibiliko da kalez kale eskolako umeez, berbera buru dala.

3. Atala.—Ez dautso iñori itxiko eskoletan sartzen bertan errolduta ez ba dago, iñor okertu ez dagien, eta zeatz bete ezik, aukeratuta geratzen dan Begirale Batzarrak bere neurriak artuko dauz ori zuzentzeko.

4. Atala.—Maisuaren bearra da umiei gaztelania erakustea, orretarako erastunekin eta beste era bigunekin baliatuaz, eta aibat ariñen meza erazotea laguntzen erakutsiko dautse.

5. Atala.—Eskola orduak egunean sei ordu izango dira, au da, iru ordu goizean eta beste iru arratsaldean, Araudiak agintzen daben eran, eta apiril maiatz, bagil, uztail, dagonil (abustu) eta iaillan, sarrera-urteerak goizean zortzirak eta amaikkak izango dira, eta arratsaldetan ordu bjak eta bostak, eta beste illetan goizean zortzi ta erdiak eta amajka ta erdiak eta arratsaldetan ordu bat eta erdjak eta lau ta erdiak. Erriko Udalak, edozejn alditan, beste orduren bat egokiago ikusiko ba leu, aldatu al izango dau ordutegi ori.

6. Atala.—Zainduko dau eta ori lortzen aleginduko da, eskoletako umiak barruan edo kanpoan ez daitezala nasteak sortzen ibili edo ta eleizan iñor beretik ataraten, batez be eraspenez egon daitezala aleginduaz. Era berean aleginduko da kanposantuan pelotan jokatzan ibili ez daitezana, eta zaratarik be atara ez dagien eleiz-inguruan.

7. Atala.—Ez aita, ez ama, ez beste inok, Begirale Batzarrekuak ezik, ezingo dau Maisurik gaiztetsi edo bere aurka ezer esan ipinten dauzan zigorrekaitik edo zemaiekaitik, komunitadeko zeregiña daukan inor ezin leikelako gaiztetsi, komunitade berberak ezik, eta Begirale Batzarra gai onetan Komunitadearen ordezkari izanik, inoiz ikusten ba da Maisuaren zigorra zuzena ez dala eta ortik umeei euren osasunean kalte eta gaitzen bat datorkiela, gai onetan gurasoak edo euren ordezkariak Begirale Batzarrari agertuko dautse zer gertatzen dabe, bera jaubetu daiten auziagaz, eta auzja aztertu ondoren zigorren ordezkari bear dan neurria artu dagian.

Bertan dago Jose Maria Txarroalde maisu barría eta goian izentauriko batzordearen atalak jakin ondoren, ontzat artzen dauz, euretan esaten dana beteko dauala aginduaz, ala egin ezik berak be ordezkari zigorra artuaz.

Batzartuen artean firmatzen dakienak ala egiten dabe, bai eta Maisu berberak be, Murelaga'n, 1831'ko Martiaren amabian.

Baldintza oneik Udaletxeko Artxibutik kopiatuak dira.

Ikusten danez, Murelaga'n be modan egoan gaztelania ezin ikasita euskeraz egiten eben umee; erastuna ipintea. Eta ori, lotsaritzat erastuna ipini eta gero zigortutea, 4 atalean esaten dan lez, zigor **biguntzat** eguan.



GOIERRI'KO IKASTOLA



# SANTA KUTZ ABADEA

## AULESTIN, 1873 URTEAN

Santa Kutz abadea, karlisten gerratean buruzagi ospetsu eta entzutetsu ta bildurgarri izan zana, 1873'ko urtarillean sartu zan Bizkaian eta ain zuzen be Berriatu aldetik.

Juan Olazabal eta Ramery'k idatzitako "El Cura Santa Cruz, guerrillero" liburuan, Bizkai aldeko joaldiari buruz eta bereziki Aulestikoari buruz, au esaten da bertako 184-187 orrjaldjetan:

Itxuraz Bizkaira era onetan sartu zan Santa Kutz gerralaria.

Deba'ko zubitik, Iztiñaga baseritik Olabarrieta'ra igo zan, Arribiñitz tontorrera (Mutriku'n) eta andik Olatzera.

Gero Kostolamendira igo eta Armentxa'tik zear Iturrino, Legarregj, Urdanoleta'k igaroaz, Montetxutik Berrjatu'ra, erraziño billa eta gaua igarotera.

Andik Andonegj'ko zubitik zear Lakagoj'kora eta Ataun biak eta Ituiño'tik zear, santa Eufemi'ra.

Emen banatu ziran.

Batzuk Murelaga'ra jetxi ziran, besteak Bolibarrera.

Aulesti edo Murelaga aldekuak batzuk Nabarniz'era igo eben, Gernika'begien aurrean euki naian eta besteak Arbazegi'ra (Ojz'ko bidean).

Bestalde Bolibar'kuak Zenarruza'ra, danak Oiz tontorrean batzeko asmotan.

Gero Kortaguren zear atzeratu ziran Geria'ra, beste batzuk Ibarruri'ko Unda'ra.

San Kristobal ermitatik Mallabi eta Ermu aldera biurtu ziran, andik Upo Mendira, eta Aginaga eta Barinaga'ra.

Gero Max gaiñetik zear Ube'ko zelaietatik, San Pedro ballara eta Arrate'ra.

Emendik Elgoibar eta Maltzaga'ra.

Ori da karlistak inguru onetatik egindako ibillera eta Jeronimo Irusta, Asterrikarrak, karta baten agertua.

Baiña Aulesti'ko gorabera, emengo abade laguntzaille izan zan 84 urtedun Jose Maria Aboitiz jaunagandik jasota, Arritola'tar Eustas'ek adierazitakotatik dakigu.

Santa Kutz abade entzutetsu orj, ia batalloe bat izan eikean bere taldeagaz, Santa Ageda besperaren aurreko egunean sartu zan Aulestj'n, 1873'ko otsaillaren iruan, gabeko amarrak-amarrak eta erdjak bitartean.

Munitibar aldetik etozan euri eta edur ekaitz gogor eta bildur-garri baten, euren atzetik milla lagun inguruko Ansotegi'ren taldeak jarraitzen eutsela.

Jose Mari Aboitiz abadea, bere aldetik, orduan Aulesti'ko parroko zan Joakin Mari Aboitiz jaunaren laguntzaille zan. Onek neskame bat eukan etxean, gaur on Jose Mari'ren serbitsari dan berbera, eta gaur bizi dan etxe berbertan bizi zan, au da Udaletxearen ondoren, parrokia eta etxe onen artean egiten dan kale-arte laburrean.

Serbitsarjak diño etxean egozala aldaba-ots larriak entzun zirala, etxeari dardara eragiteko aiñakuak eta deadar au entzun zala: "Milla arrayo! Edegi aita!" Pentsatu eben lez, karlista boluntari-xoak ziran, "probintzianu" ausartak, on Jose Mari'ren esanetan, lenago Bidasoa inguruko erriberetan kontrabandoan arriskutsu oitutako mutillak.

Azurrak arte bustita, errukarri etozan, eta igaro bear izan zituen mendietako edurtza baten laprastada jausi eta besua apurtu eban euretarjko batek.

Santa Kutz sartu zan, Donostiko beste bere lagun bategaz, abade bategaz. Biak abarketa zuri eta jantzi baltzekaz etozan. Serbitsariak diño praka baltz batzuk konpondu bearra euki eba-la, jendea bearrezko eben lo-aldian egoan artean. Gaiñera eurak iruten ebenagaz eginda, Parrokoak oraindik alkondara mordo bat eukan (sekula erabili bakoak 40 inguru) eta abade on arek gipuzkoar mutil adoretsuei agindu eutsen eurentzako artzeko. beste premiñazko zerbait etxean aurkitzen ebenagaz batera.

Orio'tar abaderik ez eben ikusi urrengo goizerarte, taldeak erritik urteteko ordua eldu zan arte. Don Jose Mari'ren esanetan, Santa Kutzentzat donostjarrak baiño begiramen obeagoa eukan onek.

Ez da egia gerralarrien buru ospetsu arek Juan Martin Ugalde alkatea ilteko agindu ebanik. Au zazpi urteko gerratean karlisten komandante izana zan, baiña orain Gobernuaren alde ebillan eta Gernikako gerra-agintariekaz sarri alkar-izketatzen ekian.

Bakar bakarrik gozoegille zintzo zanari agindu eutsan, zortzi egun baiño lez Arratian egoan karlisten agintaritzaren aurrean aurkeztuteko. Alkate au arratiarra zan.

Gizon bi Munitibar'ko bidean, beste ainbat Lekeitio'kuan eta bardin Gernikarakoan ipini ziran, areriorik agertzen ba zan bat bertan zaindari geratu eta beste ainbat lasterren orren barri emoten etorteko.

Illaren laugarrenean, goizeko zortzirak inguruan, mutillak, zutik, euren barruak berotzeko, galdara andien aurrean ia berakatz zopa guztia amaituta éuken, eta beste ainbeste egitekotan galdara bardiñetan irakiten keika egoan ardau zopa iruntsiteko gertu egozala, Goikola-Etxebarritik zear an zaindari egoan gerralari bat etorri zan esaten arerioa Zubibarriaga aldetik etorralla eta ordu erdi baiño len agertuko zala.

On Jose Mari abadearen esanetan orduntxe entzun eutsan Santa Kutzeri oriotarrari esaten: Itxi atea, bertan su egingo degu. Baiña orduan parrokoak eskatu eutsan mesedez kanporaurtete-ko, eta eskaria ontzat artu ei eben, eta alaxe egin el eban bajta bere, alkateari bere aurkako zigorra parkatzeko eskatu eutsa-  
nean.

Orrela, taldeak Lekeitorako bidetik urten eta Aulestitik ordu laurdenera dagon Antzidor zubia igaro eban, Lea'ren eskuma aldera. Ibai au urak gora-goraka etorran, bezpera gabeko ekaitz ondoren. Eta antxe, Angiz gaiñeko Olarriako Bide Zidorraren ingurutan toki egoki eta aukerakoa lortu eben.

Ansotegi beste aldeko buruzagia, goizeko bederatzietan eldu zan Aulestira eta geratu barik Antzidor aldera jarraitu eban eta aurrekuak bertara eldu eta atzekuak oraindik erritik urteteko ego-  
zan.

Lea ibaiaren ezker aldean billatu eban bere taldearentzako leku egokia, baiña ez zan ausartu Santa Kutz egoan aldera zubia igaroten, bereala karlisten mende geratu eta gertatuko ziralako, berealako baten egaletik supean artuko zituelako eta bakoitzak 119 kartutxo erabillezan mutillen tiroen arriskupean jausi, Aboi-  
tiz ek jakin eban lez, bere etxean egon ziranetatik.

Ordu bete baiño geiago egon ziran egoera orretan; aulestia-  
rrak euren etxeetako leioetan arretaz begira egozala, alkar arteko tiroketa noiz asiko kezkatu. Eta ain zuzen be orduntxe emon eutsan parroko zanari go;tik berako joaldi batek eta bertan

Azkenez karlistak Berriatu'ko bidea artu eben, eta Ansotegi liberalak une baten jarraitu ondoren, atzera bi;urtuaz, Aulestin eguna igaro eban; bertan lo egin eta ildako parrokoaren senideei atsekabe samiña agertu eutsen, eta illa egoan tokian ez eben  
!otarako tokirik artu.

Ori da gorago esandako liburuan aitatzen dana ta irakurten  
dana.

Gure aldetik geituko dogu or irakurten dan Ansotegi (Toribio), markina izan zala. 1833 urtean liberalen alde jokatuaz, ama-  
zortzi gizonekaz bakarrik Gernikan karlistei eutsi al izan eutsena.

Eta "teniente coronel" maillara eldu zan, oraindik 36 urte baiño ez eukazala, eta Espartero'ren aolkari ebillala.

1872 urtean, bigarren gerratean, barrero liberalen alde jokatzen ezagutu zan. Zeztona'n il zan 1886 urtean.



**SANTA KUTZ ABADEA AULESTI'N**

# LENENGO PINUAK

Noiz asi ziran piñuak sartzen Aulestj'n?

William A. Douglass'en "Oportunidad y Exodo Rural en dos aldeas vascas" liburuan irakurten da 1905 urte inguruan Murelaga'ko merkatari batek geldi eukazan mendietan piñu batzuk sartzea erabagi ebala. Eta bere onura igarrita, atzetik asi zirala beste batzuk be bardin egiten.

Lenengo amar urtetan aurrerakada gogorra igarri zala eurentan. Ori ikusita baserritar batzuk erositako aziak sartzen asi zirala eta beste batzuk asi orreik bakoitzaren landaredietan sartzen.

Onetan egon zala alako lapurretako landaretzeren bat, edo ortako zurru-murrua bai beintzat. Ala ta be piñuak atze onik ez ebela ekarriko, jaiotzako pekatuz, lapurretaz, sartzen ziralako.

Itxuraz batzuk Adan de Yarza'k eukazan piñadietara joan eta andik piñu morkotxak osten zituela eta azitarako erabili.

Egitada orreri, ala ta be, ezin lapurreta izenik emon, kontuan eukita Adan de Yarza berbera izan zala inguruetako erritarrei piñu sartzearen egokitasuna eta aberastasuna erakusten ibili zana eta bera gertu egin izan zala edozeiñeri be orretan bear eban laguntza emotera.

Alaz eta be lenengo piñu landarak asarreak sortu zituen mendi jaube eta artzaiñen artean.

Zer gertaten zan?

Ba oituraz ardiei mendietan zaindari barik ibiltzen lagaten zala. Izan be bakoitzak iru-lau ardi eukiten zitun eta ezin zaindari bat euki euri begira.

Ardiak piñu landaretara joaten ziran, esaten danez batzutan euretara sartu eragin be bai, eta asierako kimuak jan.

Orrek, jakiña, bereala ekarren bata besteentzako gogortada, amorrua eta asarre bizia.

Egon ziran egitada maltzurak be. Gabetan piñadi gazteetara joan eta lurretik atara eta ebagita itxitakoak eta antzerako jokabi-deak erabili zituenak.

Onetan Bizkaiko Aldundiak be bere alderdia erakutsi eban. Piñadjak Bizkaira ekarren aberastasuna igarrita, kalte orrein erruduntzat ardi jaubeak artzea erabagi eban, ardiak bear ebezan begiraleak eta zaintzailleak eukitera beartuaz. Orrela auzia baretzen joan zan eta azken baten ardiak eukezan etxeak be piñuak sartzen asi ziran.

Orrela Aulestj'k eukazan 2.436 hektareetatik, 1965 urterako 991 hektarea piñuz beteta egozan, eta geroago piñadiak geitzen ezagutu doguz.

# ERDIBITZETAKO JARRILEKUA. SORTZEETAKOA

1916 urtean, Jose Agirre etnografoak, Gipuzkoa'ko Isasondo erriko Etxebarria baserrian, jarrileku bakan eta polit bat billatu eban, eta Donosti'ko San Telmo izeneko museora bialdu.

Bereala asi ziran euskal jakitunak jarrileku orren zeregiña aztertu eta aizetzen.

Telesforo Aranzadi zanak esan eban Berlin'go Museoan ba egoala orren antzeko jarrileku bat, Wurttemberg'en billatua.

Ez dakigu Itsasondo'ko baserrian aurkitutako a baserri aren jaubetasuneko ete zan, edo ta Alemaniakoaren antzera, auzoarena, erriarena zan.

Dana dala guk dakiguna au da: Aulesti'n be euki izan dabela umegintzarako jarleku berezia, eta udaletxean gordeten zala, premiña nun egon, ara eroateko.

Donostia'ko jarrileku areri buruz, M. Lekuona jaunak, bere lanen artean, gauza arrigarri bat azaltzen dau. Ain zuzen be umegintzarako izango ete zan edo ez, itanduten eban.

Bere esanetan, Gasteiz'ko Katedralean, san Bartolome'ren kapillan, lauki (kuadru) bat dago eta an, Donosti'ko Museoan dagon jarrilekuaren bardintsua ikusten dala, ain zuzen be san Antonjo Padua'koaren gelan.


Ori orrela izan ezkerro, bear ba da "lekukotasun" ezaugarria galdu egingo leuke, amiutean beste tokietan be orrelako tresnak erabili bearke ebezala adieraziko laukelako. Baiña gauza au da: Aulesti'n be orrelako jarrilekua egon izan dala, eta Udaletxean gordeten zala gaiñera.

Arrigarria au da, askok ez ebela gogoratzen orrelakorik. Batzueri itandu eta erantzun egokirik ez dogu artu. Baiña erriko gauzak argi gogoratzen dauzan Genaro Plaza Ansotegi "aguazil zarrak" esan dausku baietz, egon zala, eta a eta beste bi iru gauza udaletxean egozanak, gauza zar eta jakingarrizat egon eikezanak, apu rtu eta jau rti zituela.

Genaro gogoratzen da Aulestikoa zazkarra zala, baiña emakumeari bere zereginean laguntzeko, gora-beraka eta albokeraka ibilteko egitura eukala.

Eta gogoratzen da baita be, emakumeak erdibitzean, aurrak jaiote-denporan, Belen kanpaia jotzen zala. Bear ba da, aldi baten jaiotzak arriskutsu izaten ziranez, erritarren kezka eta otoitza eskatzeko izango zan kanpai-jote ori.

Edozetara be oitura ori egon zan.



**Amatasunerako jarrileku au ez zan Aulestikoa.  
Au Donostiko museoan dagona da. Aulestin egon zana  
traketzago zan, egur lodiagoz egiña.  
Baiña erabidez bardintsua.**

# AULESTI

## ORAIN IRUROGETAK URTE

Juan Inazio Onaindia zan alkate.

Adrian Astorkia, Epaikari.

Bitor Ansotegi, fiskal.

Bitor Kortabitarte, idazkari.

Timoteo Calle-Aransolo, parroko.

Jose Maria Aboitiz, Enrike Zenikazelaia eta Jose J. Zabalin-  
txaurreta, abade laguntzaille.

Erriak 1.116 bizi lagun eukazan, bertan bizi ziranak eta  
1.297 legezko bizilagun deitzen diranak.

Errian egoan merkataritza onela banatzen zan:

**Abazuzi•tegiak.** (Abazeriak)

Domingo Alberdi.

**Anabakak.** (Mineral ongarriak)

Juan Martin Alkorta,

Donato Urkidi.

**Bizartegiak**

Franzisko Atxurra

Juan Etxarte

Segundo Elordi

Lukas Gabilla

Juan Mari Maruri

Domingo Retolaza.

**Ikatza**

Asensio Aranar

**Aroztegiak**

Angel Zinkunegi.

**Jatetxeak**

Santi Bengoa

Ana T. Plaza.



**Aleak eta Pentsuak**

Alkorta Juan M.  
Legarra, Leon  
Uriarte, Gerbasio  
Urkidi, Donato.

**Otzarak**

Zuazo, Jose A.

**Janariak**

Etxarte, Domingo  
Intxausti, Segundo.

**Gozotegiak**

Etxarte Domingo,  
Legarra, Leon.

**Txokolategintza**

Etxarte, Domingo,  
Legarra, Leon.

**Elektra-indarra**

Alkorta, Juan M.  
Garro, Jose A.

**Errementariak**

Arrate, Prudenzio,  
Espilla, Manuel.

**Egurak**

Perea, Anton.

**Osagilleak**

Kerexeta, Domingo.

**Bitxi-dendak**

Bollar, Julian,  
Zelaia, Antonia.

**Ogitegiak**

Alkorta, Juan M.,  
Intxausti, Segundo,  
Meabe, Kataliña,  
Zaldumbide, Jose Migel.

**Eunak (Telak)**

Alkorta, Juan M.,  
Espilla, Pedro,  
Goitiandia, Ana,  
Ibarrola, Kaietano,  
Urkidi, Donato.

**Zapatagilleak**

Ibarzabal, Felix,  
Malax-etxebarria, Felixr



**EUSEBIO BENGOETXEA  
ARTZAINA**

# MURELAGA ETA AMERIKETARAKO JOERAK

*Jakiña da Murelaga'k, Aulesti'k, adiskide jator, zintzo, eta bide batez bere ikasle eta erakusle on bat euki dabela: W II am Douglass.*

*Lenengo "Death in Murelaga" idatzi eban 1969 urtean eta Washington'go Unibersidadeak argitaratu eban. Geroago gaztelaniaz "Muerte en Murelaga, Opportunity and Rural Depopulation in Tov Spanish Basque Villages". Erderaz "Oportunidad y éxodo rural en dos aldeas vascas, Echarlar y Murelaga" izenagaz kaleratua.*

*Eta azkenengoz, "Amerikanuak" "Basques in the New World", geroago gaztelaniaz "Amerikanuak" "Los Vascos en el Nuevo Mundo" deitureagaz erderatua. Oraingo au William A. Douglass eta Jon B lbao'k izenpetuta.*

*William Douglas denporald ak garoa da Murelaga'n bere lanak mardultzeko jakingarriak batzen.*

*Guk, liburu onetan, gure ezaupidea agertu nai dautsagu, batez be erbestean Murelaga, edo Aulestia, ain zintzo erakusten alegindu zan gizonar , bere "Amerikanuak" liburuko zati bat euskeratuta agertuaz.*

*Jakingarri da aulestiarrentzat.*

Murelaga, milla bizilagun baiño zerbait gitxiagoko bizilagunen baserri bat da, Auñamendietan ja bastertuen dan inguru baten kokatua. Ara duanari zotin eragiten dautso ango bizitzak, bere bereiztasun, izakera baketsu, osasuntsu eta eroapentsua-gaitik.

Edonun entzuten da euskera, gaur gauza bakana izanarren Euskalerriko toki askotan.

Bertako folkiorearen gozotasun agerbide au, illuntzetan bakarrik eteten da, bertako gizonak kalera etorten diranean, eguna arriolatan igaro ondoren edo ta albo errietatik, ango lantegietan eguna emonda.

Erri au ezagutzen ez dauan ikerlarien batek erraz pentsatu leike, gaurko munduak astuta daukan egalen bat izatea, kanpoko eraginik oraindik artu barik, bertakoak antxiñakoen pentsakeraz bizi dirala, lengoen bizi-erabei eutsita. Esan lei ikuspegi fisiku berberak estutu egiten dauala.

Baiña ikerlari berbera be laster konturatuko da agerbide edo ikusbide ori irudimen utsa dala.

Baserritar guztiak elebidunak dira, euskera eta gaztelania ezagutzen dabela, eta baserriko edertasun ikutu bakoa ezagutu nai dauana, arrituta geratzen da baserri guztien tellatuetan dagozan telebistako antenak ikustean. Batek esaten ba dautse bilbotarra edo eibartarra dala, ziurretik baserritarrak erantzungo dautso bere anaia, edo semea, edo lungusua an bizi dirala.

Eta kanpoari begira elitzake zuzen Murelaga'ren kanpoko artu-emonak beste errjaldeekaz edo ta españar naziñoagaz bakarrik inguratzea.

1966 urtean, lan onetako egille batek erroltza edo zentzu bat egin eban Murelaga'ko baserritarren artean. 165 anai kontuan erabilita; ikusten zan euretako eunek, gitxienez % 65'k, Ameriketarako emigrante bat emon ebela, eta ordeez 55 kasutan (% 33) emigrante bat edo geiago.

Ikasbiderako artutako 165 neba arreba orreik, 429 gizoneko eta 413 emakume osotzen ebezan. Eta kopuru orretatik 842 pertsonetatik, 212 lagun noizbaiten Ameriketara joanak ziran.

Gizonezkoen artean 179 (% 42'ek) ba eukan kanpora joateko experientzia. Eun eta zazpi, au da, lau gizonetako batek, Ameriketako Sarkaldean egonak ziran edo bertan bizi ziran 1966 urtean. Asieran beintzat ia danak artzaintzan ibili ziran. Eta besteak zer? Berrogei ta lau Australiara joan ziran, eta an, banakaren bat ezik, danak asi ziran gozaki soloetan, azukre kañaberak ebagiten. Amabi Argentina'ra joan ziran eta amar Venezuela'ra. Beste bederatziak Mexiko, Peru, Kuba, Txile eta Afrikan geratu ziran. Latin-Ameriketara joan ziran asko, negoziotako gizon aberats egin ziran, batez be Caracas edo Buenos Aires iri gunetan geratu ziranak, Amerikar Sarkaldera edo ta Australian esku lanetan ekitera joan ziranen alderantziz.

Ez litzake esan bear Murelaga'ko emigraziñoia ogeigarren gizaldiko gauza danik. Emengo etxeen arrizko egitura sendoak eta eleizakoak berak, garbi erakusten dabe españar inperioaren kolonietako eragin, asmo eta aberastasunak bitartean dirala.

Era onetan, Auñamendietako erri txiki onetako kanporetarako experientziak, bost gizalditara elduten dira eta ondo eratutako

iru kanporatzeen arauz: Ego Ameriketa, Ipar Ameriketa eta Australia. Orrez gain Murelaga'tik kanpora joan ziranak, errialde edo denporaldi askotan bizi-era ugarien ezaugarria eroan izan dabe. Bat beintzat, 1711 urtean, Lima'ko (Peru) artzobispo izatera eldu zan; beste batzuk era guztietako merkatari izan ziran; eta gaurko emigranteak psikoloji ikuspegiak, bizi modu langille eta neke-tsuak daroez, Amerikar Sarkaldeko lurralde eremutsuetara joatera, izkuntzaren sailtasunak be oztopo izango ziran tokietara.

Ikerketa onek ez leuke eragiñik ziurretik, bein Kalifornia, Estatu Batuetan sartu zanean, Kalifornia'ra joan ziran lenengo euskaldunak, aurrerago Argentina eta Uruguai'ra joanak izan zirala jakitea besterik, orrela Rio de la Plata'ko errialdea, Amerikar Sarkaldeko emigraziño bigarren aukera lez itxita. Orrelako ikuspegiak ez dira emigraziño kontuetan banaketan baino agertzen, nai eta euren garrantzia euskal gertaerarena bakarrik izan ez.

Beste orrialde baten, liburu berbetan, au esaten dau; 1916 urtean Nevada, Oregon eta Idaho'n bizi ziran bizkaitar bizilagunekaitik:

"Itxas aldeko bost errik, Ea, Bedarona, Ipazter, Lekeitio eta Mendeja'k 82 lagun emon zituen, au da, %44. Artibai ibaia itxasoratzen dan tokikoak, Ondarru, Berriatu, Markina eta Bolibar'ek 27 gizon bialdu zituen, %15. Beste irugarren zati bat, 28 laguneko, %15 koa, Murelaga, Arbazegi, Nabarniz, Gizaburuaga eta Amorototik urtena izan zan.

Erri oneitako parrokoak 1960 ingurutan aldizkari bat egiten eben alkartasunean, "Zuentzat" izenagaz, erri oneitako barri zeatzak emoten: (jaiotza, eriotza, ezkontza, kirol-jai, eta zer esanak) jakin eraso nairik errietan zer gertaten zan, eta orrek garbi erakusten dau errietako emigraziño a batasun bat lez artu bear zala. Aldizkaria joan barri ziran artzaiñentzat egiña zan geien bat. Aldi aretan Western Range Association erakundeak atara zitun 228 bizkaitarretatik, 208 talde onetan agertzen diran errietakoak ziran geienbat: Ipazter 29; Lekeitio 26; Ea 15; Markina 14; Berriatu 8; Gizaburuaga 8; Mendeja 6; Bedarona 6; Amoroto 6; Ereño 6; Arteaga, Mujika ibarruri, Nabarniz, Natxitua eta Murelaga'tik bakoitzetik 5; Arbazegi'tik 4; Bolibar etik 4; Mendata, Errigoiti, Gernika'tik bakoitzetik iru; Axangiz, Morga, Kortezubi eta Akorda'tik bakoitzetik bi, eta Busturi, Bermeo, Ondarroa, Ibarrangelu eta Murueta'tik bakoitzetik bat".

# ARMARRIDUN LEIÑUAK

Ugaria da Bizkaia armarridun oiñetxetan eta leiñuetan (lina-jeetan).

Istori idazleak ez dira beti batera etorten. Baiña emengo etxerik ezagunenak agertuko doguz, Labayru edo ta Iturriza'k euren istorietan agertutakoari jarraituz.

Kerexeta'ren "Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco" be erabili dogu. Orrela aleginduko gara armarrien irudiak zela-koak diran agertzen.

## Arranguiz

Oiñetxea eta armarriduna.

Labayru'ren esanetan, aran tokia esan nai dau. Lopez Mendizabal'ek be esan gura bardiña emoten dautso, Arangiz'en alda-keta dala esanez.

Armarria: Berdean, urrezko bost txirla, aspa antzera ipiniak. Inguru zidar eta gorritz laukitua.

## Arbaiza

Armarria, zela; urdinean, urre eta urdinez, iru zirrinda tente-koz.

## Aulestia

Batzutan Auleztia be erabilten da.

Jaime Kerexeta'ren esanetan, Murelagatarren Aulestia abize-nari dagokion armarria au da:

**Aulestikoa.** Urdinean, urrezko zirrinda bat, urrezko dragoen buruetan sartua; bere gainean aspa gorri bat daukala, eta goie-tan urrezko izar bat, eta beietan goraka datorren itargi erdika bat, adarrak bera begira daukazala.

**Murelagakua.** Urdinean, urrezko zirrinda bat, aspa gorritz gaiñeztua eta goian goratzen duan itargi bat daukala, alderatua, eta beian zidarrezko izar bat. Inguru gorria, ur-uridin eta zidartsuaren olatuekaz eta kolore bardiñeko txirlakaz, eta goi aldeko erdian, urrezko aspa bat.

Kerexeta'ren esanetan, jatorra eta lenengoa bigarrenez agertzen dan au da. (Gaur Aulesti'ko udalak errikotzat artua daukana).

Aulestia etxea Pedro (bañez de Aulestia'k jaso eban eta Bizkaiko Anaidiak 1415 urtean erre egin eban eta 1556 urtean barriztua izan zan.

### **Espilla**

Etxe onek Soraluze, Eskontza eta Zarautz'en armarri bereziak daukaz.

Beste batzuk oneik dira:

Bat.—Berdean, arrizko zubi bat eta leoi eta urrezko ertz batek gainduta.

Beste bat.—Zidarrean, leoi bi alkarrerri begira, gorritan euren erpetan urrezko torre bat daukela.

### **Gorostiaga**

Urdinean, urrezko banda bat, egaletan dragoi buruakaz eta bandaren goi eta beko utsunetan, galdara batz bi, urrezko inguruagaz.

### **Guardia**

Murelaga'n: Zelai urdinean, urrezko saeta bi aspa antzera, eta galdara baltz bi aspen goi alde eta be aldean, tarte bakoi-tzean bat, eta panela bi (biotz antzeko irudi bi) ezker eta eskuma aldeko tartetan.

### **Guardiola**

Zabalera gorri baten urrezko gaztelu bat, panela bi, eta erdian galdara bat gazteluaren gainean, goi aldean, eta bealdean ur olatuak.

### **Iba rrola**

Urretan, aritz berde bat eta ondoari eutsita artz baltz bat.

### **Iturrioz**

Urretan, arbola berde bat, urdin eta zidarrezko ur-olatu bartzuen gainean. (Kerexeta'k).

Labayru'k: Leoi bat. Bere atzeko oñien gainean zutik, zidarrean, goian urre koroez eta miin gorritz, toki baltzean.

### **Marika**

Murelaga'koak: Armarrian zidar eta urdin xingola bat.

Merika  
Bardin.

Martinez Arbinagorta  
Abizen biekin osotua da.

Matanzas  
Ez dauka batzuk uste leikien erderazko ilketa esan nairik.  
Armarria: Gorrian, iru galdara baltz, inguratzen dauzan zira-  
rrezko kate bateri lotura laukia osotzeko dauala, eta irukoitz eran,  
inguratuta, eta goian, zidarrezko ezpata bat eta be-beian otso  
ibiltari bat, bere kolorean.

Solagu ren  
Urrezko zelaia eta bertan arbola berde bat eta erbi bi ondo-  
ra jagita, zuaitzaren albo banatan.

Soloaga  
Gorritan, zidarrezko perra bat.

Urkiza  
Urretan, banda bat urdinean, goian kolore bardiñeko izar bat  
daukala eta beian aspa urdin bat.

Beste bat: Zidarrean, zuaitz berde bat eta otso baltz bat,  
zuaitzean zear igaroten. Inguru urdiña, zidarrezko zortzi izarre-  
gaz.

Labayru' diño Aulestia etxearen antzeko armarria daukala.

Urriola Etxebarria  
Urrezko zelai baten arta berde bi eta erbitxakur bi. zuaitzari  
zinta urdinekaz lotuta; inguru gorria lau lorekaz eta lau urrezko  
izar.

Zubero  
Zidarrezko leku baten otso baltz bi ibiltari, zuaitzaren alde-  
alde eta onen azpian olatu zuri ta urdiñak, inguru gorria eta ber-  
tan zortzi aspa urretsu.

Arginaena  
Klasiku barri erako armarria.—Iru arroseta, albo bakoitzean  
eta erdian bost ertzdun lau zatidun armarria.

1.—Beso eta ukabil bat, ikurrin bat zabalik dauala.

2.—Arbola bat, basurde bat berari erantsia.

3.—Lis lorea eta beian otso bat.

4.—Otso bi, erpekari.

Beian esaera dau: Arginaena'ren ezaugarriak.



Lega rra

Armarri bi daukaz.

Batean, Kaskoduna, lanbrekinezko estalki eta lumekaz.

Armarrian bertan zuaitz bat dago eta bertara leoi erpekari bat.

Bestean, Kortako ate gaiñean, alemaniar erako armarrria eta irudi bardinagaz.

Bengolea

Butron eta Muxikatarren taldeko zan.

Armarria: Goian, bost txirla zidarrezko eta eurekaz nasteen, kurutze antzera, urrezko lau izar. Zidarrezko inguruua, lau matxete odoltsuekaz, eta leoiien tau buru ebagita, gurutze eran oneik be. Armarriaren gaiñean azeri bat eskuan matxete bat daruala eta besteagaz leoi baten burua erakusten eta esaera au; Becoak goicoa escondu leydi, ta echeac andia bensy leydi asmoz eta jaquitez.





**AULESTIA**



**ANGIZ NAGUSIA**



**LEGARRA**

# GARAIXAK

Ba duaz euskal garaixak galtzen, Bizkaia'n beintzat.  
Batzuk entzutetsuak dira. Besteak galdu dabe euren itxura  
eta izate jatorra.

Amazazpi geratzen dira Bizkaia'n.

Abadiño'n 2.

Berriz'en 2.

Garai'n 1.

Galdakao'n 1.

Etxebarria'n 3.

Elorrio'n 2.

Iurreta'n 1.

Ipazter'en 1.

Mallabia'n 1.

Nabarniz'en 1.

Aulesti'n 2.

Garaixak antxinakoak dira; batzuk bosteundak urte eukiko  
dabez. Gaztenak irureundik gora.

Aulesti'n bi dagoz.

Bata Malax'en, Malax Arteaga'n.

Garai au zearo aldatua aurkitzen da. Egaleko itxitura jatorra  
da, egur gardainatuekaz sarratua eta luzerako agak 5,90 metro  
daukez luze eta 0,25 x 0,35 egalen artean. Gaiñerako egitura  
zela-ala konpondu eta egokitua da.

Jaubea Luisa Onaindia da.

Beste garaixa Narea Goitikua da.

Luzaro erdi zapalduta egon zan. Ain zuzen be edurtza baten  
beia jo eban. Itxuraz jausi zana luzeagoa zan, orain barriztuta  
agertzen dana baiño. Oraingoak ganbararik ez dauka.

Gaituak diñoenez ez da jatortasunez barriztua izan, eta ez  
dauka arkitektura aldetik len eukan kutsurik.

Beko zatia arriz betea dago, lau sutabe artean, atetzakoa  
dana izan ezik.



Goiko zatian baserri tresnak gordeten dira.

Jaube birena da, Floren Urizar eta Patxi Omar'ena eta erdiz  
banan erabilten dabe.

Kanpotik 5,50 metro daukaz zabalean eta 5,65 sakonean.


Agak zarrak ba dira be, egur barria sartu zan zoladuran.

(Balendin Lasuen'en "Los últimos hórreos de Bizkaia" libu-  
rutik atarata bertako gaiiak eta euren neurriak eta abar).



7<sub>71</sub>

**a**



6,10	C 1:	0,73
6, h	0,20	0,20
o10	C,13	0,10



127 OOH 33



OO 33 AN

# DANETATIK ZERBAIT

## **Burdin-olak**

Zenbat burdin-ola egon ete ziran Aulesti'n?

Iturriza'k, bere Bizkaiko Kondairan iru egon ziralako esaten dau.

España'ko Errege Akademiak 1802 urtean agertutako Geografi Iztegiak bat batik ez dau izentatzen emen.

Jakiña da burdiñolak euren unerik onena XVII garren gizardi'an euki ebela.

Emengo burdiñolak txikiak izango ziran zjurretik, aldi baten egon ziranak andi eta txikietan banatzen ziralako. Beintzat 1553 urtean, Aulesti'n egin zan erri-batzarrean, lgotz ta Meabe mendien goraberran Markiña'ren aurkako auzirako ordezkariak aukeratzeko, an agertzen ziranen zerrendan ba dagoz errementariak eta ieleak (tiradoreak) be.

Or ikusten da baten bat egon zala.

## **Egur ona**

Jakiña da Lekeitio'ko parroko erretaula ederra Juan Garcia Crial, edo ta beste batzuen esaeraz, Grial ordezkari edo baita Cristales tallagille ospetsuak egin ebela.

Ba dirudi ertilari orrek Lekeitio'n arte eskola bat sortu ebela.

Dakigunez berbera ibiltzen zan basorik baso aukerako egurren billa. Orrela dakigu Crial ori illabete baino geiago ibili zala Aulesti'n, Lekeitio'ko eleizarako egur egokiak aukeratzeko.

Itxuraz aldi aretan ba egoan Lekeitio'n Adan de Yarza'tar abade bat, Frantzisko izenekua, eta arek bialduta ibili ei zan emen.

("El arte del Renacimiento en Vizcaya. Sesmero. 194 orrialdetan).

## **Oñaztarrak eta ganboatarrak**

Lengo gizardietan gure politika famili batzuen goraberran ibiltzen zan: Oñaztarrak eta Ganboatarrak ziran. Eurekaz batzen ziran errietako beste famili ezagunenak eta oneik euren giroa sortzen eben errian, eragin andiko familiak izaten ziralako.

Orrela Aulestia etxea oñaztarren aldetik ibiltzen zan eta erria be eurekaz.

## **Baserri ederrak**

Ibarrola auzoan, san Pablo deiturako ermitaren ondoan, baserri eder bat dago. Arkitektu batzuen ustez, bere neurri, anto-lamendu eta batez be arbola osoak erabiliaz egiña daukan irai-kintzagatik, eta egiturako erabideagaitik.

Baserri au Garatxaga edo Garatxana da.

## **Beste bat**

Ituriza goiko.

1388 urtean Ziarrotza'ko Kolejiataren korta zan, "sel" a.

Egitura berezia dauka arkitektura aldetik, leioak barrurantzako zuloetan ataratakuak diralako eta bere kortak anditasunagaitik.

Jendearen esanetatik jakiten da XVI garren gizaldian, gudari taldeak emendik igaroten ziranean, ementxe geratzen zirala lo egin eta bear eben atsegina artzen.

## **Parrokiaren egiturako goraberak**

Erri-sinistea da, parroki barria egitean, etxe biren artean eztabaida gogorak egon zirala bere aurrealdea nora begira egin bear zan eritxi ezbardinetan.

Ibañez-Aldekoatarrak oraintxe dagon eran egitea nai eben, baina Gorordo etxeakoak, Argiñena etxeakoak, euren etxeari begira egiteko eskatzen eben. Itxuraz lurren gorabera be ba ebillan nas-tean.

Azkenean Aulestia Torre'ko jauna bitartean sartu eta gaur dagon eran egitea lortu eban.

## **Euskeraren indarra**

Willian Douglass'ek, bere "Oportunidad y Exodo de dos Aldeas Vascas" liburuan esaten dau:

Murelaga'n, euskaldun ez diran bizilagunak, osagillea, udaleko idazkaria, mendi-zaiña, ardua ekarten dauan gizona eta errian bizi dan beste gizon bat dira.

## **Suak**

1498 urtean, Iraillea'n, emen egoan kale bakarra erre egin zan eta kalte ugariak gertatu ziran.

(Labayru, Historia de Bizcaya III-527).

## **Ura**

Entzutetsuak dira emen Telleria'ko urak.

1743 urtean billatu ziran eta bereala egindako analisisan, burdin-ur sulbur beroak zirala esan eban Madrid'eko osalari Akademiako botikari zan Juan Altamira jaunak.

Iturriza'k bere Istorian esaten dau ur ori mesedegarri agertu zala gaixo askorentzat eta uda sasoiari batez be jende asko agertzen zala Aulesti'n ur orreik artuaz bertan atsedean egitera.

## **Baserri ustutzeak**

Ezaguna da azken denporetako baserri ustutzea.

Emen 1924 urtetik 1966 bitartean, au da, 42 urteetan, amai-ka baserri uztu ziran. Eta kopuru andi eta kaltegarria zala uste zan.

1966-1970 bitartean lau urtetan bakarrik, zortzi baserri uztu ziran. Euretariko batzuk, gaiago bizitzarik eukiko ez daben itxué ran agertzen dira.

## **Baserrien neurriak**

Murelaga'n baserri bi egon izan dira 25 hektarea baiño geia-gokoak euren lurretan.

Barbariola eta Solua.

## **Osasuna**

Gure gizaldiaren asieran, Bizkaia'n bularretiko gaitza zabal-tzen ebillata ta osakidetzako arduradunak kezka ebiltzan, aldi aretan gaitz orretatik nekez urtetan zalako.

Aulesti'ko eriotzetan, eta aldi aretako urteei begira, kopuru oneik agertzen ziran bularretikoz ilten ziranetan:

1899 urtean, 6 lagun.

1900 urtean, 3 lagun.

1901 urtean, 2 lagun.

1902 urtean, 3 lagun.

1903 urtean, 1 lagun.

1904 urtean, 4 lagun.

(Historia Social de la Tuberculosis en Bizkaia, 1882,-1958. A. Villanueva).

## **Sabino Arana Murelaga'n**

Emen diñuenez, Arana Goiri'tar Sabin, eusko abertzaletasunaren esnatzailea euskeraz ikasten asi zanean, Iturritza goikoa baserrian bizi izan zan lenengotan.

Eta bigarren aldi baten Aulestia'ko kalean, Alkorta etxean bizi izan zan bere ezaupideak sakondu eta obetzen.

### **Kaparrena**

Orrela deitzen eutsen errian.

Beste batzuk, Iturriotz etxea.

1980 urtean Aulesti'n egozanetatik etxerik zarrena zan. Arkitektoen ustez bere egitura, barruko banaketa eta osotasun bateko edertasunagaitik, zaintzea merezi eban etxea zan.

### **Torre zarrak**

Aulesti'k, bizitzan, ainbat torre ezagutu zitun bere inguruan. Gaur izenak bakarrik geratzen dira paperetan.

Orrelako torreen artean gogoan euki bear:

Arrangiz torrea.

Espilla torrea.

Guardiola torrea.

Ibarrola torrea, Mendata'ko Juan Otxoa Olaeta'k 1404'n sortua.

Matanzas torrea.

Soloaga torrea.

Danak galdu ziran.

### **Bolo-bolo**

Errien goraberetan, antxinako gauzetan, bolo-bolo ibiliarren, zentzu andi bagako gauzak egon diranik ezin ukatu.

Orrelakoetan ez zan nastean sartu bagako erririk geratzen.

Labayru'k bere Istoriko III tomoan, "Invenciones ridículas" izenburua emoten dautso XXII garren kapituluari. Eta an onelako gauzak irakurten dira:

Guzur-muzurren eredu bat, adibidetzat, Bengolea etxea dogu. Bere sortzea XI garren gizaldian lekutzen da. Eta esaten da Castilla'ko errege zan Santxo Bigarrenaren gudari izan zan Madabea'ko Santxo gandik datorrela. Kapitan ori esandako erregeagaz frantzetarren aurka gudan ibili zala llundono'n, Murelaga eta Arbazegi bitarteko Gaztiburu mendiaren gibelean. Eta Santxo Madabea orren adorea benetan arrigarri eta ausarditsua izan zalako, erregeak bere senide bategaz ezkondu eragin eutsala.

Eta Santxo au izan ezkondata gero, Bengolea etxea sortu ebana.

Kapitulu berbertan beste au esaten da:

Murelaga'ko lbakatx etxea, Ramiro Bigarrenaren Kapitan zan Felix Luziano'k sortua izan zan. Errege ori Bizkai'ra etorri zan 930 urtean frantzetarren aurka ebiltzan bizkaitarrei laguntzera...



Ikusten danez Bengolea etxeagaitik esandako ia berbera, izenak aldatuta, eta jakiña da errege oneik ez zirala Bizkai'ra etorri frantzetarren aurka gudatzera, eta ez euken zetan etorri be, aldi aretan frantzetarrak ez ebiltzalako bizkaitarren aurka gudan.

### **Txokolategintza**

Oiturazko zan len, erri txiki askotan, txokolategintza, au da, txokolateak bertan egitea.

Orretarako tresnak ba eukezan.

Bai eta astoa be, egun guztian kakaoa ijoten, gertuten ibilteko.

Gaurko paperetako apaindura, zidar eta dotoretasun barik, libratio txokolate tableta jatorrak egiten ekiezan emen be. Urun eta koipeki barik, egizko txokolateak.

Aulesti'n ja gure egunak arte egon izan dira etxe bi orretan zintzo eta izen onagaz ekiten eutsenak.

### **Brixkerak**

Iñok deitu eta eratu barik, esateko berez, brixka eskola dago Aulesti'n. Erriko tabernetan, arratsalde luzean, or ikusten dira etxeetako andra mardulak, lau edo zortziko aldratan, batakiñu, besteak espanei eragin, aurrekoagandik begiak kendu barik zorrotz, askotan kartak amorruez okertuta, edo ta ertza ezin erakutsita, atzamarrak salatari, zer ipini edo zer bota zalantzan, bata bestearen kartak jokatu aurretik igarri arte.

Batek ez daki ze jokatzen daben. Mai gaiñean ez da dirurik ikusten, baiña alegiña eta nerbioak igarri bai, ondo karga edo paso txarra emotearen arro edo asarre, brixak urtenda ekinalean.

Arratsalde guztian iru edo lau ogerleko izaten el dira aidean erabilten dabezanak, baina zer-esanak, kontuak eta zirikadak... burukomin, unore eta naigabe eta illeta asko astu eragiten ei dabez.

Emengo brixkerak maistresak dira orretan.

### **Kirolak**

Kortabitarte,

Ubilla anaiak,

Aboitiz,

Unamuno eta abar, eskuz, Perea anaiak, pala eta zeztuz, euskal pelota goratzen jakin daben aulestiarrak izan dira.

Gaur eskuko pelotarien krisialdia ez da bakarrik emengoa.

Eta zeztuzkoa bere kezka eta larrialdian bizi da, alako baten eguraldi onak agertuko diran itxaropenez.

Ezin ukatu Aulesti pelotarien erria izan danik.

Or dauka aterpedun pelota toki egokia kalean. Or baita Zuberoko txikia be.

Erri jolasetarako erri gertua da, gizonex eta tokiz.

Or dago probaetarako leku egokia be.

Bein erri kiroletan sartu ezker, ezin aiatatu barik itxi Jon Olea Unamuno, "Sakoneta", "Aulestiko jigantea"... gizon proba, soka tira eta abarretan txapeldun... santa Eufemiko ur garbien indarrez.

### **Orduaria**

Ara egunero gogoratzen gaitun adiskide bat: Donibane eleizako torrean daukagun orduaria, erlojua.

Gasteiz'en egiña da, Murua etxeak, 1918 urtean.

Esfera bat, mekanikoa, landua, tren bi eta oskintza ona dauana. Danon laguna.

Aulestiar jator batek, bere orduak entzutean ala esaten ei eutsan: Bai lagun, jo, entzuten ez zaitugunean kontuak.



### **AULESTI**



# AULESTI ALDEKO KANTUAK

## AITA JUANIKO

Aita Juaniko Olabarriko,  
zer daukak apaitarako?  
Orio-aza gogo-gofoak  
arro beroaz yateko.  
Rai rai, rai...

Kazuelatxuan intxaur saltsea,  
txarra morkoan txupletin,  
eragin eta eragin  
atsoak bakie zer egin.  
Rai ta rai...

Abesti au Azkue'ren "'Cancionero Popular Vasco"' deritxanean  
agertzen da.

Azkue'ren esanetan, berak Murelaga'ko Antonia Ibarragandik  
jaso eban.

Eta ba dirudi zerbait aldatu ebala.

Bigarren bertsoan, kazuelatxoan'en ordezt berak Kaspel andian  
sartu eban, bai eta atsoak bakie zer egin'en ordezt, zarrok  
badaukek zer egin.

## ARDAUAK PARAU GAITU DANTZARI

Arduak parau gaitu dantzari,  
bai eta koplari,  
ezkaituk mutillok egarri  
ez oraindik segurki.

Neure kontsuelua  
beti tabernarako,  
bardin dau gure finak  
ara bearko.  
Ezin falta dau,  
kondizioak onak ditugu,  
goizean goizetikan  
joaten gara tabernara

eta arratzaldean beranduan  
etxera gero joaten gara.  
Atzo ta arañegun ere bai  
izan bear da gure errian jai.  
Betor ardaua eta  
geldi gaizan alegere  
erropa zarrak  
eta eztarri garbiak;  
zorra franco dogu baiña  
arturen gitxi.  
Bart gure auzuan asarre,  
bai batzuetan geu bere,  
ez orain ere.  
Geldi gaizan alegrementean,  
egongo geraden artean  
leku batean pitxarra aldean  
ospitale barko dok gure finak

aurrera San Sebastian.  
Orain dantza gaietean  
la goaz erdian,  
aurrera dantzan dabillanak  
oiñak, dituk ariñak,  
ezpalituk oiñak ariñak.  
Etxok luzitzen baiña  
onek poliki yon dantzatzen.  
Ardu onen bentajak  
aindirade andiak  
ur otzaz gure biotzak  
ardorikan edan gabe  
dagozak otzak.  
Atzo goizean joan nintzan tabernara,  
edan nuan nik txopin erdi bat.  
Konpesa dezadan orain egia,  
ur otzak il zidan neure egarria.  
Ardoa ta kartak,  
dituk adiskideak,  
ez dot neuk besterik maiterik  
ez emakumerik ez dot adiskiderk,  
ardauagaz nago enamoraturik.  
Oi au pena, ardorikan eza,  
neure biotzeko pena guztia!

Ur otzak ilten nau,  
ardau onak biztu,  
ein dezu nai dedan sortzetik.  
Ongi gerta dedilla  
guk gaur edan dogun arda guztia.

Azkue'k, Cancionero Popular Vasco'n agertzen dau kantu au.  
Berak diño San Sebastian deitzen dala eta Gipuzkoan ibili  
zanean, ango zarrak esaten eutsela Bizkaiko kantua zala. Eta  
Berriz'en oraindik egiten dan Aurreku zarra dala.

Berak diño au Gabika'n batu ebala ango andra zartxo batek  
abestuta, baiña ia bardiña abestu eutsela Murelaga'ko Iñazio Iba-  
katx eta Jose Legarra'k.

Gaiñera diño, Murelagakoan beste bertso au geitzen zala  
amaitzeko:

Jaun zerukoak emon daiadala  
ardautxua edateko bere grazia,  
ta aurrerantzean edan al daidan  
guzti guztia.

## **SAN JUAN BAGILLEAN**

(Murelaga'ko Matias Zelaia zanagandik batua).

San Juan Bagillean,  
denpora ederrean,  
edozein bedarrek usaiña dauko  
Doniane goizean.  
Da San Juan, da San Juan,  
beti oi zaukadaz goguan.

la da Doniane  
edo jendea triste dago,  
san Juan bera bere  
loak artuta dago.

Atzo san Juan,  
san Juan zan da  
gaur da San Juan Bautista,  
Jesukristoren lengusua da  
san Juan Ebangelista.

Da San Juan, da san Juan,  
beti oi zaukadaz goguan.

## **ORRA NUN DOIAN**

Orra nun doian  
mendian bera  
Joane ezneagaz,  
seiñari aia egitearren  
ogi urunagaz.

Batek uruna,  
besteak baia,,  
artzaiñak esnea.  
Orra nun doian  
seiñarentzako  
bear dan guztia.  
(Azkue zanak Murelaga'ko Jose Legarra gandik batua).

## **KRISTIÑAU ONAK**

Kristiñau onak bear Zeuke jaian jalan pentsatu  
aste guztian zenbat bider ein ete daben pekatu.

Kristiñau on bat ilten danean egiten dabe bi parte,  
gorputza eroan elizara ta lurraz estaiduten dabe.

Arima ona ba doia eta nora dan iñok ez daki,  
Paradisuko atean dago isilik eta tristerik.

Kristo gure Jaunak urteten deutso, dana piedadez beterik,  
arima ona, zeuk zer dakazu zeure munduko gauzarik?

Umildadea, karidadea Jauna, eztakat besterik  
orretzek biok dakazun orrek eztau besteren bearrik,

Aingerutxuak, artu egizu arima on au eskutik,  
eroan eizu Paradisura beste guztien aurretik.

(Maria Martina Maruri gandik Azkue'k Murelagan batua).

## ESAIK BAT

(Kantu au toki askotan entzuten dana da, erri batzutan euren berezitasunak sartzten dautsezala. Azkue zanak Murelaga'ko Matias Zelaia gandik batuta, era onetan agertu eban).

Esaik bat.

Gure Jauna bera dok bat,  
berak salbauko gaiozak.

Esaik bi

Erromako altarak bi,  
gure Jauna bera dok bat,  
berak salbauko gaiozak,

Esaik amairu.

Oillarrak joten dau munduan,  
aingeru ederrak zeruan,  
naire arimea emoten deusat  
Birgiñeari altzoan.

## DAMUKORTAN

Damukortan etxetzea,  
Imintolan gisatzea,  
Larruskaingo basatia  
Garramiolan aldapea,  
Agoritan alkatea,  
alkate parerik gabea.

Olazar'ko printzipea  
Olabarriko joilea,  
Amallobietako leikenagea,  
Egurrolako torrea,  
aurrean daukat errotea,  
atzo askoren botikea,  
an el dago Maripena  
dontzella estimadea;  
aren atzeko putzak darabil  
Gabiolako errotea.

(Azkue'diñonez, Murelaga'ko Matias Zelaia gandik batu eta ikasi eban).

Itxuraz beste baserri askoren izenekaz barriztuten da kantu au eta onela amaitu:

Duke errenta bagea,  
baketa-narru kukatxu bi,  
zentsuna kokotaz atzetik.

### **NESKATILLA GAZTE BATEK**

Neskatilla gazte batek  
asarazo nau ni (empeñadu nai ni)  
atara daiodazala  
bertso bat edo bi.  
Zerbait ostu ei dabe  
erlauntzen batetik,  
aren pasadizua  
esatera nua ni.

(Murelaga'ko Matias Zelaia'gandik Azkue'k batu eta argitaratu).

### **BIRGIÑEAREN GABA**

Birgiñearen gaba da gaur da  
esaigun bere kantua,

i  
gogoz erantzun jendea.

Jaioten danak eriotzea da  
gauza eskusa begea,  
ni nerau bere jaio nintzan da  
zor daukat eriotzea.

Eriotzeari gauza bategaz  
oi natxako neu kontentu,  
aberatsari diruakaitik  
ezin leiola parkatu.

Aberats orrek diruak ditu  
pobreak umildadean  
umildadeak edegiko itu  
zeru altuan atea.

(Azkue zanak Murelaga'ko Maria Martina Maruri'gandik jaso ta ikasia).



## JOAN NINTZAN MADRILERA

Joan nintzan Madrilera,  
bai etorri bere,  
ango neskatotxuak  
enabe ni maite,  
enabe ni maite.

Larala larala, larala larala...

Ango neskatotxuak  
maite nabenean, (2)  
praile sartuko naz ni  
komentu batean (2).

Larala larala, larala larala...

Kerizak eldu dira bai Kanalekoak, bai Kanalekoak;  
trapu punta-luzeak bai Angelukoak, bai Angelukoak;  
garagar errikoak Natxitu aldekoak, Natxitu aldekoak,  
abarka manta zale bai Izpartekoak, bai Izpartekoak.  
Larala lara larala larala la.

Guztiko panparroiak Lekeitio aldekoak,  
neska gona gorriak Amoto aldekuak,  
uraldeko berdetxak Gizaburukoak,  
dantzari ballesteak Allustiakoak.  
Laral lara larala larala la.

Gutziz gerri mardoak bai Nabarrizkoak,  
eskribau errikoak Gernika aldekoak;  
eskuara-buruak Arrietakoak,  
artobero zaleak Emerandokoak.  
Larala lara larala larala la.

(Azkue'ren "Cancionero popular Vasco'n dator kantu au. Bere esanez, Matias Zelaia Murelagakoagandik ikasi eta batu eban).

## ASIAK EGIÑA DIRUDI

Asiak egiña dirudi,  
egiñak urregorria,  
milla neska baiño gurago neuke  
etxean zorro andia,  
Oterre barberua,  
BasabarLeten koñatua,  
Aupa labirun labirun lena,  
aupa labirun txatxalen.

Bart amarretan etxean nintzan,  
amabietan basoan,  
dama gazte bat billatu neban  
BasabarLeten besoan.  
Atsoak jo ninduan bekokian,  
nik illentiaz ipurdian,  
Aupa labirun labirun lena,  
aupa labirun txatxalen.

Andra galantak Azkoitin dira,  
galantagoak Azpeitian,  
eldu nintzan neu Arratian  
artazukua zirakian.  
Aupa...

Gure sala ta ganbara  
urdetokia bezala,  
ontziak ere izilpean,  
txakurrak garbi ditzala.  
Aupa...

(Azkue'ren Cancionero Popular Vasco'ko bigarren tomoan agertzen da. Azkue'k diño Matias Zelaia, Murelagakoagandik ikasi ebala. Ba dirudi irugarren eta laugarren kantaldiak, lenengo bietatik kanpora egiñak dirala).

## NESKARIK EDERRENAK ALLUSTI ALDIAN

(Triki-trixa kantak)

Agostuen lenenguen (2)  
San Pedro Mendixakua,  
etxat sekula aztuko  
orduko illuntzekua,  
orduko illuntzekua  
Agostuen lenenguen.

Andre Marije Irailgoz (2)  
Arraten erromerija,  
neu be araxe noia  
eiten ez pa deu euria,  
eiten ez pa deu eurija  
Arraten erromerija.

San Pedro Santa Klaratan (2)  
neskazarrak bentanetan,  
nobixue topetako  
Santiago santanetan,  
Santiago santanetan  
neskazarrak bentanetan.

Neure nobixuen ama (2)  
asto baten jaube dana,  
astoak ekarri dautso  
etxian bear dauana,  
etxean bear dauana  
neure nobijuen amak.

Amak ezkontzeko diñeust, (2)  
neure moduko batekin,  
dotetzat emongo deust  
ollua bost titxarekin,  
ollua bost titxarekin,  
neure moduko batekin.

Neure kapela makurra (2)  
beti tabernara gura,  
alako baten itxiko dot

azunberdiren kontura,  
azunberdiren kontura  
neure kapela makurra.

Bentanan dauen damia (2)  
begi ederren jaubia,  
ojala ba ziñatekez  
gorputz da arima neuria,  
gorputz da arima neuria,  
bentanan dauen damia.

Errekaldian asuna (2)  
etxeko andre lizuna,  
eun milla sorgiñek  
eruingo al abe  
errekaldian barruna,  
etxeko andre lizuna.

Au da pandero barrija (2)  
Gernikatik ekarrija,  
amar errial pagateko  
eztala urre gorrija,  
eztala urre gorrija  
au da pandero barrija.

Altuan san Antonio  
bajuan Madalenia,  
bixen tartian dago  
Txakur-zulo bentia,  
Txakur-zulo bentia,  
bajuan Madalenia.

Olgau nai dabenak (2)  
Karmen egunian (2)  
etor bedi Markiñara  
ill un nabarrian,  
ai, oi ai illun nabarrian  
olgau nai dabenak  
karmen egunian.

Urkiolara juan da (2)  
oñetakuak apurtu (2)  
Aita San Antoniok  
barrijak engoitxu,  
ai, oi, aj barrijak eingoitxu,  
Urkiolara juan da  
oñetakuak apurtu.

Gorabera luziak (2)  
gerrijan dindia (2)  
kolore zuri gorri  
probintziania,  
gorabera luziak  
gerrijan dindia.

Oraingo neskatillak (2)  
tonillo tonillo (2)  
eztago tonillorik  
majoranak baiño,  
ai, oi, ai, majoranak baiño,  
oraingo neskatillak  
tonillo tonillo.

Nabarriz, Amoroto (2)  
Santa Eufemi mendi (2)  
areitan iruretan  
aixte otza sarri,  
ai, oi, ai aixte otza sarri,  
Nabarriz Amoroto  
Santa Eufemi mendi.

Despedidia da ta (2)  
zagoze kontuan (2)  
akabatzera noia  
urango puntuan,  
ai, oi, au urango puntuan,  
despedidia da ta  
zagoze kontuan.

Eperrak kantatzen dau (2)  
Arrate ganian (2)  
neskarik ederrenak

Allusti aldian,  
ai, oi, ai Allusti aldian,  
neskarik ederrenak  
Allusti aldian.

Amak emon ba leust (2)  
amar amaseiko (2)  
ezkonduko nintzala  
udabarrirako,  
ai, oi, ai uda barrirako  
amak emon ba leust  
amar amaseiko.

Gorengo ganbarara (2)  
bidja labana (2)  
topiñan sartu jaku  
mutil barrabana,  
ai, oi, al mutil barrabana,  
gorengo ganbarara  
bidia labana.

Tiriki tauki tauki (2)  
malluaren otsa (2)  
amalau argin baiño  
oba dok arotza,  
ai, oi, ai oba dok arotza,  
tiriki tauki tauki  
malluaren otza.



**LIXIBA ARRIA**

## OTSOA TA AZERIA

**Z**UBERON (Murelagako auzotegi bat da Bizkaiko Zubero) gari jotzailak galaparitan ziarduela, otsoa ta azeria tipitapa Zubero-roko Legare deritxon etxe-ondora yoazan. Iretargi eder bete-betea egoan zeruan eta bere irudia opil biribil bat zirudiela Lega-eko idoian egoan.

Azeriko, zelan yan leikek opil eder ori? —itandu eban otsoak.

Idoiak daukan ur guztia edaik eta olantxerik.

Otsoa zu u ura edaten asi zan. Laster asi dakon, ostera, edaten ebana atzetik urteten. Azeriak orduan artatxokor bat artu ta uzkia za atu eutsan. Alango baten ustu eban otsoak idoia.

—Eztok esan bada ik, azeri, ura edanezkero opila iruntsiko doadala?

Euk eztakiala iruntsi izango dok ik.

Egia esan, sabela bete bete daukat eta iruntsi izango doat opin ori, izan bere.

Onetan iretargitan Lega eko leioan gatzatua ikusi eban azeriak eta otsoari

Otsoko —esan eutsan—. Ik onezkero, ibili al izateko bere, batua ustu gura izango dok.

Besteak baietz. Azeriak orduan buztanpetik txorkoa kendu ta a a-a a-a a erion otsoari soban bera ura. Aparitan ziar-duen galyotzaileai

Gizonak —esan eutsen azeriak—, urak daroatsuez la ineko gariok.

Au entzunda gizonak yagi ta txipitakaz ebagi eben otso ori. Bitartean azeriak, leiorea máts-ada etan gora igonda, gatzatua sits ta bits yan eban. Gero giltzetan, gatzatutanta batzuk ebazala lagunari agertu dakon.

—Ebagi naioek, azeriko.

Bai ni be, otsoko.

Niri azur guztiak txipitakaz banatu daustezak.

Niri ba iz garunak agirian itxi.

Ni galduago naiagok.

Etxoat uste.

Gura dok ba u<sup>p</sup>en danari galduago nor dagon itandu ta galduen dagoana besteak lepoan eroatea?

Bai.

Landeta eritxon bat aurkitu eben. Otsoa ta azeria berbetako gelditu zireanean, gelditu bera be.

Nor dago, Landeta, banatuago? Azu ak makilaka ausita daukazana ala garunak agirian darabilzana?

Txarto dagok, azeriko —erantzun eban Landetak—, txarto dagok azur ausiduna, baina garunak agirian daukazana txartoa-go.

Azeriak orduan, gizonari agur eginda, otsoari lepora igon eutsan. Bere zuloa azeriak U exola deritxon pagadi-ondoan eukan. Ara eldu zireanean, otsoaren lepotik zapad eginda zulora yoéan bera. Grausk oratu eutsan orduan otsoak amutuz. Azeriak

—lk egin dok egitekoa! —batezka esan eutsan—. Neure buztanan dalakoan pago-sustatari oratu dautsak.

Eta ba esantzoka, goizaldeko loa egitera, bere zuloan sartu zan azeria.



**MALAX AUZO**



**BARBARIOLA AURREAN**



**LEGUA ARRIA**



**TELLERIAKO ITURRIA**



# UDALEKO ARTXIBOA

Ba dirudi lengo denporetan ez zirala arduratzen kontuetako pape-  
rak besterik gordeten.

Udaletxean, beintzat, antxiñako agiri eta jakingarri gitxi dago.

Udaletxeko artxiboa era onetan sailkatuta dago:

## **A Saila.—Udal ardularitza**

Sail onetan sartzen dira Udal agiriak, aginduak, erabagiak, autes-  
kundeak, langilleak, Merkatu eta janariak, Ongintza, osakidetzta eta Ite-  
giko gora-berak.

Agindu eta erabagien libururik zarrena 1752 urtean asten dana da.  
Erriko langilleena, 1813 urtean.

Beste liburuak 1862'tik gure arterartekoak dira.

## **B Saila.—Suztapena (Fomento)**

Estadistika, 1814'n asten dira.

Erri Irakaskintza, 1871'tik asita.

Lenen sektorea, 1879 urtetik asita.

## **C Saila.—Ogasunak**

Sail onetan dagoz libururik zarrenak, 1610 urtean asiak dira kontu-  
takoak. Aurre-kontu, zerga, petxa eta abar, Erri-ondasun, Erriko zor,  
kontribusio eta abarretakuak, azken gizalditik asiak dira.

## **D Saila.—Erri-lanak**

Sail onetan ur-banaketa, ubide eta ur-z k ñen bideak sartzen dira.  
Oneik 1958 urtean asten dira.

Erri-lanen goraberak, 1970 urtetik eta biztanlegoaren lanak,  
1981'tik gerora.

## **E Saila.—Udalaren beste erakundeekazko artu-emonak**

1870'tik asita dagoz.

## **F Saila.—Udaleko ez diran agiriak**

1863-1881 bitartekoak dira.

## **G Saila.—Osatu bako gauzak eta danetarikuak**

1932-1941 bitartekoak dira.

## **H Saila.—Zuzentza**

Auzitegietako goraberak sartzen dira salí onetan. 1892 urtetik ona-  
koak dira.

Bizilagunen erroltzea, jaiotzetakua, 1873 urtean asita.

## ESKU LANAK



Gorulak gero dabee  
egiten aia,  
Matasarako bear  
da itxoroskia;  
lisiba ta iruntzak

|  
eta ariltokian  
dira arilduten.

**(Liñularien abestiak)**



**MARRAGA LANETAN**









KARIE



BASABARRI GOIKOA



**LIXIBA EGITEN**



**ETXEKO LANETAN**





OGIGIÑAN



OGIGIÑAN




**BEKO ERROTA**



**BEKO ERROTA**



**URRIOLA ETXEBARRI**



**KUTXA**



LIXIBA ARRIA

~111•110



BEKO SUA



**SAN MARTIN ETA SAN ANDRESETAN  
TXARRI ILTEAK BASERRIETAN**



**ERROTA**



**TOLAREA**

**KALEAN ZEAR**



**ABOITIZ**



**ALKORTA**



**ALEGRIA**



**ALEG RIKOENAGA**






de

l  
i . if  
i\*  
g

**ARGIÑENA**



**ARRANGIZ**




14 "



**AULESTIA**



**BIDEGAIN**



SAN LORENTZO ERMITAKO KUTXA



BIDEBARRI



**ELIZOSTE**



**ERRETXIL**



**IBAÑEZ DE ALDEKOA**



**FRAILINEKOA**



**KATXINENA**



**KANTOIKOA**



**KORTA**



**KALEKOETXEA**



**LUKASENEKOA**



**MULUTEGI**





**SOLAGUREN**



**TELLERIA**



**TXURTUBI**




**ALDAKOR S.A.**




**GALANTENA**


)IVNnauvr 0000



)IVNfIQHVr 0000



)1vNnolivr 0900





---

**KORTABITARTE BEKO**



**OLABARRI**



**BEITI BEKO**



**BEITI BEKO**





**AULESTIAR JATORRAK**

---

IV -BASERRIRIK BASERRI  
ETA ETXEZ ETXE

---

## **AGIRRE = AGERRE = AGARRE (Malax)**

- 1796 urtean, Migel Malaxetxebarria agertzen da jaube lez eta bertan bizitzen.
- 1798'n, sugale osoko edo fogera osokotzat izentatzen dabe erriko zergak ordaintzeko eta paperetan irakurten da auzo onetan dagon etxe barri bakarra dala.
- 1810 urtean, jaube bardiñak jarraitzen dau, eta erreteru lez Antonio Tororikaguena. Onek agertu eban urtean 40 dukat dirutan eta anega bi gari ordaintzen zitula errenta orde.
- 1989 Utsik dago. Aste buruetarako erabilten dabe. Jaube lez Juan Aiarza eta Maria Jaro ezagutzen dira. 6 hektarea.

## **AKAITURRIA      Goierri**

- 1388 urtean, Ziarrotzako Kolejiataren korta (sel) lez agertzen da.
- 1704 urtean, S. Akaiturria ezagutzen da jaube lez eta bertan biziten.
- 1745 urtean, Dgo. Akaiturria jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, bardin.
- 1799 urtean, Domingo jaubeak agertu eban, errentara atara ezkerro, etxe onek emon eikeazala urtean, garbian, 770 erria!. Baiña 390 dukaten zorra eukan bere gainean. Au da, 200 dukat F. Landabururi, Ipazterreko Juan Gerrekoari 100 eta Markiñako Merzedeko monjeri 90 eta orrez gain Ziarrotzari ordaindu bear izaten eutsan garia.
- 1810 urteko agirietan Juan Angel Auzokoa agertzen da jaube lez. Onek esan eban, mendien probetxua sartuta, 120 dukat emon eikeazala urtean. Urte orretan 481 dukaten zentzoak eukazan bere kontura euneko iruan. Eta Ziarrotzako Kolejiatari urtean iru anega eta lau ;miña gari ordaindu bear izaten eutsazan.
- 1989 Jesus Urriola Auzokoa eta Polonia Iturriaga bere ama dira jaubeak. Jausita dago.

## ALBINAGORTA (San Anton)

- 1500 urtean, Ziarrotzako Kolejiatagaz sagarrei buruz egiña eukan tratua, aldatu egin eben gariaren konturako enfiteusi zentzu bategatik.
- 1610 urtean, Ziarrotzako Kolejiataren eskabidez erabagi bat emon zan, etxe onetako jaunari jakin eragiten eta agintzen etxe onetako asikiñak (primiziak) Kolejiata areri emon bear eutsezala.
- Urte bi lenago, 1608'n be, agiri bat agertu zan asikiñak Ziarrotzari zor eutsezala gogoratzen.
- 1704 urtean, ba dirudi Aulestia izenez agertzen dala etxe au, eta Maria Aulestia bizi zan bertan.
- 1799 urtean, Juan Soloaga agertzen da jaube lez. Bere esanetan, errentara atara ezkerero 840 errial emon eikeazan urtean eta mendietako ikatzagaitik beste 150. Zorrak eukazan zentzotan: 230 dukat Parrokiko abadeari; beste 100 l. Alzelegi'ri; 50 Errosarioko Kofradiari eta 30 Nabarnizko abadeari.
- Uste da etxe au desagertu edo galdu zan Aulestia etxea izan zala.

## ALDEKOA (Malax) = MALAX-ALDEKOA

- 1704 urteko errolltzean, M. Aldekoa zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Domingo Aranburu agertzen da jaube. Bera eta aita, biak ezkonduak, bizi ziran bertan.
- 1796 urtean, Maria Uriolagoitia agertzen da jaube eta bertan bizitzen.
- 1799 agirietan, Markos jaubeak autortu eban errentara atara ezkerero 1.050 errial lortu eikezala eta beste 100 errial ikatzagaitik.
- 300 dukat eukazan zorretan, 200 Ana Mari Malax'eri eta beste 100 Zuberotar Josefari.
- 1810 urtean Maria Goitia alarguna zan jaubea.
- Autortu eban errentara atara ezkerero, 110 dukat lortu eikezala. Urtean lau imiña gari emon bear eutsazan Mora'ko Kondesari mendiak erabiltearen orde.

Urte onetan 1.080 dukat zorretan eukazala jakin eragin eban.

1989 Etxe bizitza bikoia da.

Bat utsik.

Bestean Antonio Uriarte bizi da, erreteru lez.

Etxeen jaubea Timoteo Legarra da.

10 hektarea.

## **ALDEKOA (Narea)**

1704 urteko errotzean, Domingo Landeta agertzen da jaube eta bertako bizilagun.

1745 urtean Jose Landeta.

1796 urtean M. Landeta eta bere amagaz bizi zan.

1799 urteko agirietan esaten da, etxeak, errentara atara ezkerro, ikatza sartuta, 355 erria) emon eikezala, baiña 340 dukat zorretan egoan, au da, 200 dukat Adrian Calle'ri; 100 dukat Gernikako Klaratar monjarei eta beste 40 Bolibar'eko abadeari.

1810 Errentara atara ezkerro 53 dukat lortu eikezala esaten da, mendi gitxi eukala jakin eragiñaz. Eta zorretan 612 dukat.

1900'tik ona jaubetasun zuzena dauka.

1989'n, Hilario Landeta da jaube eta Elisa Zarragoikoetxea emaztea, eta Flora eta Jabier semeak, eta lñaki eta Pedro Landeta anaia; jak bizi dira bertan.

13 hektarea. 4 bei, 4 txal, 20 ardi ta abar.

## **ANDIKOETXE BARRIA (Etxe zuri) (San Anton)**

Oraintsu egiña da.

Jose Luis Juaristi da jaube eta Ageda Arriaga emaztea eta Aitor, Jone eta Ainhoa seme alabak bizi dira bertan.

## **ANDIKOETXEA TORRETXUA edo TORREZULO (San Anton)**

1745 urtean, Montarrongo kondearen jaubetasun lez agertzen da eta Franzisko Abaitua bertako bizilagun.

1796 urtean, jaubetasuna Narro'ko Markesaren izenean dago.

Ba dirudi etxe au garaixe izan zala.

1989 Jose Mari Rementeria da bertako jaube eta bere emaztea Rosario Intxausti eta Igor eta Alizia serne alabak bizi dira.

Tolarea dauka, baiña azken 25 urtetan erabili barik.

### **ANDIKOETXEA = ANDIKETXE (San Anton)**

1704 urtean, Pedro Villarreal de Berriz ezagutzen zan bertako jaube eta Franzisko Abaitua errenterua.

1799 urtean, errenteruak agertu eban 1.100 errial ordaintzen ebazala errenta lez.

1810 urtean, etxea erdi bitan banatuta egoan.

Erdika bat lengo errenteruak eukan eta 17 dukat dirutan eta 6 anega ta erdi garitan ordaintzen zitun.

Beste erdia, bitan banatzen zan.

Bertako zati baten egoanak, 8 dukat ordaintzen zitun dirutan eta iru anega ta laurden garitan.

Eta beste erdi onen zatia eukanak bardin.

1989 Iru etxe bizitzatan banatzen da.

Baten jaube Petra Onaindia Espilla da eta Juan Jose bere semeagaz bizi da.

12 hektarea.

Bei bat, txal bi, txarri bat eta 8 ojllo daukaz.

Bigarren zatiaren jaube, Jose Maria Rementeria da.

6 hektarea. Txal bi, auntz bi, 9 ardi, aari bat, txarri bat, ojllo eta abar.

Irugarren zatiaren jaube Jose Luis Juaristi da.

5 hektarea.

### **ANGIZ NAGUSIA (San Anton)**

1532 urtean. Parrokian sepulturak banatzean agertzen da etxe au.

1704 urtean. Domingo Arespakotxaga agertzen da jaube lez eta Antonio Juaristi bertan bizitzen.

1745 urtean. Jaube bardiña, baiña errenteru lez Jose Malaxetxebarria eta Juan Aulestia.

- 1796 urtean. Jose Arespakotxaga, jaube eta Migel Malax bizi.
- 1799 urtean. Angiz torre lez agertzen da eta bizitza bitan banatuta. Etxe bakoitzeko erreteruak 600 (seireun) errial ordaintzen zitun.
- 1989 Utsik.  
 Bateko jaube Jesus Goitiandia da. 6 hektarea.  
 Besteko jaube Isabel Ikazuriaga. 6 hektarea.

### **ANGIZ OLEA = ANGIZOLA (San Anton)**

- 1704 urtean Diego Arespakotxaga zan jaube eta Ind. Trotiaga erreterua.
- 1745 urtean jaube eta erreteru bardiñak agertzen dira.
- 1796 urtean Leon Arespakotxaga jaube.
- 1799 urtean, Jose Espilla erreteruak adierazi eban 660 erria) ordaintzen ebazala errentatzat eta beste 15 ikatzen ordezt, baiña etxeak orrez gain Nabarnizko abadeari 148 erria) zor eutsazala.
- 1810 urtean, erreteru berberak agertu eban bere ugazabari 60 dukat ordaintzen eutsazala, beste bost ataraten eban ikatzaren ordezt eta beste 10 dukat Urtikiz mendiaeren bostgarren zatia erabiltearrenr  
 Eta etxeak 1.192 dukat eukazala zorretan zentzotan.
- 1989 Utsik dago.  
 Jose Luis Bollar da jaubea.  
 10 hektarea.

### **ANGIZ ERROTA (San Anton)**

- 1745 urtean Dgo. Arespakotxaga zan jaube eta Josefa Zelaia alarguna bizi zan bertan.
- 1799 urtean, 900 erria) ordaintzen ebazan urtean, errenta lez.
- 1950 Inguru onetan itxi eutsan uruna egitearj.
- 1989 Jaubea: Antonia Bengoa eta bere neba-arreba Jabier eta Julia bizi dira eta Juliaren senarra dan Bartolo urizar.  
 Hektarea bat.

## **ARANBEASKOA (ARANBIZKUE) (Narea)**

- 1704 urteko erroltzean Domingo Aranbeaskoa agertzen da jaube. Saltzera atarata egoan.
- 1745 urtean Jose Aranbeaskoa jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Bernardo Intxausti jaube eta bertan bizi.
- 1799 urteko agirietan, jaubeak agertu eban errentara atara ezkeru 484 errial artu eikezala.  
Urte orretan 555 erria) zor eutsazan Lekeitio'ko monjaei.
- 1810 urte onetan jaubeak diño 980 erria) atara eikezala errentan ipini ezkeru.  
Zorra geituta eukan. Oraingotan 560 dukat zor Lekeitioko Dominikar monjaei.
- 1899 Domingo Etxebarrieta da jaubea eta Luzia Alberdi emaztea eta beste seme bi bizi dira eurekaz.  
8 hektarea.  
4 bei, 7 txal, beor, auntz, oillo eta abar.

## **ARANGOENA (ARANGUEEN) (Narea)**

- 1704 urteko erroltzean, Pedro Arangoena agertzen da jaube lez eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Juan Arangoena jaube.
- 1796 urtean, Juan Bautista Arangoena jaube eta bertan bizi.
- 1799 urtean, jaube orrek agertu eban errentan ipini ezkeru urtean 940 errial lortuko ebazala eta beste 60 errial ikatzagaitik.
- 1810 urtean, berberak esan eban, bera bizi zan etxe zatia-gaitik 60 dukat atarako ebazala, errentan ipini ezkeru eta bere anai Josek, berak erabilten eban beste zatia-gaitik 66 lortuko ebazala, bere jaubetasuneko ganadutza eukalako eta beste 6 mendiak erabilteagaitik.  
370 dukateko zentzoak eukazan etxeak bere aurka.
- 1989 Eugenio Urizar da jaubea.  
10 hektarea.



## ARKOIDA (Narea)

- 1796 urtean, Martin ibañez de Aldekoa zan jaube. Errenterua eukan.
- 1798 urtean, errenteruak agertu eban urtean 176 erria) ordaintzen ebazala errentetzat.
- 1810 (bañez de Aldekoatarrak jaube.  
Errenteruak esan eban 801 errial ordaintzen ebezala errenteru biren artean eta beste 16 mendiak erabilteagaitik.
- 1989 Etxe bizitza bat 1963 urtean erosi eban, len errenteru zanak. Mendiak be sartzen ziran salmentan eta aurrez erositako beste mendi batzuk ba eukazan. Erosi ondoren Idahora joan zan ipoteka ordainduteko diru apur bat egitera.
- Beste etxe bizitzakoak be 1963 urtean erosi eban, len errenteru zanak.
- Onek be aurrez beste mendi batzuk erosita eukazan. Aurreratuta eukan diruagaz orda;ndu eban.
- Bateko jaube Martin Idoeta da eta Mari Bengoetxea emaztea eta Zuriñe alabea bizi dira. 9 hektarea, 5 bei, 4 txal, txarri bat, mando bat, eta abar.
- Besteko jaubea Iñazio Arrate eta Marja Asun senar emazteak dira eta euron seme Iñaki eta Bitor bizi dira. 9 hektarea.
- 7 bei, 10 txal, auntz bat, txarri bat, mando bat, eta abar daukez.
- Etxeak bere orman **1765** agertzen dau.
- Ba; eta beste lauki baten esaera au:

t<sup>er</sup> Premio

Concurso Caserios

1974

Caja de Ahorros Municipal de BILBAO.

## ARKOIDE BEKO (Narea)

- 1798 urtean, sugale (fogera) erdikotzat agertzen da.
- 1810 urtean, Jose Arangüena zan jaube eta 21 dukateko errenta eukan.
- 1899 "Arkoide txiki" lez ezagutzen zan.
- 1989 Galduta dago.

## ARTEA MALAX MALAX ARTIA ARTEAGA (Malax)

- 1532 urtean, parrokoiko sepulturak egitean, agertzen da etxe onen izena.
- 1704 ko erroaltzean, Juan Aramburu zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean jaubetasuna Mariana Zuberogoitia alargunak eukan.
- 1796 urtean, J. Aramburu zan.
- 1799 urtean etxe bizitza bi. Juan Aramburuk esan eban berak erabillanak 1.100 errial emon eikezala eta ikatzetan ogei karga artzen zitula, bakoitza bost erriale-tan, beste 100 errentarentzat. Guztira 1.200.
- 1810 urtean esan eban 120 dukat artu eikezala mendiekazr Eta bere aitaren alde 300 dukaten zentzoa eukala.
- 1989 urtean Isaak eta Benedikto Jaio Onaindiarien izenean dago jaubetasuna, eta amuna Luisa eurekaz bizi dar 20 hektarea.
- 6 bei, 8 txal, asto bat. 3 auntz, oillo, untzi eta abar. Labea be ba dauka.

## ARTEATX BEKOA ETA GOIKOA (Malax)

- 1532 urtean, parrokian sepulturak egitean, agertzen da etxe onentzakoa.
- 1704 urtean, Pedro Arteatx zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, bardin.
- 1796 urtean J. Arteatx zan jaube eta bere aita bizi zan etxean.
- 1799 urtean jaubeak agertu eben etxe bien artean 1.100 errial atara eikezala eta beste 100 ikatzagaitik. Baiña 800 errialeko zorra eukan zentzotan.
- |                       |     |
|-----------------------|-----|
| Ara P. Kortabitarteri | 100 |
| J. Itzari             | 200 |
| F. Landabururi        | 200 |
| Legarra kapillauari   | 210 |
| Mitxel kapitanari     | 98  |
- 1810 urtean Iñazio Arteatx zan jaube eta onek esan eban 120 dukat errentatu eikeazala. Baiña 910 dukat euka-zan zorretan zentzutuan.

1989 Arteatx bekoa. Utsik dago. Jose Urkidi eta Jesusa Olea dira jaubeak.

Arteatx goikoa. Jose Ant. Egaña eta Isabel Iraeta senar emazteak dira jaubeak. Bertan bizi dira Eneritz, Ainhoa eta Oihana sema-alabekaz.

7,5 hektarea.

#### **ARTETXEA ARTETXENA (Urriola Artetxena. Artetxena)**

1745 urtean. Min Zabala jaube. Bertan bizi da. (Konkursoan banatua zan).

1796 Min Malaxetxebarria jaube. Bertan bizi.

Juan Kortabitarte jaube. Bertan bizī.

1799 Antonio Kortabitarte zan jaube eta esan eban errentera atara ezkerro, 710 erria) emongo ebazala. Baiña Mortara'ko markesari urtero emon bear jakon anega erdiren balioa kendu bear zala ortik.

1810 Mendiak sartuta, 100 dukat lortu eikezala, esan eban baserri au erabillanak.

Baiña 453 dukaten zorra eukan. Orrez gaiñera, urtero, Mora'ko kontesari, anega erdi eta imiña erdi gari ordaindu bear eutsazan, erabiltzen zitun mendiekaitik.

1989 Etxe bizitza bi.

1.- utsik.

2.- Felix Bollar bien jaube, eta Fakunda Juaristi emaztea eta Juan semea bizi dira. 17 hektarea. 3 bei, 3 txal, asto bat.

#### **ARTETXEAGA ARTITXIE (Urriola)**

1532 Parrokiko sepultura banaketan, etxe onen izena ageritzen da.

1704 Juan Iturrioz Artetxe zan jaube eta bertan bizī.

1796 urtean, Juan Kortabitarte jaube eta bertan bizi.

1799 Jaubeak esan eban, errentan emon ezkerro, 600 erria) lortu eikeazala.

1810 Martin Malaxetxebarria zan jaube. Onek be esan eban errentan emon ezkerro.

70 dukat lortuko ebazala.

240 dukaten zentzoa eukan:

- 140 dukat Ziarrotzako kolejiatari  
100 dukat Mariana Zubero-Goitiri.  
1989 1.– Utsik dago. Jaubea Bitor Galdiz. 7 hektarear  
2.– Utsik dago. Jaubea Legarra. 7 hektarea.

**ASTUDI (Ibarrola)**

- 1989 6 hektarea.  
Felisa Bengoetxea Aranguena bizi da bertan. Errenterua da.  
Jaubeak, erdiz bana, Isabel Uriguen eta Rosario Zenikaonandia dirar  
38 ardi. Aari bi.

**ATXERRE (Malax)**

- 1989 Lurrez Aulesti. Eleizaz Xemein.  
Ba dira ogeiren bat urte jausi zala. Gaur galdua.  
Luis Bustingorri eta anaia dira jaubeak.

**AUZOKOA URRIJOLAAUZOKOA (Urriola)**

- 1704 urtean, Min de Auzckua zan jaube eta bertan bizi.  
1745 urtean, Bardin. Bertan ama alarguna be bizi zanr  
1796 urtean, Antonio Urriola Auzokoa zan jaube.  
1799 urtean, 680 erria) emoten eban errentatzat eta beste 50 errial amar ikatz kargagaitik. Eta urtero anega erdi gari eroan bear eutsazan Mortazaz'eko markesari. Ordez Markiña'ko Errekalderi 120 erria) zor eutsazan eta Mugartegi'ri beste eun eta 50 Markiñako parrokiari.  
1810 urtean, 90 dukat lortuko ebazala errentara atara ezkerro, esan eban. Eta Mora'ko dukesari, mendiekaz baliotzearen orde, anega erdi eta beste imiña erdi gari emon bear eutsazala.  
1989 utsik dago. (Asteburutarako erabiiten dabe).  
Jaubea: Jose Ramon Malaxetxebarria.

- 1532 Parrokiko sepulturak banatzean, izen au irakurten da.  
 1704 Ind. Barbariola jaube eta bertan bizi.  
 1745 Bardin.  
 1796 Anes Goikoetxea jaube eta Antonio Korpion bertan bizi.  
 1799 Jaubeak agertu eban, errentara atara ezkerero, milla errial lortuko ebazala eta beste berrogetamar ikatza-gaitik.  
 Laureun errial zor eukazan eta Ansotegi'ri garia ordaindu bear eutsan.  
 1810 Jaubeak esan eban, 50 dukat erraz lortuko zitula, errentan, eta beste iru dukat sei karga ikatz lortzea erraz ebalako.  
 Ori etxe erdiagaitik. Beste erdia usufrutoan eukan Juan Kortabitartek. Onek be Z;arrotzako Juan Antonio Ansotegi'ri 4 anega gari ordaindu bear eutsazan eta beste 660 dukat batzuen artean.  
 Urte orretan Barbariola'k 25,384 hektarea eukazan, baiña euretatik 22,28 mendi lurrenak ziran.  
 1989 utsik dago. Jaubea Paula Bollar.  
 23 hektarea guztira.

#### **BARBARIOLA BARRI (Goierri)**

- 1388 Ziarrotza'ko Kolejiata'ko korta "sel" a zan.  
 1989 Barbaiola baserri onduan dagon etxetxua da.  
 Jaubea: Paul Bollar.  
 Bertan bizi diranak: Jose Galdos eta Milagros Bollar, senar emazteak, eta Asier eta Ainhoa seme alabak.

#### **BARRENAGA (Barrenengoa) (Ibarrola)**

- 1796 urtean, Landaburu Barrenengoa lez ezagutzen da.  
 Jose Iñazio Unzeta jaube eta A. Soloaga bertan bizi.  
 1799 Errenteruak esan eban 396 errial ordaintzen ebalara errenta lez.  
 1810 Errentara atara ezkerero, 24 dukat lortuko ebazala, adieraso eban jaubeak.  
 1989 utsik dago.  
 Antonio Perea eta Karmele Alkorta dira jaubeak.  
 6 hektarea.

**BASOBARRI BEKUA (Ibarrola)**

- 1989 Jaubetasun eskriturak Balentin Zarragoikoetxea Landeta'ren izenean dagoz.  
Leon Zarragoikoetxea eta Begoña Aranzeta senar emazteak eta Lorea Zarragoikoetxea alaba bizi dira.  
8 hektarea.  
3 bei, 3 txal, txarri bat, auntz bat, 17 oillo eta untziak.  
Labea ba dago etxean, baiña ez da erabiltzen.

**BASOBARRI GOIKUA (Basabe) (Ibarrola)**

- 1989 Juan Intxausti eta Segunda Etxabe dira jaubeak eta Jesus Arakistain eta Teresa Intxausti senar emazteak eta Noeli eta Jesus seme alabak bizi dira.  
8 hektarea.  
Bei bi, txal bi, asto bat, auntz bat, 4 koneju, oillo eta abar.

**BEASKOA BIZKUE BIZKO (San Anton)**

- 1704 urtean, Min de Artea agertzen zan jaube eta bertan bizitzen.  
1745 urtean, Juan Beazkoa jaube eta bertan bizi.  
1796 Ibarra Beaskoa deitzen zan. Juan Ibarra bizi zan bertan.  
1799 Agiri baten esaten da 880 erria) errenta orde eta beste 100 mendiekaitik lortu eikezala. Urtero Mortaraz Markesari 4 anega gari emon bear eutsazan mendiak erabilteagaitik.  
1810 Jose Mari Ibarra agertzen da jaube lez.  
Onen esanetan 100 dukat lortu e;keazan errentara atara ezkerero. Mora'ko Kondesari 4 anega gari emoten eutsazan.  
Urte orretako agirian esan eban milla dukat eukazala zorretako zentzoetan.  
1989 Odiaga tar Erramun eta Bitori Aranguren dira jaubeak.  
10 hektarea.  
Labea ba dauka, baiña erabili ez.

## **BEKO ERROTA (Ibarrola)**

1989 Maria Bollar Gabiola da jaube eta bere seme Jesus eta Jose Plaza bizi dira.

## **GOIKO ERROTA**

1989 utsik dago.

Jaubea: Maria Bollar Gabiola.

1983 urte ezkeroztik urunik ez da egiten

8,5 hektarea errota bien artean.

## **BEITIA BEITI GOIKUA (Malax)**

1532 Parrokiko sepulturak banatzean, izen au agertzen da.

1610 Ziarrotzako Kolejiataren erabagien artean, etxe au Kolejiata aretara asikiñak emotera beartua egola esaten dabena agertu zan.

1799 urtean. (Malax Beitia'ko baserri bi esaten da papere-tan).

1989 Juan Onaindia eta Agustina Zabala dira jaubeak eta euren alaba Maria eta onen senar Rikardo eta euron seme alaba bi bizi dira.

22 urte inguru dira barrizatua izan zala.

5 hektarea.

Bei bi, txal bi, asto bat eta untziak (konejuak).

## **BENGOETXEA BENGETXE (San Anton)**

1704 Pedro Bengoetxea zan jaube eta bertan bizi.

1745 Min Bengoetxea jaube. Bera eta bere aita bizi ziran bertan.

1796 Franzisko Bengoetxea jaube eta bertan bizi.

1799 Agiri baten F. Bengoetxeak esan eban errentara atara ezker, 880 erria) lortu eikeazala eta beste 150 ikatza-gaitik. Baiña 966 dukat zor eukazan. 800 Amrotoko Pedro Goio'ri eta beste 166 Parrokiko abadeei. Gaiñera Mortarazko markesari 4 anega gari emon bear izaten eutsazan, mendiak erabiltearren.

1810 urtean Errentara atara eskero, 115 dukat lortu eikeazala agertu eban.

Urte aretan Mora'ko Kondesari emon bear eutsazan 4 anega gariren gain, 166 dukat zor eutsazan Parrokiko abadei.

1989 Etxe bizitza bi. Baten Juan Gallatebeitia eta Maria Karmen Ikaran bizi dira, eta euren seme Jon eta osaba Antonio Ikaran bizi dira. Erreteruak dira. Jaubea Ramon Pineda da.

10 hektarea. 23 ardi, aari bat, 20 untxi (koneju), oillo ta abar. Labea ba dauke, baiña erabili ez.

Beste bizitzako jaubeak Madalena eta Eusebia (bañez Juaristi dira.

10 hektarea.

### **BEÑE = BEÑA (Malax)**

1704 Migel Aranburu zan jaube eta bertan bizi.

1740 Juan Aranburu jaubeak zentzu bat berbatu eban 200 dukatena, euneko seian, etxearen aurka, eta Domingo lbaibariaga'ren alder

1745 Domingo Urizar agertzen da jaube eta bertan bizitzen.

1796 Jose Itza jaube eta bertan bizitzen.

1799 Errentan urteko 600 erria) eukazan eta beste eun errial artzen ebazan ogei karga ikatzegaitikr Baiña ogei imiña ordaindu bear eutsazan garitan, enfiteusi orde, Mortarako markesari.

1810 Jose Izak eukan bizi zan arteko etxearen gozamina. Esan eban, errentara atara ezker 84 dukat lortu eikeazala. Urteroko gari emon bearra gogoratu eban; 20 imiña gari Mora'ko kondesarir Eta urteroko ordain beartzat eukan Parrokiko Abade Taldeari 33 dukat emotea eta beste irugarren bat, urtero meza bat eskintzeko bearkunagaz.

1989 Jose Urkidi eta Jesus Olea dira jaubeak.

### **BIZKOETXEA BIZKOETXE (San Anton)**

1745 Monterron'go kondea zan jauber Erreterua: Franzizko Abaitua.



1989 Jaubea Jose Luis Goikoetxea. Bere emazte Paula Gabiola eta onen neba Bixente eurekaz bizi da, bai eta Jesus Goikoetxea semea be.  
5 hektarea.

**BOLUNAUUR      BOLUNTXU      (Urriola)**

1704 urteko erroltzean, Jose Gabika agertzen da jaube eta Franzisko Soloaga bertan bizi.

1745 Paperetan "Molino llamado Boluntxu" irakurten da eta auzoko bizilagunena dala esaten da. Juan Solaguren bizi zan erreteru lez.

Urte berean, "Casería Bolunaur" agertzen da, eta erreteru berbera.

1796 urtean Bartolome Malax Etxebarria zan jaube eta Jose Ansotegi erreterua.

1799 urtean, esan eben 330 errial eukazala errentatzat.

1810 urtean, erreteruak esan eban urtero 20 dukat ordaintzen ebazala dirutan eta beste iru anega garitan, orrela, dana dirutan kontatu ezkeru, 30 dukat eta amar errial ziralar

1989 Iñazio Aboitiz da jaubea eta Juana Sangroniz senar-emazteak bizi dira eta Esperanza Aboitiz eta Juan Tomas Gerrikaetxebarria senar-emazteak eta euron seme-alaba Mikel eta Oihana.

17 hektarea. Bei bat, txal bi, asto bat, oillo eta untxiak (konejuak).

**EGIBURU      (Malax)**

Lurrez AULESTI.

Eleizaz: Xemein.

1989 utsik dago.

Timoteo Legarra da jaubea.

## **ERREKENA ERREKA (San Anton)**

1989 utsik dago.  
Iñazio Kortabitarte da jaubea.

## **ESPILLA      ISPILLA Andikoa      (Malax)**

1704 Diego Espilla jaube eta bertan bizi.  
1745 Jose Espilla jaube eta bertan bizi.  
1796 Dgo. Olabarria jaube eta Jose Espilla bertan bizi.  
1799 Jose Espilla jaube.  
Errentan ipini ezkerro 830 erria) artuko )eukezala adie-  
raso eban eta beste 50 errial geiago ikatzetan. (urteko  
10 karga).  
1810 Juan Espilla bizi zan bertan, baiña bel e anaia zan  
etxea usufrutuan eukana.  
1989 Ana Olabarria da jaubea.

## **ESPILLA      ISPILLANDI Emetikoa**

1704 ko erroltzean, Min Espilla agertzen da jaube eta ber-  
tan bizitzen.  
1745 Jose Ansotegi jaube eta berbera bizi.  
1796 Pedro Batarrita jaube eta berbera bizi, beste erreteru  
bategaz.  
1799 Emaitz eta ikatzetan 685 erria) emon eikeazala urtean,  
adieraso zan.  
1810 Martin Ibarra zan jaube, Pedro Batarritik eukan usu-  
frutua eta Jose Batarrita, erreterua.  
Onek esan eban, alokatu ezkerro, erdiagaitik 50 dukat  
lortuko ebazala eta beste orrenbeste beste erdiagaġtik.  
Etxearen aurka 100 dukat emonda eukazan Mugarte-  
gi Markinakuak eta beste 20 Ansotegi Ziarrotzakuak.  
1981 Etxe bizitza bi.  
Baten, erreteru lez, Eusebio Onaindia eta Mari  
Dominga Etxabe bizi dira, alaba bigaz. Jaubea Maria  
Cruz Sangroniz da.

## ETXEBARRIA      LEKOIZ ETXEBARRIA      (Malax)

- 1704 urtean Antonio Etxebarria zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Juan Malaxetxebarria jaube.    Eta bertan bizi,  
beragaz batera aita ezkondua be ba
- 1796 urtean, Migel Malaxetxebarria zan    jaube eta Juan  
Atxabal bizi.
- 1799 urtean, 492 erria) eukazan errenta orde.
- 1989 85 urte dira erre zala.  
Jaubea Jose Mari Fuldain Onaindia da.  
4 hektarea.

## GALASTENA      (Ibarrola)

- 1799 urtean, Juan Meabe bertako jaubeak esan eban, 810  
errial lortu eikezala errentan ipini ezkeru.
- 1810 urtean Antonio Meabe zan jaube eta bertan bizj.
- 1989 utsik dago. Konpontzen dabiliz.  
Etxe bizitza bi daukaz.  
Bateko jaubea Jose Luis Kareaga Urizar da. 300 m.2.  
Bestekoak, 300 m.<sup>2</sup>, lautu emen be, lauren izenean  
dagoz eskriturak: Teodoro Meabe, Migel Angel  
Lezeartua, Joan Abaroa eta Jone Bollar.

## GARETXANA GARATXAGA (Ibarrola)

- 1704 Ind. Garetxana zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 Dgo. Garetxana jaube eta bertan bizi.
- 1796 Juan Goitia, mutikoa zan jaube eta bertan bizi.
- 1799 Adieraso zan errentan emon ezkeru, 925 errja) batetik  
eta ikatzagaitik beste 225 erria) emon eikezala.  
Mortaraz'ko markesari 4 anega ta erdi emon bear eu-  
tsazan urtero garitan mendiak erabilte-ordez.
- 1810 urtean, jaubeak agertu eban errentan emon ezkeru  
140 dukat emon eikezala, ikatzak sartuta.
- 1989 utsik dago, 1975 urte ezkeroztik. Etxeko orman **Año**  
**1806** irakurten da.  
Jaubea Enkarna Anitua Urizar da.  
40 hektarea, iru etxe sartuta:

**Garatxaga:** Baserri alboko etxe bizitza. Andresa Urizar (ama) eta Enkarna Anitua (alaba eta jaubea) bizi dira bertan.

**Usuaga beko, edo Usua beko.**

Gizaldi onen asieran erre zan. Enkarna Anitua da jaubea.

## **GARIBILLA (Urriola)**

1796 urtean Juan Ansotegi zan jaube eta Min Ansotegi bertan bizi.

1790 urtean sugale (fogera) osokotzat etsi eben.

1799 Migel Maguregi errenteruak esan eban urteko 430 errial ordaintzen ebazala eta beste 20 errial ikatzaren orde.

1810 Jose Zabalbeaskoa zan etxeko kontulari, epaikariak izentatuta. Onek esan eban errenteruak 50 dukat ordaintzen ebazala eta beste lau dukat eta erdi mendiekaitik. Eta etxeak, bere aurka, gitxi gorabera bederatz milla dukat eukazala zorretan.

1989 utsik dago. Bateko jaube Dgo. Espillandia da. Bestean Antonia Azpiazu.

## **GOGEASKOETXEA GOIZKUE GOIZKO GARRAXI (San Anton)**

1704 urtean, Min Goxeaskoetxea zan jaube eta bertan bizi.

1745 urtean, Juan Goxeaskoetxea zan jaube eta bertan bizi, bere aitagaz.

1796 (GizaburuagaGoxeaskoetxea) irakurten da. Jaubea lengoa.

1799 930 erria) errentatu eikeazala esan zan. 290 dukateko zorra eukan.

1810 176 dukat artu eikezala errentan, esan zan. 390 dukat eukazan zorretan eta Morako kondesari anega ta erdi gari eta beste imiña bi emon bear izaten eutsazan basoekaitik.

1989 Paulino Plaza Kortabitarte da jaubea. 30 hektarea.

Labea ba dauka, baiña erabili ez.

Idatzi au dauka bere orman: GOGEASKOA  
Reedificada  
por Maria Batista  
D Beascoa Viuda  
D Francisco D Plaza  
Dirigida por su Hijo  
Ignacio Plaza.  
Año de 1887.

### **GOGEASKOA (Zubero)**

1704 errotzean, Asensio Alzalegi zan jaube eta bertan bizi.  
1796 Iñazio Uriarte zan jaube eta Mateo Etxabe eta Juan  
Zabala bertan bizi.  
1799'n eurak bizi ziran eta esan eben 760 erria) ordañntzen  
ebala urtero errentatzat.  
1989 utsikr

### **GOIKOETXEA      GOIKO-ETXEBARRI      (Goierri)**

1785 urtean saldu zan.  
Ziarrotzako Kolejiataren zelai baten jaso zan.  
Urtero anega bi ta erdi garitan ordaindu bearra eukan,  
bañña ezin ordainduta ibilten zan eta erostzaillea bear-  
tu eben zorrak ordaintzera.

### **GOIKOETXEA MALAX GOIKOETXEA**

1532 urtean, parrokkiko sepulturak egitean, ba dago etxe  
onen ezaupidea.  
1704 urteko errotzean, Pedro Goikoetxea zan jaube eta ber-  
tan bizi.  
1745 urtean Min Aranburu agertzen da jaube lez.  
1796 urtean Dgo. Olabarri da jaubea eta bertan bizi da, bai  
errenteru bat be.  
1799 urtean agertu eban, errentan 660 erria) lortu eikeazala  
eta beste 100 ikatzagaitik.

1810 urtean jakin zan errenteruak urtero 77 dukat ordaintzen ebazala.

1989 Migel Aierza eta Joakina Zubizarreta dira jaubeak, bertan bizi dira, bai eta euren seme Jose Antonio be. 2,5 hektarea.  
3 bei, txal bi, asto bat, eta abar.

### **GOIKOOLEA      GOIKOLA      (Ibarrola)**

1704 urtean, Ursula Kuadra'ren konkursokoa zan. I. Alzaga bizi zan bertan.

1745 urtean, Josefa Basterretxea zan jaube eta Domingo Oruetak eukan errentan.

1796 urtean, Jose (bañez de Renteria zan jaube eta Santiago Martin errenteru.

1799 urtean, errenteruak agertu eban 368 erria) ordaintzen ebazala errenta orde.

1810 urtean, 40 dukat ordaintzen zitun errenteruak etxearen kontura eta beste 12,5 ataraten eban ikatzaren orde.

1989 urtean Jose Mari Gabiola eta Miren Azpiazu dira jaubeak eta Ramon eta Maria Nieves seme alabak bizi dira.

14,5 hektarea.

2 bei, lau txal, asto bat eta auntz bat.

### **GOIKOLEA ETXEBARRI      (Ibarrola)**

1989 Lazaro Ansotegi eta Dominika Bermeosolo dira jaubeak eta Pedro semea bizi da eurekaz.  
8 hektarea.

Bei bi, 4 txal, 40 ardi, aari bat.

Labea bai, erabili ez.

## **GOITIANDIA (Zubero)**

- 1532 urtean, parrokokiko sepulturak banatzean, agertzen da etxe onen izena.
- 1704 urtean I. Goitiandia zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean Jose Goitiandia, alkatea, zan jaube eta bertan bizi, bai bere aita be.
- 1796 urtean Josefa Goitiandia zan jaube eta bera eta errenteru bat bizi ziran bertan.
- 1799 urtean, adieraso eban 880 errial artu eikeazala errentan eta beste 40 ikatzaren orde.
- 1810 urtean irakurten da "eleizate onetan eta Zubero auzoan, etxe ezaguna da au".  
Jose Goitiandia zan jaube. Zentzu bi eukazan bere aurka, bata Parrokiko abadiak aurreratua, 165 dukat, eta beste F. Villanueva'k aurreratua, 100 dukat.
- 1989 utsik dago.  
Ruben Lekuona'ren izenean dago jaubetasuna.
- GOITIANDIA BARRIA.– Oraintsu egiña da.

## **GONTSOLAI ERDIKUA (Goierri)**

- 1946 urtean egiña da, bestearen lagungarritzat.
- 1989 urtean, Eugenio Jaio eta Mertxe Gerenabarrena senar emazteak bizi dira bertan eta Jon, Sabin eta Gorka semeak.  
13 hektarea.  
Asto bat, auntz b<sub>j</sub>, 48 ardi, aari bat, oillo eta abar.  
Tolarea be ba dauka. Urtero 1.100 litro sagardau egi-ten dabe eta beste 150 litro txakolin.

## **GOROSOLA GONTSOLAI (Goierri)**

- 1532 urteko sepultura banaketan, agertzen da izen au.
- 1704 urteko orroltzean, Juan Kortabitarte zan jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean Domingo Urizar, jaube.
- 1799 urtean esaten da, Gontsolai etxe bien artean 1.100 errialeko errenta emoten ebela eta beste 30 erriak ikatzaren orde.

- 1810 urtean, Goronsolai zarra, Martin Ozamiz'en jaubetasu-  
neko lez agertzen da eta berbera bizi zala bertan,  
beste erreteru bategaz.  
Onek esan eban erdiagaitik zazpi anega gari ordain-  
tzen ebazala eta beste 300 errial dirutan.
- 1945 urtean erre egin zan.  
Etxe bizitza bikoia zanr  
Orain jaubea David Rodriguez da eta aste buruetan  
bertaratzen da.  
11 hektarea.

## **GORONSOLAI ETXEBARRI**

- 1704-1745 bitartean egiña.
- 1745 urtean Min Leniz Uribe zan jaube eta bertan bizir
- 1796 urtean Domingo Urizar jaube eta bertan bizi.
- 1810 urtean, etxeko zati baten erreteru zan Domin Txopi-  
teak (erdia, emen eta beste erdia etxe zarrean), esan  
eban bietan errenta bardiña ordaintzen ebala, eta etxe  
bien artean 190 dukat eta beste amar errial ordain-  
tzen ebala.
- 1989 urtean, Jose Egaña Iturraran eta Karmen Etxabe bizi  
dira, euren seme-alaba Arantza eta Luis'egaz.  
Jaubea Franzisko Artetxe da.  
10 hektarea.  
Labea ba dauka, baiña ez dabe erabilten.

## **IBAKAL      IBAKATZ      (Ibarrola)**

- 1532 urteko sepulturen banaketan ezagutzen da izen au.
- 1704 urtean, ibakatx zarra. Domenga Larrea jaube eta S.  
Angiz bertan bizi.
- 1704 urtean, Ibakatx torrea. D. Arespakotxaga jaube eta  
Marina Arezokoa bertan bizi.
- 1745 urtean, Ibakatx'eko etxe eta errota agertzen dira, D.  
Arespakotxaga jaube.
- 1796 urtean, Ibakatx Makurra barria, esaten da, jaubea:  
Migel Malaxetxebarria.



- 1799 urtean D. Soloaga agertzen da Ibakatx Makurrako erreteru lez eta 330 erria) ordaintzen ebala bere errenta.  
Gizon berbera da baita be Ibakatx errotako arduradun eta 1.100 erria) ordaintzen ebazala urteko autortu eban.
- 1810 urtean Ibakatx Makurra irakurten da, M. Malaxetxebarría jaube zala. Seireun dukateko zentzoak eukazan etxearen aurka.
- 1989 Iñazio Onaindia eta M.<sup>a</sup> Kareaga dira jaubeak. Euren seme alaba Amaia, Jabier eta Juan Mari eta onen emazte Arantza Abrisketa bizi dira.  
8 hektarea.  
3 bei, 3 txal, txarri bi eta auntz bi.  
Ibakal edo Ibakatx torrea, galdu zan.

**IBARROLA ANDIA      (Iborlaun)      (Ibarrola)**

- 1704 urteko errotzearan, Adrian Ibarrola zan jaube eta bertan bizi.
- 1745 urtean, Manuel Meabe.
- 1796 urtean, Juan Meabe Ansorena.  
Urte onetan, errota bi agertzen dira, Ibarrola goiko eta Ibarrola beko izenekaz.  
Batak eta besteak bardin ordaintzen dabe urteko errenta, agirietan irakurten danez: Bakoitzak 660 erria).  
Ormako irakurgai au dauka: Lo izo  
esta ca  
sa ADRI  
ANDI  
BARROLA  
Año  
D 1811
- 1989 Etxe bizitza bi daukaz. Jaubeak, erdiz erdi, I. Uriguen eta R. Zenigaonaindia.  
Etxe bat utsik dago.  
Bestean Jose Ant. Zenarruzabeitia eta Anastasio anaiak bizi dira. Erreteru lez.  
8 hektarea.  
10 be, 10 txal, asto bat, beor bat, zaldi bat, 138 ardi, aari bi, auntz bi.

## **IBARROLA ANDIKOA (Ibarrola)**

- 1532 urteko sepultura banaketan agertzen da izen aur  
1704 urteko errotzean, Juan Ibarrola zan jaube eta bertan  
bizi zan.
- 1745 urtean, Ursula Uriarte alarguna zan jaube.
- 1796 urtean, Adrian Ibarrolar
- 1799 urteko agirietan, onek esan eban errentan imini ezker  
880 erria) lortu eikezala eta beste 225 errial urtean  
batzen ziran 45 karga ikatzen ordez.  
Urte onetan 550 dukat eukazan zorretan: Parrokiko  
abadiei 150, Ama Doloretako Kofradiari 100 eta Calle  
Aransolo, Nabarniz'ko abadeari 300. Orrez gain lau  
anega ta erdi emoten eutsazan garitan Mortarazko  
Markesari.
- 1810 urtean autortu eban, errentari emon ezker, 120 dukat  
atara eikezala. Baiña antxiña berea izan zan solo bat  
orain berak artuta eukan eta aren errenta lez 17 dukat  
ordaintzen ebazan urtean.
- 1989 utsik dago. Jaubeak, erdiz erdi, Isabel Urigüen eta Ro-  
sario Zenigaonaindia dira.  
4 hektarea.

## **IBARROLA ZELAI (Zezteruna) (Ibarrola)**

- 1989 utsik dago.

## **IDOETA (Narea)**

- 1532 Urte onetan egin zan sepultura banaketan, agertzen  
da izen au.
- 1704 urteko errotzean, Domingo Idoeta zan jaube eta ber-  
tan bizi.
- 1745 urtean, Juan Idoeta jaube eta bertan bizi.
- 1796 urtean, Dominga Martiartu alarguna agertzen da jaube  
lez.
- 1799 urtean, autortu eban 645 erria) lortu eikezala errenta-  
tzat.
- 1900 urte ezkeroztik ez da aldakuntzarik egon jaubetasu-  
nean.

1989 urtean, Tiburzjo Idoeta eta M.<sup>a</sup> Bengoetxea senar  
emazteak bizi dira, Esteban semeagaz. Jaubetasuna  
azken onen izenean dago.  
18.000 estatu daukaz.

## **IRURDEGI (Goierri)**

- 1608 Ziarrotzako Kolejiatak zabaldutako agiri baten etxe au  
be asikiñak (primiziak) emotera beartuta egoan lez  
agertzen da. Urte bi geroago, erabagi bat agertu zan,  
bete bear ori betetera agintzenr
- 1704 urteko erroltzean esaten da etxea erreta dagola, ba  
dirala sei-zazpi urte erre zala eta ez dabela erriagazko  
ezer ordainduten.
- 1745 urtean Bruno Maria Ubilla agertzen da jaube lez eta  
Franzisko Arkadi erreterua.
- 1798 urtean Irurdegi barria lez esaten da, eta sugale edo  
fogera osokotzat.
- 1989 Jausita dago.  
Abaroatarrak dira jaubeak.  
12 hektarea.

## **IRURDEI GOIKO (URDAI GOIKO) (Goierri)**

- 1745 urteko erroltzetan "otra del mismo nombre y dueño"  
esaten da onega;tik.  
Jaubea, Irurdegi'rena lez, Bruno Mr.<sup>a</sup> Ubilla. Erreterua,  
Mateo Ansola.
- 1796 urtean, Martin Abarrategi agertzen da jaubetzat eta  
Domingo Txopiteak eukan errentan. 627 errial ordain-  
tzen ebazan errenta lez eta gaiñera Ziarrotzako Kole-  
jiatari, garitan, iru anega ta laurden.
- 1810 urtean, errenten autorpena egitean, irakurten da:  
"parecieron Domingo de Chopitea y Francisco de  
Urquiaga, inquilinos en las Casas tituladas Ururde-  
guis, que son propias de la hija de don Martin Jose  
de Abarrategui, ya difuntor..". Esan eben Txomin'ek 18  
dukat eta zazpi errial ordaintzen ebazala dirutan eta  
beste 14 anega gari. Eta bigarrenak, etxe barrikoak,  
bardin ordaintzen ebala.

1989 Jaubeak Abarotarrak dira. Jose eta Sabino Jaio bizi  
dira erreteru lez.  
